

2020

DK memoria



3

Donostia Kultura
Balantzea

10

Egitura eta
balantze ekonomikoa

13

Komunikazioa
eta irudia

16

Donostia Kultura
Bazkideak

20

San Telmo Museoa

29

Kultur Etxeak

81

Liburutegiak

95

Programazioa



- 29 Kultur Ekintza
- 37 Aiete
- 42 Casares-Tomasene / Larratxo
- 49 Egia
- 54 Ernest Lluch
- 58 Intxaurrenondo
- 64 Larrotxene
- 69 Loiola
- 73 Lugaritz
- 77 Okendo



- 95 Artes Eszenikoak
- 103 Musika
- 106 Zinema eta ikus-entzunezkoak

107

Festak

117

Jaialdiak

126

Ekoizpen
unitatea

- 117 Donostiako Jazzaldia
- 119 Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea
- 120 dFeria
- 123 Dkluba
- 124 Poltsiko Antzerkia
- 125 Korner





DONOSTIA KULTURA, kultur txerto eraginkorra 2020an

Buru izan da kulturaren sektoreak pandemiaren kontra eratutako “erresistentzian”

Arlo digitalerantz egindako ziaboga bizkorrak eta osasun-protokoloak ezartzeko estrategiak berretsi dute erakunde honen lidergoa Donostiako kultur ehunean.

Donostia Kulturarekin zerikusia duten kolektibo guztiek, hala bere plantillak nola sortzaileek eta, batez ere, ikus-entzuleek, asmatu dute erreakzionatzen eta “normaltasun berrira” egokitzen.

Covid-19aren etorrerak ez gaitu atera gure bidetik: sorkuntzaren eta bertako artisten aldeko apustutik, alegia.

Bertan behera geratzeak, aforo murriztuak eta beste osasun-protokoloek definitu dute kulturarentzat zaila gertatu den urte hau; zeinean erabiltzaileen, ikus-entzuleen eta parte-hartzaileen kopuruak ez diren iritsi ohikoaren erdira (%47a ikusleen kasuan, eta %48,5a kultur etxeen erabiltzaileen kasuan).

Arrakasta ez datza ikus-entzuleen kopuruetan, sektorea aktibo mantentzean baizik.

30 DK

donostia
kultura
1990-2020

2 2020. urtean, alderdi askotan aldatu dira gure bizitzak. Eta ez dago 2020ko kultura laburbiltzerik, ezta Donostia Kulturaren balantzea egiterik ere, pandemiaren etorrerak eragindako gorabeherak aipatu gabe.

Zertzelada bat aski da gogoratzeko 2020ari esker ohartu garela zenbateraino gure pasioa babes onena izan daitekeen egoera zailetan. Liburuek, musikak, zinemak, bideo-jokoek eta, oro har, kultur sorkuntzak bizitza salbatu digute hilabeteotan. Eta hor egon da Donostia Kultura, oso egokitzapen-maila handia erakutsiz, eta eskaintza harrigarria ere bai, egoera zen bezalakoa izanda.

Pandemiaren gorabeherak kontuan hartuta, balantzerik zuzenena kronologikoa da. Izan ere, den-dena pandemiak eragindako alarma-mailaren arabera aldatu baita.

2020. urtea oso ondo hasi zen Donostia Kulturarentzat, udal ekipamendu eta programa gehienak biltzen dituen erakunde honen sorreraren 30. urteurrena betetzen zelako. Baina laster ikusi zen ez zela izango handikerietarako urtea, eta hobe zela ospakizunen ordeztu sektoreari eta herritarrei babesa ematea, oso egoera zailak ari baitziren bizitzen.

Zenbait festa normaltasun osoz eginak ziren: Erregeen Desfilea, 2020ko San Sebastian Eguneko

haurren zein helduen danborradak (23.832 danborrero kaleetan), bai Kaldereroak eta Inauteriak. Baita urte hasierako kultur programak ere: Poltsiko Antzerkia (34 emanaldi), Korner festibala (1.600 parte-hartzaile), Dkluba, Musikagela Weekend Jaialdia... Musika programazioa eta antzerkiarena eta dantzarena ere oso programazio erakargarriekin hasiak ziren, eta ikus-entzuleen erantzuna ezin hobea zen.

Martxoan, dFERIA Arte Eszenikoen Feria egitea lortu zen, nahiz eta itxura txarra izan egoerak. Aurreko urteetako emaitzei eutsi zien: 32 konpainia 8 agertokitan, 7.000 ikus-entzule garaiko uzta eszenikorik onenarentzat.

DANBOR JOLEAK
23.832

Korner
1.600 parte-hartzaile

Poltsiko Antzerkia
34 emanaldi

dFERIA
32 konpainia / 8 agertoki
7.000 ikusle





Baina **iritsi zen martxoaren 13a**, eta harekin Alarma Egoera eta etxeratzeko agindua, herritarrak bere etxean sartzerara behartu zuena. Donostia Kulturaren 15 kultur ekipamenduek atea itxi zituzten. Beste horrenbeste egin zuten erakundearen 240 langileek ere, baina erantzuna berehala etorri zen. Handik bi astera, martxoaren 30ean, Donostia Kultura hasia zen eduki digital berriak eskaintzen: 15 egunetan, gai izan zen online programazio berria sortzeko, kultur programazio birtual bat, DKetxean aterkiaren estalpean.

Inguruotako 100 autorek eta sortzailek baino gehiagok hartu zuten parte, eta 134 sorkuntzalan eskaini zituzten (kontzertuak, antzerkia, dantza, Ipuinaren Ordua...), denak ere DKetxean-ek bultzaturik. Aldi berean, San Telmo Museoa #STMLoMás jarri zuen abian, museoko piezarik nabarmenenak etxeetara hurbiltzeko bide bat, Second Canvas app-aren bitartez. Zinema arloan, Giza Eskubideen Zinemaldiak bere plataforma sortu zuen Filminen, eta film laburrak proiektatu zituen online, giza eskubideak ardatz hartuta. Larrotxene Bideok, berriz, bideotutorialak eman zituen, film laburrak emititu, baita *Transmediazine* mikromagazina ere. *Larrotxene Zuzenean* emanaldiak ere hasi ziren. Aldi gogor hartan sortu zen, halaber, *Ispilu beltza* irрати-magazina, eta harrezkero atergabe jardun du gure hiriko aktoreei eta kultur erakundeei ahotsa ematen, Donostia Kultura Irratiaren bitartez.

DKetxean eredutzat hartu zuten inguruko zenbait kultur erakundek, eta mugaz harago ere iritsi zen, nazioarteko plataforma digitaletan hartu baitzuen parte, halakoak sortu ahala. Halaxe gertatu zen *Europa at Home*-ren kasuan, edo *Redelae* programan, Latinoamerikan.


Hartara, Donostia Kulturaren lehenasunetako bat bete genuen: sektoreari ahal zen heinean laguntzea, hemengo artista batzuei beren obrak ikusgai jartzeko bidea erraztuz itxialdiaren egunik gogorrenetan.

Nabarmentzekoa da, halaber, liburutegiek hilabete horietan egindako lana, liburuak online deskargatzeko bidea emanez. Horri esker, laukoiztu egin ziren maileguak itxialdian. Hilabete horietako liburu digitalen mailegua 2019ko maileguen %80 izan zen.

#STMLoMás
Second Canvas



ISPILU BELTZA
Irrati-magazina



100 EGILE
134 SORKUNTZA
kontzertuak
antzerkia
dantza
Ipuinaren ordua...

Liburuen onlineko deskarga

x4





Ahalegin horri guztiari errematea emateko, maiatzaren 8an kontzertu bat eman zuten zuzenean Victoria Eugenia Antzokiko teilatutik Izarok eta bere hirukoteak. Oso-osorik online ikus-entzuteko prestatua, deskonfinamendu hasierako asteak baitziren haiek, eta jendearentzako ordutegi desberdinek bide ematen zuten antzoki inguruetan jende askorik ez biltzeko. Huraxe izan zen 2020. urteak kultur arloan eskaini zigun unerik hunkigarrienetako bat.



75.000 lagunek baino gehiagok gozatu zuten DKetxean eskaintza, eta erakunde hau oso harro dago horregatik.

Maiatzean, deskonfinamenduarekin batera, Donostia Kulturak bi lan-ildori ekin zien: erakusleihen digital iraunkor bat sortzeari bere sorkuntza-lanentzat, eta kultur ekipamenduak pixkanaka irekitzeari artea zuzenean kontsumitzeko.

Lehenak DK ON! zuen izena, eta Donostia Kulturaren B aurpegia -aurpegi birtuala- izateko sortu zen. Harrezkero, streaming-eko ikuskizunak edo hitzaldiak hartzen ditu, baita erakundeak bultzatutako beste sorkuntza-lan digitalak ere.

15 kultur etxeak berriro irekitzeari dagokionez, Donostia Kulturak ez zituen behin ere ahaztu hurbiltasun eskaintzaren eta zuzeneko kulturaren aldeko bokazioa eta apustua. Ordurako, zuzeneko emanaldien magiaren egarriz zen jendea, eta txaloen soinu zuzenekoaren gosez.

Hala, Victoria Eugenia Antzokiak ateak ireki zituen ekainaren 10ean, eta maila horretako lehen espazio eszenikoa izan zen Estatu osoan hori egin zuena. Horretarako, *Donostia Kultura, osasunez gozatu!* mezua sortu zuen, erakundeak bere gain hartutako erronkari aipamena eginez: helburua zen bere guneetako ikus-entzuleen eta bisitarien osasuna bermatzea hurrengo hilabeteetan.



Eta halaxe izan zen! Donostia Kultura oso-osoa harro dago esan ahal duelako ez duela Covid-19 kasu bakar bat ere izan bere kultur proposamenetan, nahiz eta ugariak izan ziren 2020an zehar.

Programazio eszenikoari hasiera emateko, O gala bat izan zen, *Piztu argiak*, osasun-langileei egindako omenaldia. Haiek bermatu zuten ondoen arduradunek erabakitako protokolo eta neurrien eraginkortasuna. Ondotik, Giza Eskubideen Zinemaldiaren bertsio txiki bat etorri zen (Giza Eskubideen Zinemaldiaren 18. aldia bertan behera geratua zen). Euskal gaiekin zerikusia zuten hiru dokumentalek berrabiarazi zuten zinema programazioa Donostian.

Bertan behera utzi behar izan ziren gertaera garrantzitsuak, hala nola Kepa Junkeraren omenaldia, hau da, 2020ko Adarra Saria.





Handik laster, Donostiako 12 liburutegietara iritsi zen deskonfinamendua, eta ekainaren 1ean ireki zituzten atea, oinarritzko zerbitzuak eskainiz: besteak beste, aurreko hilabeteetan Donostiako etxeetan itxialdian egondako 37.000 liburuak; beste liburu batzuek ordezkatu zituzten ondoren. Izan ere, jendearen erantzuna ezin hobea izan zen liburutegiak berriro ireki zirenetik. Aste gutxi batzuetan, gainditu egin zen bisitarien %70. Hala, Donostiako Liburutegiaren Sareak 409.045 bisita izan zituen urtean (%48 2019arekin alderatuta), eta 296.265 obra utzi zituen maileguan (2019arekin alderatuta %65).

Ekainaren 2an ireki zituen atea San Telmo Museoa ere, gune guztiz seguru bihurtuta ordurako. Koldobika Jauregi artistaren sorkuntza-jarduera bat izan genuen. Hona hemen berriro ireki ziren erakusketak: *Atzera begirako poetika*, *Antton Elizegi Argazki Funtsa*, *Deabrua ote* eta *Mila eskuren isilpeko lana* (guztira, zazpi erakusketa izan ziren urtean). Bestetik, proiektu interesgarri batzuk, hala nola Elkanoren gaineko erakusketa

edo emakume artistei buruzkoa, 2021era atzeratu ziren. Bisitariak kostata agertu ziren museora, eta, pixkanaka, konfiantza hartuz joan ziren, baina museoena da pandemia gehien nabaritu duen arloetako bat. Hain zuzen ere, nabarmentzekoa da *Pandemiaren lekukotzak* izeneko ekimena, zeinarentzat museoak aldi honi buruzko materiala bildu baitu, hemendik denboraldi batera bizi izan duguna gogoratzen lagunduko diguna.

Azkenik, 260 ikastaroak -4.500 ikasle zituzten- eten egin behar izan ziren martxoan. Asko, online bete ahal izan ziren (161 ikastaro amaitu ziren modu birtualean, %62), baina parte-hartzaileek argi utzi zuten aurrez aurre egin nahi zituztela saioak.

Eta etorri zen uda, eta harekin batera zorioneko “ez-festak”. Ageriko ospakizunak egin ezin zirenez, ezin gozatu San Juan gauaz, Aste Nagusiaz, Su Festen Lehiaketaz, Estropadez eta Euskal Jaiez, orain arte ezagutu ditugun bezala. Hala eta guztiz ere, Donostia Festak unitatetik bi helburu bete ziren: sektorean kontratazioa bultzatzea, eta uda giroari eustea

ABUZZUA DONOSTIAN

115 jarduera
14.326 pertsona

Aurten estropada etxetik 36 traineru

nolabait, baikortasunari bultzatzea egiteko osasun egoera hain zaila izanik ere. Horretarako Abuztua Donostian programa sortu zen, formatu txikiko 115 jarduera, zeinetan 14.326 lagunek hartu zuten parte; eta herritarren konplizitatea lortu zuen. *Aurten*, *Kontxa etxetik* goiburupean egin ziren Donostiako Estropadak. 36 traineruk hartu zuten parte emakumeen eta gizonen finaletan, eta Oriok eta Hondarribiak irabazi zituzten, hurrenez hurren.





Jazzaldia, berriz, lehen jaialdia izan zen, Donostiako udako jaialdien artean ez ezik (bidea ireki zien besteei), Espainiako Estatu osoan. Trinitate plaza, leku berezia kulturarako eta herritarrentzat, erabiltzea donostiar guztien aldarrikapen ekintza gisa bizi izan zen. Guztira, 44.000 donostiar izan ziren 40 kontzertutan; gainera, beste 70.000 ikus-entzulek jarraitu zituzten streaming bidez emandako 15 kontzertuak.

Udako antzerkiari dagokionez, helburua profesionalen sektoreari laguntzea zen, betiere, jarduerari eta kontratazioari eutsiz ahal zen heinean. Horretarako 1.400.000€ erabili genituen udako hiru hilabeteetan, jakinik inbertituriko euro bakoitzak 2,5 euro dakarzukiola hiriko ekonomiari. Udako ikuskizunak 20 izan ziren, erabateko

Jazzaldia

40 kontzertu

44.000 herritar

15 kontzertu streaming bidez

70.000 ikusle

lau estreinaldi, eta ikus-entzule gazteenek sekulako erantzuna eman zieten euskarazko antzerkian egin genizkien proposamenei.

San Telmo Museoa erakusketak luzatu egin ziren, interesa zuen jendeari bisitan joateko aukera gehiago emateko. Eta *Postigo, garai baten kronika* inauguratu zen, bisitari asko erakarri zuen erakusketa.

Halaxe iritsi ginen udazkenea.

Orduan hasi zen pandemiaren bigarren olatua. Beldurrezko 31. Astea egin ahal izan genuen, edizio txikiagoa baina oso hunkigarria aretora bildu ziren 3.000 ikus-entzuleentzat eta erakusketetan izan ziren beste 6.000 lagunentzat. Horretarako, programazioa aldatuz joan zen. Eta Nosferatu zikloak, Fassbinderrri eskainitakoak, uda ondoren izan zuen jarraipena. Ez, ordea, Literaktum jaialdiak, bertan behera utzi behar izan baitzen gonbidatutako idazleek etortzerik ez zeukatelako, nahiz eta Donostia Kulturaren apustu argienetako bat izan gerora begira. Musikagela Fest

jaialdia ere bertan behera geratu zen, baita Basoka, Glad is the Day... ere.

Udazkena zen gakoa DK Ikastaroak berriro martxan jartzeko. Horretarako, goitik behera berrantolatu genuen proposamena, hiru hilekotan banatuz (unean uneko osasun egoerari erantzun ahal izateko). Emaitza oso ona izan zen. 170 ikastaro jarri genituen martxan, 2.600 lagunentzat, eta aurrera jarraitzen dute 2021eko hasieran honetan.

Neguko jaiei dagokienez, berriz, egokitu beharra izan genuen hor ere. San Tomaseko lehiaketa bat berreskuratu genuen, Euskal Herriko XXV. Txistorra Lehiaketa, eta hainbat neurri hartu genituen (online mezulari zerbitzua, bideo pertsonalizatuak, ikastetxeetara egindako bisitak, antzerki emanaldiak, buzoi gehiago hirian, eta abar) Olentzerok eta Mari Domingik Donostiako etxeetara iristeko aukera izan zezaten. Zorionez, arazorik gabe iritsi ziren...

Beldurrezko

31. Astea

Aretoa:

3.000 ikusle

Erakusketak:

6.000 ikusle





San Telmo Museoa urtearen azkenera balorazio positiboarekin iritsi zen. Aintzat hartu beharra dago, egoera hain zaila izanik, batetik, sorkuntza garaikidea bultzatu zuela *Museo Bikoitzaren* bigarren aldiaren bidez, oraingoan Erlea Maneros Zabala artistarekin, zeinaren proiektua pandemiak baldintzatu baitzuen ezinbestean. Bestetik, *Al abrigo de Urgull* erakusketarekin lotutako grabatuak sortu zituzten lau artista gaztek: Xare Alvarez, Mikel R. Pejenaute, Ainize Txopitea eta Julen Agirrek. *Artea abian* egitasmoan Nagore Amenabarro izan genuen, Kutxa Fundazioaren babesarekin. Nabarmentzekoa da, halaber, Erlea Maneros, Marta Cárdenas, José Zugasti, Cristina Iglesias, Vitxori Sanz, Pello Irazu, Bonifacio Gómez, Maite Rocandio, Blanca Oráa, Angel Bados, Gustavo Maeztu, Aurelio Arteta, María Cuello, Elena Mendizabal, Barbara Stammel eta Pablo Urangaren artelanak erosi dituela museoak.

Guztira, urtealdiko zenbakiak aurreko urteetakoak baino apalagoak dira, eta aurreko urteekin ezingo ditugu konparatu. Gaur eman dugu pista bat datu nagusienekin.

Aurrera ditzakegu beste batzuk ere: musikaren ikuspegitik, balantzea ona da, 23.500 ikusentzule izan baitziren Victoria Eugenia Antzokian eta Antzoki Zaharrean egindako 60tik gora kontzertuetan.

Antzerkiari eta dantzari dagokienez, berriz, 11.486 lagunek gozatu zuten 69 emanalditan eskainitako 48 ikuskizunez, eta beste 1.641 lagunek hartu zuten parte 89 jardunaldi paralelo, tailer, masterclass, eta abarretan. Jendearen erantzun ona agerian uzten duen datu bat: 26 funtziotan jarri behar izan genuen “sarrerak agortuta” kartela.

90.696 izan ziren saldutako sarrerak, eta 1.168.582 euro ingresatutakoa (2019arekin alderatuta %47,73). Nabarmentzekoa da, baita ere, Donostiako Kulturaren salmenta digitala izugarri igo zela, %63tik %83ra. Gelditzen ez den hazkundea da Donostia Kulturako bazkideena ere: %3 igo zen kopurua, Guztira, 110.066 bazkide ditugu egun.

Online salmenta ↑
%83 %20



Donostia Kultura bazkideak

↑
%3 
110.066 pertsona



Errepikatu nahi dugu 9 hilabete gogor izan direla: emanaldiak bertan behera utzi, atzerapenak... Itxialdian, 30 emanaldi geratu ziren bertan behera; horietatik %25, behin betiko. Ahal zirenak berreskuratzen ahalegindu ginen, eta %50 2020an bertan programatzea lortu genuen, deskonfinamenduaren ondoren, eta beste %25 2021ean zehar egiteko asmoa dugu. DK-k bertan behera utzitako ekitaldiak 24 izan ziren, gehi Jazzaldiko 18.



Laburbilduz:

2020. urtearen memoria osatzen ari gara, informazio guztia eta datuak bilduz, baina, bitartean, eta kontuan izanik iazkoa urte berezia izan zela, hemen aurreratu dizkizuegu ahaztuko ez dugun urte honen zertzelada nagusiak.

DK-k 30 urte bete zituen pandemia urte horretan, eta aurrez pentsatua zuen bezala, ez ospatzea erabaki zuen. Horren ordez, ahalegin guztia egin zuen krisiak gogor jotako sektorearen alde, inguruarekin eta gure sortzaileen eta kultur enpresen egoera ezin latzagoarekin bat eginez eta enpatizatuz.

Kultura birtuala hementxe dugu dagoeneko, baina DKn -hori pixkanaka modurik naturalenean geureganatzeaz gainera-, sendotu egin nahi dugu aurrez aurrekoa ere, hots, zuzeneko arteak, ikus-entzuleen hurbiltasuna eta kulturean ikus-entzule gisa bakarrik ez, eragile aktibo gisa ere parte hartzea (ikastaroetan, festetan eta abarretan).

Azkenik, nabarmentzea merezi du Donostia Kulturaren zehar-arloek egin duten lana, egiturak oso egoera gaiztoetan erreakzionatzeko duen gaitasuna frogatuz:

Ekoizpenaren arloan lortu dugu DK aitzindari izatea bai espazio eszenikoak baita antolakuntzako lan-dinamikak egoera berrira egokitzen ere artisten, teknikarien eta ikus-entzuleen segurtasunaren aldetik, erreferente izanik inguruko beste kulturgune batzuentzat.



Komunikazioan, eta arlo guztietatik (DK, STM, Larrotxene...) egundoko ahalegina egin genuen denborarik laburrenean sortzeko DKetxean, DK ON!, Larrotxene Bideo Twitch-en... Digitaleranzko zibogari ekin genion, eta horrek jarraitu egingo du. Horren erakusle da hazkunde handiena webguneko bisitetan izan genuela: %50 igo ziren, ia 5.000.000 bisita lortuz.

Jaien antolakuntzari dagokionez, zailtasuna are handiagoa izan zen, baldintzak haren izatearen kontrakoak baitziren (jaiak: kolektibitate baten gozamenerako ekitaldiak, edo jaiak: jendea biltzeko abagunea...). Irudimen handiz, sektoreari laguntzea lortu genuen, eta, ahal zen heinean, herritarren aldartea gozatzea.


Bukatzeko, nazioarteari dagokionez, Donostia Kulturak onlineko zenbait topaketatan parte hartu zuen, nazioarteko harremanak sendotzeko ahalegin berrituan. Gainera, gero eta interes handiagoa pizten ari da eredu gisa, nazioarteko kultur agertokian. Izan ere, elkarlanek inoiz baino zentzu gehiago dute orain.

Eta azkenik, kulturaren aldeko konpromisoa erakusten duten pertsoneri eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki garai zail hauetan.

HIGIENE ETA SEGURTASUN NEURRIAK MEDIDAS DE HIGIENE Y SEGURIDAD	
EDUKIERA AFORO	200
MASKARA BEHARREZKOA MASCARILLA OBLIGATORIA	
PERTSONEN ARTEKO DISTANTZIA GORDE MANTEN LA DISTANCIA ENTRE PERSONAS	
KOMUNAK IREKITA WC ABIERTO	
12 URTETIK BEHERAKOAK HELDU BATEKIN MENORES DE 12 AÑOS CON UNA PERSONA ADULTA	



ADMINISTRAZIO KONTSEILUA



ZUZENDARITZA TALDEA

Zuzendari gerentea: Jaime Otamendi
Zuzendariaren teknikari laguntzailea: Imanol Galdos

Administrazioa eta Baliabideak:
Rebeka Gallastegi

Ekonomia eta Finantzak:
David Feijo

Liburutegiak:
Arantza Urkia

Kultur Etxeak:
Jon Aizpurua

Zinema:
Josemi Beltrán

Komunikazioa eta Irudia:
Jaione Askasibar

Festak:
María Jesús Torres

San Telmo Museoa:
Susana Soto

Musika:
Miguel Martín

Ekoizpena:
José Ignacio Abanda

Antzerkia eta Dantza:
Norka Chiapusso

2020KO AURREKONTUA



Gastuak guztira:
30.517.231€



Diru-sarrerak guztira:
5.995.785€



Udalaren diru-ekarpena:
24.521.446€



DONOSTIA KULTURAREN ZEHAR-PLANAK

Euskara Erabiltzeko Plana:

2020an, Euskaraldia izan zen nabarmentzekoa. Donostia Kulturak ere jarri zuen beretik jarduera horretan, guztira 70 gune sortu ziren, eta 200 bat lagunek hartu zuten parte.

Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasun Plana:

2020an Udalaren Berdintasun Plana onartu zen, eta horren arabera Donostia Kulturaren II. Berdintasun Plana lantzen ari gara.

2020: NAZIOARTEKO HARREMANAK BIZITU EGIN ZIREN KONFINAMENDUAN ETA MUGAK IXTEKO GARAIAN

Nazioarteko ikuspegitik, 2020. urtea paradoxikotzat jo behar litzateke. Urte horretan, mugak itxi eta konfinamenduan bizi izan ginen, eta hala ere Donostia Kulturaren nazioarteko agenda bete egin zen nabarmen: emendatu egin ziren hiri, erregio eta kultur erakunde zein erakunde akademikoen lankidetzak edo aholkularitza- eskari eta proposamenak, batez ere Europa aldetik, baina aipatzekoak dira beste kontinente batzuetakoak ere.

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da Europako zenbat hirik eskatu zuten Donostia Kulturaren **aholkularitza**, denak ere Europako Kultur Hiriburu izateko hautagaiak edo hala izendatuak. Donostiaren

esperientzia partekatu dugu bi hiri alemanetako topaketa, mintegi edota kongresuetan (Hildesheim eta Chemnitz), biak ere 2026an Europako Kultur Hiriburu izateko lehian. Elkarlan estuan jardun genuen Chemnitz-ekin, eta huraxe aukeratu zuten azkenean.

Testuinguru horretan, ukondo ukondo lan egin genuen hainbat herrialdetako hiriekin, zerrenda amaiezina da: Portugal (Faro), Finlandia (Tempere eta Oulu), Serbia (Novi Sad), Lituania (Kaunas), Estonia (Turtu), Eslovakia (Hlohovec), Eslovenia (Piran-Pirano), Luxenburgo (Esch) eta beste hainbat, eta denei eskaini genien gure esperientzia eta ezagutza. Europatik kanpo, Japonia, Kolonia edo Abu Dabitik proposamenak iritsi zitzaizkigun kultur politiken inguruko gogoeta- eta aholkularitza-guneetan parte hartzeko.

Arlo akademikoan, eskari asko jasotzen ditugu **ikasleen, ikertzaileen, irakasleen aldetik, politika publikoen arloan**, eta bereziki **kultur politikan**, era askotako proiektu akademikoetan lan egiten dutenak denak ere, Donostia Kulturaren ereduaren erreferentzia interesgarria ikusten baitute. Herbehereetako Utrechteko Unibertsitate entzutetsuak eta Donostia Kulturak lankidetzak akordioa sinatu zuten. Unibertsitate horretako bi ikasle taldek ikerketa bana egin zuten Donostia Kulturak egiten duen politikaz. Testuinguru horretan, gainera, Donostia Kulturak topagune akademiko askotan hartu zuen parte kultur politikaren ereduaz azaltzeko, baita pandemian emandako erantzuna ere.

NAZIOARTEKO IKUSPEGITIK JASOTAKO PROPOSAMENEN ETA EGINDAKO EKINTZEN LABURPENA (2020KO MARTXOA-EKAINA)

Laburpen hau konfinamendu aldiari dagokio. Gehienak Europako hirietatik jaso eta erantzundako proposamenak eta eskariak dira, askotarikoak. Batzuk martxan jarri ziren, eta nolahi ere, jasotako eskari guzti-guztietan erantzun zitzaizen. Bestalde, konfinamenduan gure hautagaitza aurkeztu genuen Mexikoko Udalak bi urtez behin antolatzen duen kultur politiken arloko sarirako (laugarren edizioa, CGLU - Mexiko Hiria - Kultura 21).

ERANTZUNDAKO PROPOSAMENEN ZERRENDA

a) **Hildesheim** (2025ean Europako Kultur Hiriburu izateko asmatan den hiri **alemana**). Covid-19ak galarazi egin zigun ponente gisa parte hartzea, martxoaren 10etik 15era bitarte, kulturak erakargarri gisa zona ez-urbanoetan duen egitekoa aztertzeko laborategian (erakargarri ekonomikoa eta bitala, geroari begira).

b) **Faro (Portugal)**. 2027an Europako Hiriburu izateko hiri hautagaia. **Europe at Home**. Hamalau hiri hasieran, hoguei gaur egun: webgune baten bidez agertzen den proiektu batean hartzen dute parte. 2020ko apirilean jarri zen martxan, eta oihartzun informatibo egokia izan zuen. Erreportajea **Noticias de Gipuzkoan**, eta elkarrizketa Euskadi Irratian eta Radio Euskadin. Proiektu hau apal sortu zen, eta haziz doa pixkanaka.



c) **Chemnitz (Alemania, 2025)**. Hiri honek ere Kultur Hiriburua izan nahi du. Hildesheim eta Magdeburg-ek bezala, lehen kanporaketa gainditu zuen. Hiru eskari izan dira gure artean. 2016ko hiriburutzari buruzko ikus-entzunezko materiala bidali zen hirian egingo diren udako jardueren artean proiektatzeko (**Drive in cinema**). Bigarrenik, eskaera bat egin zen Donostiako kultur eragile edo erakundeek bazkide gisa parte har zezaten udazkenean Europako Batzordean aurkeztu behar duten proposamen/eskaintza berrian. Esan zitzairen laguntzeko asmotan ginela, baina oraindik ez da zehaztu proposamena. Hirugarrenik, gonbita egin zitzairen 2020ko urrian *workshop* batean parte hartzeko, baina, mugikortasun zailtasunak zirela medio, ezin izan zen egin.

d) **Magdeburg (Alemania, 2025)**. 2025. urtean da Europako Kultur Hiriburutzaren ideia sortu zeneko **40. urteurrena**. Aurkeztekoa duten proposamenaren barruan, nabarmentzekoa da lau asteburutan aurreko kultur hiriburuen adierazle liratekeen arte-jarduerak egiteko ekimena. Proiektuan kide izan daitezkeen jaialdi/kultur etxe/ artista/eragileen proposamenak bidaltzeko eskatzen dute.

e) **Matera (Italia, 2019)**. Hiriburua izan zen 2019an, eta **Matera-Basilicata 2019 Fundazioa** daukate ondarea kudeatzeaz arduratzeko egitura gisa. **Open Design School** izan zen haien proposamen handietako bat. Proiektuak, diziplinarteko ikuspegiarekin, kultur eremuan alderdi sortzaile eta industrialak indartu eta bultzatu nahi duten sektoreak eta eragileak bildu nahi ditu. Lau ikerketa egin dituzte, eta beste hiriburuen konplizitatea lortu nahi dute gakotzat duten sektore batean aurrera egiteko.

f) **Piran-Pirano (Eslovenia, 2025)**. Esloveniako hiri hautagaia. Proiektua 2020ko irailean aurkeztu zen. Hiriburutzaren proiektuak klima aldaketa du erdigune, tokiko ikuspegitik. Uste dute gai nagusi horrek (klima aldaketak) alde guztietatik eragingo diola gure etorkizunari. Hori da larrialdi nagusia, eta beste guztia horren menpe dago. Webgune bat atera zuten (2020ko irailean), nazioarteko konferentzia baten bitartez. Horretarako (Farok 2020an izan zuen formatuaren oso antzekoa), eskatzen digute artista baten edo sorkuntza-talde baten (**creative team**) izena emateko, lan bat aurkez dezaten edozein arlotan (bideoa, argazkia, literatura, collageak).

g) **Vezprembalaton (Hungaria, 2023)**. **Europako Kultur Hiriburua** Hungariari dagokion txandan. Informazio asko eskatu zuten (dena bidali zitzairen) **merchandising strategy**ari buruz.

h) **Kaunas (Lituania, 2022)**. Hiriak eta herrialdeak antz handiak dituzte gure errealtatearekin. Oso irekita daude lankidetzaren proiektuetara. Lituaniak zenbait jazzaldi ditu, eta arlo horretan izan litekeen lankidetzaren aipatu ziguten. Orobat, zenbait arlotako arte-egonaldiak egiteko aukera aipatu zuten.

i) **ALDA (The European Association for Local Democracy)**. Erakunde hau Europako hiriburuen ondarea aztertzen duen kontsorzioaren parte da, eta 2016ko gure esperientzia azaldu genuen bertan. **BRIGHT** proiektua jarri dute martxan. Proiektu horrek European barrena emigratzen duten emakumeen babes faltaren (kalteberatasun handiaren) problematika aztertzen du.

j) **Novi Sad (Serbia, hiri gonbidatua, 2021eko hiriburua da)**. Hizkuntza

gutxituen testuinguruan diharduten komunikabideen ikuspegian oinarritutako proiektua.

k) **ECHOES (European Colonial Heritage Modalities in Entangled Cities)**. **Horizon 2020**ren markoan kokaturiko ikerketa proiektua. Ekainaren 22an elkarrizketa bat izan genuen Hull-eko Unibertsitateko (UK) ikertzaile batekin, zeina proiektuaren buruetako bat baita.

i) **HKU (University of Utrecht, 2020)**. Hiru hilabetez ikerketa egindako ikasle taldeak bere lanaren defentsa egin zuten. **Artea eta Ekonomia** graduak arduradunek eta **Minor International Arts and Cultural Management**ekoek interesa erakutsi zuten DKren eta Utrecht-eko Unibertsitatearen (Herbehereak) artean irekitako lankidetzaren ildoari segida emateko.

l) **Tempere (Finlandia, 2026)**. Basque Culinary Center-ekin bitartekaritza lana egin genezan eskatu ziguten (gastronomian oinarrituriko proiektu berritzailea da), bazkide izan zedin aurki Bruselan defendatu behar duten proiektu batean.

NAZIOARTEKO 4. SARIRA AURKEZTUTAKO HAUTAGAITZA (CGLU – MEXIKO HIRIA – CULTURA 21)

2020ko martxoan, konfinamenduaren hasieran, hautagaitza aurkeztu genuen, orain bi urte bezala. Proposamenaren oinarria: DKren 30 urteak kontatzea (hogeita hamar urte eraikitzen eta eraldatzen). Edizio honetan, 81 hirik hartu zuten parte; Medellín (Kolonbia) eta Sékou (Mali) izan ziren sariaren irabazleak.



Donostia Kultura sortu zela 30 urte betetzen ziren 2020an, 1990ean sortu baitzen. Erakunde autonomoa da, sorreratik udal barrutiko kultur eragileen artean estrategiak eta sinergiak batzeko formula gisa garatua. Irudi jakin bat sortu genuen, ospakizun horretako ekitaldietan erabiltzekoa, baina ekitaldiok bertan behera geratu ziren Covid-19a hedatu ahala.

Adibide bat besterik ez da hori, ulertzeko zeinen zaila izan zen informazioa kudeatzea ere, ustekabez eta ziurgabetasunez beteriko urte horretan. Izan ere, komunikazio estrategia oro geratu zen lekuz kanpo, martxoaren 14an Donostia Kulturaren 15 kulturguneei ateak itxi zituztenean.

Bi egunetara, 16an, astelehenarekin, Donostia Kulturako Komunikazio eta Marketing taldeak bere gain hartu zuen digitalerantz ziaboga azkarra egiteko eginkizuna, programazioa online bideratzeko. Hori dela eta, inguruari kultur

edukiak eskaintzen jarraitzea erabaki zen, baita artista eta sortzaileei ahotsa ematea ere, bat-batean isilduta geratu baitziren. Eta handik 15 egunera, marka berri bat aurkeztu genuen, **DKetxean**, eduki birtualekin.

Aste haietan, prentsa ohar eta elkarrizketa ugari eman genituen gure erakundearen lan ildo digital berriak jakinarazteko; baita programazioan gertaturiko deusezte, atzeratze eta berrikuntzen berri emateko ere. Aldi gogor hartan sortu zen, halaber, **Ispilu Beltza** irrati magazina, eta harrezkero atergabe jardun du gure hiriko eragileei eta kultur erakundeei ahotsa ematen Donostia Kultura Irratitik.

“Normaltasun berrian” geunden maiatzaz geroztik, eta presioa ez zen gutxitu gure ikus-entzuleekin komunikazio eta harreman bide berriak sortzeko. Horretarako, **DK ON!** sortu genuen lehen unetik, Donostia Kulturak online



edukientzat sortutako eduki digitalen plataforma. Gainera, ekitaldi batzuk, jendetsuenak eta jai-girokoenak, bertan behera geratu ziren, noiz arte jakin gabe, eta webgunea eta sare sozialak bihurtu ziren haiek ospatzeko modu bakarra. Halaxe gertatu zen hondartzan izan ziren Jazzaldiko kontzertuekin, Glad is the Day-koekin... baina baita Aste Nagusiko edo neguko jaiekin ere (Santo Tomas eta Olentzero eta Mari Domingi). **Abuztua Donostian** programa sortu behar izan genuen, zenbait streaming kanal, solasaldi birtualak, eta abar.





Deskonfinamenduak eta “normaltasun berria” ezartzeak, azkenik, protokolo jakin batzuk sortzea ekarri zuten baita prentsaurrekoetarako ere; ez zen liburuxkarik banatu, artisten promozioa bideo bidez egin zen... Aipatzekoa da DK guneak berriro irekitzeko eta modu seguruan martxan jartzeko sortutako seinaletika berezia, baita online presentzia handia ere (streaming bidezko emanaldiak hirukoiztu egin ziren), zeinak segida izango duen hein handi batean.



DONOSTIA KULTURA IRRATIA, 24 ORDUZ 107.4 FM-EN

IRRATIA, CASARESKO IZARRA

Donostia Kultura Irratiak bere izaerari eusten dio, kultur eduki handia izanez eta audio euskarrien inguruko prestakuntzaren aldeko apustua eginez. 2020an, gainera, indartu egin zuen hori, *Ispilu Beltza* programa bultzatuz, Donostiako kultur bizitzaren ispilu fidela dena.

Oier Aranzabalek zuzentzen du, gero eta lankide gehiago ditu, eta hilabete gutxi batzuetan inguruko giroa, eragileak eta kultur gertaerak islatzea lortu du, eta harrera ona izan du sektorearen eta entzuleen aldetik.

Hamaika Entzuteko! Irrati Piezen VI. Lehiaketaren sari banaketan, saritutako lanak jakinarazteaz gain, zuzenean gozatu ahal izan gunden irrati-antzerkiak.

Donostia Kultura Irratiak Casares-Tomasene Kultur Etxetik emititzen du, FM 107.4 sintonian, eta Internet bidez ere bai irratia.donostiakultura.eus helbidean. Webguneak grabaturiko programa guztiak eta DKren podcast ugari eskaintzen ditu.

LARROTXENE BIDEO

2020an, **Oihua!** sorkuntzarako ekinbidea jarri gunden martxan, SS Film Commission-ekin eta Gaztearekin batera, euskaraz errodutzen den fantasiatzko generoa bultzatzeko helburuz. Maria Fontánek irabazi zuen lehen edizioa, 42 autore gazteren artean.

Gainera, **Medialab** programa sortu berriari (*Hijopotismoa* eta *Antenas* edukiekin, besteak beste) DKetxean-erako sortutako programazioa gehitu zitzaion konfinamenduan: Adobe After Effects-eko **tutorialak**, **Transmediazine** eta **Larroetxean zuzenekoak**. Komunikazio kanal berri batean ere estreinatu gunden: **Twitch**.





DK TXARTELA

Lehen mailako komunikazio aktiboa da txartel hau, eta Donostia Kultura bazkideen kluba **110.066 kide izatera iritsi zen**. Komunikazioa eta Irudia ataletik kudeatzen da, eta kideen kolektibo horren atsegina eta fidelizazioa ezinbestekoak dira erakundearentzat.

Alde horretatik, 2020an areagotu egin ziren txartelaren abantailak, deskontu gehiago erantsi baitzitzaizkion BCC Basque Culinary Center-ekin sinatutako hitzarmen bati esker. Hartara, DK txartela duen orok deskontu ugari ditu BCCren ikastaroetan nola jatetxeetan.

DK ONLINE

Kulturaren zein jaien arloan eskainitako eskaintza digital zabalaren ondorioz, **Donostia Kulturaren webgunera egindako bisitak bikoiztu egin ziren 2020an: 4.915.191 bisita** izan ziren, 2019an 2.523.887 izan ondoren.

Gainera, **27.552** izatera iritsi dira informazio pertsonalizatua jasotzeko **webgunean izena emandako bazkideak**.

Bestalde, Donostia Kulturak **159.984 jarraitzaile** izan zituen guztira **sare sozial nagusietan**: 76.327 (+%3,2) Twitter-eko kontuetan, eta 56.015 (+%6,9) Facebook-ekoetan; gainera, 25.626 (+%27,7) jarraitzaile Instagram-en, eta 2.016 (+%14,4) LinkedIn-en. YouTuben, berriz, Donostia Kulturak 1.618 jarraitzaile ditu, eta 160.664 ikustaldi izan zituen; nabarmentzekoa, **Goizaren Liburu Challenge** delakoa (34.264), eta **Izarok** eskainitako kontzertua, konfinamendua amaitu izana ospatzeko, Victoria Eugenia Antzokiko teilatutik (24.077).

Jarraipen berezia izan zuten, halaber, marko birtualera eraman behar izan ziren jai-jarduerek: San Juan Gaua, Abuztua Donostian abuztuaren 8tik 31ra, Kontxako Bandera (Donostiako badian egin zen, noski baina kanal digitaletatik jarraitu behar izan zen, *Aurten, estropadak etxetik* lelopean), eta Olentzero eta Mari Domingiren etorrera bera.

ESTRATEGIA

Donostia Kulturako Komunikazioa eta Irudia

atalak halaxe kudeatu zuen erakundearen irudia 2020an, Donostiako Udalaren markarekin bat eginik, eta beste **16 kultur atal** bilduz bere aterkipean: Victoria Eugenia Antzokia, San Telmo Museoa, Donostia Kultura Festak, Jazzaldia, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, DKluba, Literaktum, dFERIA, Giza Eskubideen Zinemaldia, Musikagela, DK Irratia, Ispilu Beltza, Txikijazz, Larrotxene Bideo, Eguzkiteka... Baita beste hainbat programaren markak ere. Baina, hori bai, alde batera utzi behar izan zen **DK 30 urte!**ren irudiaren garapena.





Donostia Kulturako bazkideak dira erakunde honen altxor handiena: jarraitzaile leialenak, ikus-entzule, kontsumitzaile, ikastaro-egile, irakurle eta parte-hartzaile dira. Eta harreman hori ez zen zipitzik ere ahuldu 2020. urte zail horretan. Aitzitik, kolektibo horrek eutsi zien Donostia Kulturaren programazioari eta zerbitzuei, maila benetan onean eutsi ere, aktiboki erantzunez kultur eskaintzari kultur etxeak berriro ireki eta gero, eta lehen-lehen unetik fidatuz hartu ziren osasun neurriez. Esker onez jarraitzen dugu lanean, arlo bakoitzean zerbitzu hobea eta abantaila handiagoak eskaintzeko ahaleginean, egunez egun.



DK TXARTELA, ZENBAKI ESANGURATSUAK

Urte amaieran, **110.066 bazkide zituen Donostia Kulturak** (2019an baino 3.048 gehiago), hots, DK Txartelaren jabe zirenak. Horietatik, %77 donostiarrak dira, ia %60 emakumeak, eta Amara da bazkide gehien dituen auzoa, %19. Ondoren datoz Gros (%13), Antigua-Ibaeta (%11) eta Intxaurren (%11).

Txartel horren bidez, helburu unibertsal bat bete nahi da: herritar guztiei kulturara hurbiltzeko bidea erraztea. Horren adibiderik onena udal liburutegiak dira (oso erabilera handia du txartelak liburu mailegutarako identifikatzean). Horrez gain, publiko jakin batzuk fidelizatu nahi dira arte programari dagokionez. Beste horrenbeste esan daiteke San Telmo Museoaz eta Victoria Eugenia Antzokiaz,

BULETINAK	IZENA emandakoak
Agenda	34.410
Webgunean erregistratuak	27.234
Zinema	13.604
Antzerkia	12.748
Dantza	6.974
Musika	13.796
Artea	7.571
Literatura	7.623
Festak	7.090
Haurrak	3.889

DK bazkideak 110.066

Antzoki Zaharraz, Imanol Larzabal aretoaz, Intxaurren, Larratxoz eta Gazteszenaz: DK Txartela tresnarik onena da txarteldunei informazio hautatua, deskontuak eta zozketak eskaintzeko.

Abantaila guztiak ikusgai daude bazkideen online atalean, non **27.234 lagun dauden erregistratuta.**



Hala, 2020an emendatu egin genuen abantailen eskaintza, akordioa sinatu bainuen Basque Culinary

Center-ekin, halako moldez non DK-ko bazkideek %10eko deskontua duten klubaren zaleentzako ikastaroetan eta Tabakalerako LABe jatetxean. Deskontu hori beste erakunde eta kultur programa batzuetan dutenari gehitu behar zaio; esate baterako, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian, Musika Hamabostaldian, Chillida Lekun, Jazzaldian, Aquariumean, San Telmo Museoan, Dock of the Bay jaialdian, Uda Ikastaroetan, eta abar.


Horrez gain, San Telmo Museoak ere hobetu egin zituen museo bazkideen txartelaren abantailak. Gogora dezagun txartel horrek DK bazkidearen abantaila guztiak hartzen dituela: sarrera doan egunero, inaugurazioetarako gonbitak, zozketak eta deskontuak, horra arrazoi batzuk Donostiako museo hori "babesteko", orain inoiz baino gehiago.






Hona hemen Donostia Kulturako bazkideen mapa, gaur egun:

- Bazkideak guztira: **110.066**
- Bazkideak udalerrriaren arabera:




- Bazkide donostiarrok auzoka: GUZTIRA **85.341**






• Bazkideak adin-tarteen arabera:




• Bazkideak sexuaren arabera:






• **Bazkideen garapena 2011-2020:**

Urtero izena emandako bazkide berriak:



Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan:





© Oskar Moreno

Antton Elizegiren argazki erakusketa.

2020. urtea oso urte zaila izan zen San Telmo Museoarentzat. Martxoan, koronabirusa hedatzeak goitik behera aldatu zituen programazio eta funtzionamendu aurreikuspenak, eta ziurgabetasun eta guzti aurrera egiten ikasi behar izan genuen.

Martxotik ekainera bitarte, aurrez aurreko jarduerarik egin ezin izan zenez, museoak alderdi digitalari heldu zion, eta hala jarduerekin nola ondarearekin eta bildumekin zerikusia zuten jarduerekin lotutako edukiak eraman zituen plano horretara; besteak beste, **#STMLoMÁS** ekinbidea.

Berriro ireki zenean, ekainaren 2an, museoa leku seguru bihurtu zen kulturaz gozatu ahal izateko. Aurreikusita zeuden erakusketa batzuk 2021. urtera atzeratu ziren, eta, oro har, eskaintza berrantolatatu egin zen. Jarduerak,

berri, egoerara egokitu behar izan ziren, eta aurrez aurrekoa eta digitala parekatu genituen, baita emaitza onak jaso ere.

2021. urterako geratu ziren, besteak beste, **Elkanoren** erakusketa edo **artista emakumeek** bildumetan duten presentziari buruzkoa.

Bizi izandako egoera halakoa izan arren, balantzean irakurketa positiboa egin dezakegu burututako proposamenen kalitateari eta geure funts eta proiektuek izandako garrantziari eta presentziari dagokienez. **Antton Elizegiren** argazkien erakusketa eta **Deabrua ote** izenekoak, martxoan itxialdia hastean martxan zeuden, eta luzatu egin ziren bisitari gehiagori ikusteko aukera emateko.

Uztailaren hondarrean, urteko bitxietako bat inauguratu zen, **Postigo. Crónica de una época**, eta milaka lagunek aukera izan

zuten atzera begira jartzeko, **Fernando Postigo** argazkilariak lanean jardundako hamarkadetan hartutako irudiei esker.

SOS Arrazakeriarekin elkarlanean, **Mila eskuren isilpeko lana** erakusketak beren arreta eskaintzen diguten hainbat pertsonaren aldarrikapenak jarri zituen ikusgai. Horietako askok oso baldintza eskasetan jardun behar izaten dute maiz.

Geure funtsak, bai museoarenak eta bai Gipuzkoako Aldundiarenak, protagonista izan ziren **Urgullen magalean** erakusketan, zeinarekin 2021. urtean sartu garen.

Ezin aipatu gabe utzi 2020an ere **sorkuntza garaikideak** izan duen garrantzia. **Urgullen magalean** erakusketak berak bazuen egungo sorkuntzaren atal bat, lau artista gazteren grabatuak biltzen zituena: **Xare Álvarez, Mikel R. Pejenaute,**



Ainize Txopitea eta **Julen Agirre**.
Eta **Museo Bikoitzaren** bigarren edizioan, berriz, **Erlea Maneros Zabala** izan genuen, zeinaren proiektuak pandemiaren eragina nozitu zuen ezinbestean.

Bestetik, 2020an **Artea abian** proiektua jarri zen martxan, **Nagore Amenabarro**ekin, Kutxa Fundazioa lankide genuela. Proiektu honek aukera ematen die ibilbidearen hasieran diren artistei ingurune profesionalean erakusketa egiteko.

Guztira, **zazpi erakusketa** izan ziren, baina, zoritxarrez, ez zuten izan aurreko urteetako bisitari kopurua.

Hain zuzen ere, pandemiaren eragina biltzea, eta bereziki **konfinamenduak** gure bizitzetan izan zuena, izan zen aldi horretan martxan jarritako ekinbide baten helburua. **Pandemiaren lekukotzak** izenburupean, museoak argazkiak, bideoak, marrazkiak, idatziak eta abar bildu zituen, ehundik gora lagunek igorritakoak. Material horrek, hemendik denboraldi batera, bizi izandakoa gogoratzen lagunduko digu, eta aldi horren lekukotza emango du.

Urgull aplikazioaren aurkezpena.



Museoaren barne-lanak, bestalde, aurrera jarraitu zuen bizitasun handiz, eta bildumetako objektu asko zaharberritu, inbentarioan jaso, berrikusi eta ikertu ziren: metala, papera, zura eta pintura, eta arreta berezia eskaini zitzaizen argazki-funtsei. Kontsulta kopurua ere aurreko urtekoen parekoa izan zen, bai barne baita kanpo kontsultena ere. Era berean, zenbait interbentzio egin ziren erakusketa iraunkorrean: museografia berriak zenbait arlotan, egokitzapenak, seinaletika hobetzea, eta abar.

Nabarmentzekoa da, halaber, bildumei buruzko informazioa partekatzeko helburuz egindako lana, Eusko Jaurlaritzaren **EMSIME** datu base partekatua programan.

2020an jarri zen martxan **Urgull app-a** ere: ibilbide bat mendian zehar, ondarearen eta naturaren aldetik ikusteko dituenak erakusteko. Eta **museoko denda** ere martxan jarri zen, bildumekin eta erakusketa iraunkorrekerekin zerikusia duten zenbait produktu salgai ipinita.

Urtearen amaierarako, **online leihatila** bat jarri genuen martxan museorako sarrerak erosteko eta doako jardueretarako lekua erreserbatzeko.

ONDAREA: BILDUMAK ETA DOKUMENTAZIOA

2020. urtean, 58 objektu eta artelan eskuratu genituen erosketa edo dohaintza bidez, denak ere kulturarekin eta euskal gizartearekin zerikusia zutenak.



Museoak argazkiak, bideoak, marrazkiak, idatziak... jaso zituen

Tartean, **Joaquín Labayen** arkitekto arrazionalistak diseinaturiko altzariak, Donostiako kasino zaharraren argazki-negatiboak eta zenbait gauza bitxi, hala nola Donostiako bizikletak konpontzeko tailer zahar batean erabiltzen zen astoa.

Baina 2020an museoan ezer nabarmentzekotan, erositako artelanak nabarmendu behar. Honako egile hauen lanak erosi ziren: **Erlea Maneros, Marta Cárdenas, José Zugasti, Cristina Iglesias, Vitxori Sanz, Pello Irazu, Bonifacio Gómez, Maite Rocandio, Blanca Oráa, Angel Bados, Gustavo Maeztu, Aurelio Arteta, María Cueto, Elena Mendizabal, Barbara Stammel** eta **Pablo Uranga**.

Urtean zehar, bildumako **39** pieza atera ziren mailegutan beste erakunde batzuek antolatutako aldikako 12 erakusketataratara. Horiei gehitu behar zaizkie San Telmo Museoak berak ekoiztutako aldikako erakusketetan jarri ziren piezak. Museoaren bildumako **78** pieza jarri ziren **Urgullen magalean** erakusketan, **Antton Elizegiren**



Fernando Postigo, *Postigo. Crónica de una época.*

ehun argazkitik gora, berriz, **Atzera Begirako Poetika** izenekoan, eta **Fernando Postigo**ren ehun argazki baino gehiago, halaber, **Postigo. Crónica de una época** erakusketan.

Gordailuan, ohiko erregistro zeregin ez gain, markodun objektuak biltegitatzeko orraziak konpaktatzeko lanak egin ziren, tiraderetan gordetako bildumak berrikusteko eta berregokitzeko lanak, eta zenbait udal biltegitatik ekarritako eta inbentariatu gabeko piezak berrikusteko eta erregistratzeko lanak.

Bildumen erregistroari eta dokumentazioari dagokienez, prozesua normaltzen jarraitu genuen, zeregin bereziki zaila, lana dokumentazio sistema desberdinetan koordinatu beharra baitzegoen (**Gordailua, EMSIME**), eta azken urteotan museoaren bilduman sartutako erregistro kopurua handia izan baita.

Eta kanpo kontsulten zerbitzuari dagokienez, kontsulta eta erreproduzitzeko edo argitaratzeko irudi eskaera askori erantzun

zitzaien, aurreko urteetan bezainbati. Barneko kontsultek eta dokumentazio zerbitzuak ardura handia zuten, batez ere geuk ekoiztako erakusketen antolakuntzari erantzun beharragatik, hala nola **Atzera Begirako Poetika, Urgullen magalean, Postigo. Crónica de una época** eta **Kearen eta lanbroaren artean: Sigfrido Koch Bengoechea**, zeina 2021an inauguratu baita.

KONTSERBAZIOA ETA ZAHARBERRITZEA

Aldi baterako erakusketak

Departamendu honen ardura izan ziren urtean zehar museoan egindako erakusketen kontserbazio eta zaharberritze lanak. Erakusketa horietan, ikuskatu eta kontrolatu egin ziren bilgarria ipintzeko eta kentzeko lanak, obrak muntatzeko eta desmuntatzekoak, elementu museografikoak, klima baldintzei eta baldintza grafikoei buruzko datuak jartzea, eta kontserbazio eta kalteen txostenak egin ziren. Era berean,

larrialdi planak ere prestatu ziren erakusketa batzuetarako.

Urgullen magalean erakusketak eskatu zigun arreta handiena; izan ere, urtearen hasieran jarri zen martxan Urgulleko grabatuak kontserbatzeko eta zaharberritzeko proiektua, goitik beherako ikuskapena egin ondoren. Liburutegiko ale historiko batzuk ere zaharberritu ziren. Guztira, **44** grabatu eta **4** liburu zaharberritu eta berregokitu ziren.

Bestalde, museotik kanpora joan ziren piezak mailegatzeko baldintzak zehaztu eta idatziz jarri ziren, baita formulario berriak diseinatu ere, horretarako pentsatuak, arreta berezia eskainiz kontserbazio prebentiboari.

Erakusketa iraunkorra eta Gordailua

2020an zaharberritutako lanen artean, honako hauek nabarmen daitezke: **La toilette de Diana** eta beste margolan batzuk, aldikako erakusketetarako utziak -**Goenaga, Mari Paz Jiménez, Ortiz Echagüe**-,



Urgullen magalean erakusketa.



Serten *Altar de la Raza*, Txomin

Badiolaren eskultura, Aieteko Jauregiko lisaketa mahaia, eta bizikletentzako astoa.

Erakusketa iraunkorrean, pieza zaharberriak erakusleihenetan birkokatze euskarriak diseinatu eta egin ziren: hiru txapel karlista, Voluntarios de la Libertad miliziaren bandera eta Errepublikaren bandera.

Kaxak berrerabiltzeko proiektu bat jarri zen martxan, Museoan eta **Gordailuan** egiten den artelanen garraioa modu jasangarriagoan egiteko asmoz.

Gainera, berriki sartu diren argazki bildumen kontserbazioan eta egokitzean lan egin zen, oso material ugaria da, eta **formulario digitala diseinatu zen**, museoko datu baseari lotua, kudeaketa eta artxibatze eraginkorrek erraztuko dituzten txostenak egiteko. **Gordailuak** espazio itxi bat prestatzen jardun zuen, halako bildumekin aritzeko egokia, giro aseptikoa eta ingurugiro aldetik oso zehatza behar izaten baitute.

Deabrua ote erakusketa.



Urgull eta Aquariuma

Urgulleko kanoietan ere zenbait lan egin ziren: zaharberritzeak eta mantenimendu lanak, **Damen Bateria**n ekintza bandalikoak izan ondoren; Aquariumaren kanpoaldeko kanoiak gurdi berrietan ipini ziren; eta, azkenik, **Gordailutik** museoko klaustrora eraman ziren Napoleonen Bolborategiko hamar kanoi zaharberrituak, aldi batez ikusgai egon daitezzen.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

Aldi baterako erakusketen programari ere eragin zion osasun larrialdi egoerak. Ondorio nagusia **Bidairik luzeena** izenekoa, berez udako erakusketarik handiena izango zena, 2021. urtera atzeratzea izan zen; **Ikusgarritasunaren logikak** ere atzeratu zen, emakume artistek San Telmo Museoan eta Gordailuan duten presentzia aztertzen duen erakusketa.

Azkenean gauzatu zen erakusketa programan, nabarmentzekoa da museoaren beraren funtsen garrantzia, azken urteotan egin diren dohaintza akordioen emaitza, baita gure inguruko artista garaikide batzuen proposamenak ere.

Lehenik, **Atzera Begirako Poetika** nabarmendu behar dugu, **Antton Elizegiren** argazki funtsa, museoari berriki dohaintzan emandakoan oinarritua, zeina **10.818 lagunek** bisitatu baitzuten. Erakusketak Elizegik azken mende erdian egindako argazki ibilbideari jarraitzen dio. Irudiek gure landa eta hiri ingurunean gertatu den



Argazkilaritza tailerra.

eraldaketa handia islatzen dute, eta nabarmen gelditzen dira naturaren presentzia eta zuri-beltzen arteko kontrastean oinarrituriko estiloa.

Beste erakusketa bat berriki dohaintzan emana **Postigo. Crónica de una época** izan zen, kasu honetan Fernando Postigo kazetari grafiko donostiarraren funtsean oinarritua. Erakusketak argazkilaritza horrek 1977 eta 2001 urteen artean *La Voz de España* eta *El Diario Vasco* egunkarientzat egindako lanaren ale hautatu batzuk biltzen ditu. Irudietan, balio dokumentala gailentzen da, gure herriak urte horietan bizi izandako asaldura sozial eta politiko handia islatzen baitute. Erakusketak arrakasta handia izan zuen ikusleen aldetik, eta nahiz eta **edukiera murrizketak** izan, **9.051 lagunek** bisitatu zuten.

Gure funtsekin egindako erakusketei dagokionez, aipatzekoa da **Urgullen magalean** izenekoa ere, zeinak Donostia gai nagusi duten estanpak biltzen baititu, eta erakusten duen nolako bilakaera izan zuen



© Oskar Moreno

Museo Bikoitza programan parte hartu zuen Erlea Maneros Zabala artistak.

grabatuaren teknikak XVI. eta XIX. mendeen artean. Erakusketa San Telmoko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtsekin egin zen, eta, horri esker, sakondu egin da bi erakundeon arteko lankidetzak, eta, aldi berean, tarte bat eskaini zitzaion sorkuntza garaikideari, nola eta lau artista gipuzkoar gaztek parte hartzearen bidez.

Nabarmendu ditzagun, halaber, **erakusketetara egindako bisita birtualak**, dela elkarriketen bideoen bidez, dela tour bat eginez, kasu honetan **Second Canvas app-a** medio.



Nabarmenezko, era berean, klasikoaren eta garaikidearen arteko loturagatik eta erakundeen lankidetzagatik, **Deabrua ote** erakusketa ibiltaria, zeinak deabruaren gaian eta Bruegheldarren unibertso plastikoan sakontzen baitu, Antoine Rogers artista belgikarrak egindako berrirakurketa garaikidearekin batera. Valladolideko Museo Nacional de Escultura-rekin eta Asturiasko Museo de Bellas Artes-ekin batera egin zen, eta **10.093 lagunek** bisitatu zuten.

Sorkuntza garaikideari dagokionez, azpimarratzekoa **Erlea Maneros Zabalak Museo Bikoitza** programan parte hartu izana. **Maneros Zabalak** Ibon Aranberriri hartu zion txanda programa honetan, eta lanaren emaitza, pandemiaren eraginpean hau ere, **Norusta** erakusketan gauzatu zen. **Jose Mari Zabala** da **Museo Bikoitzan** parte hartuko duen **hurrengo artista**.

Amaitzeko, azpimarratu beharra dago 2020an **Artea Abian** programa jarri zela martxan, oraingoz ibilbide

profesionalaren hasieran dauden artistak bultzatzeko pentsatua. Proiektua Kutxa Fundazioarekin lankidetzan egin da, eta lehen ediziorako **Nagore Amenabarro** izan zen artista gonbidatua. **Platina** proposamena aurkeztu zuen museoko laborategian. Gune horixe erabili zen **Mila eskuren isilpeko lana** erakusketa egiteko ere, SOS Arrazakeriarekin lankidetzan.

JARDUERAK

Jardueren programa izan zen osasun larrialdiak kaltetuenetako bat: museoa itxi eta jarduerak bertan behera geratu ziren, eskaintza segurtasun eta osasun neurrietara egokitu behar izan zen, edukiera murriztu, bisita gidatuetan mugatu egin zen jende kopurua, ordutegiak...

Egoerari aurre egiteko modu bat kultur eskaintza ingurune digitalera eramatea izan zen: **hitzaldiak eta mahai inguruak online formatuan eta aurrez aurre eskaini ziren, eduki digital jakin batzuk sortu, dinamika mistoak**



© Oskar Moreno

Plus 55 kultur bisitak.

(**aurrez aurrekoa eta digitala konbinatuz**), **streamingak**, eta abar.

Gaienez aniztasunari eta formatu ezberdinei heldu zieten museoaren jarduerak: **autore bisita gidatuak eta bereziak, musika jarduerak, hitzaldiak eta mahai inguruak, solasaldiak eta topaketa informalak, artista tailerrak, haur eta familientzako programak, ekitaldiak...**

Proposamen horiek guztiek leku dinamikoa bihurtu dute museoa, eta interes eta sentiberatasun

Nagore Amenabarroren *Platina* erakusketa.



© Oskar Moreno

desberdinei irekia. Jarduera horietako asko errazago egiteko, museoak **lekuak erreserbatzeko sistema bat jarri zuen martxan webgunearen bitartez.**

Aldikako erakusketa guztiek izan zuten **doako jardueren programa**, jendea erakartzeko eta hainbat ikuspuntutatik egindako irakurketak izan zitezten.

Orobat, museoarekin eta erakusketa iraunkorarekin lotutako jarduerak ere izan ziren, eta **bi ekinbide nabarmendu ziren, biak ere bildumako artelanen zabalkundea eta azterketa sustatzeko**: Fernando Golvanok emandako mintegia, ***Bajo el signo de la melancolía en las artes***, eta ***Miradas personales*** hitzaldi zikloa, zeinak 2021ean jarraituko baitu.

Urteko lehen hiruhilekoan, **Elkano Zikloak**, munduaren lehen biraren eta bere ondorioen ezagutzan sakontzeko hileroko hitzorduak, oso harrera ona izan zuen jendearen aldetik. Gainera, urteroko jardunaldiak egin ziren, **Aranzadi Zientzia Elkartearen Arkeologia eta Etnografia jardunaldiak**, baita **San Telmo Museoaren Adiskideen Elkartearen Hileko Obrari** buruzko hitzaldiak ere, hileko lehen igandean. Nabarmenezkoa da **Ondarearen Europako Jardunaldien** inguruan eratutako programazio zabal eta askotarikoa, **Ondarea eta Hezkuntza** gai nagusitzat hartuta, proposamen berritzaileekin, hala nola helduentzako lantegiak eta topaketa profesional bat museoetako hezkuntza proiektuei buruzko gogoeta eta esperientzien inguruan.

2020an indartu egin zen **euskara** gure kulturaren **ondare berezi gisa sendotzeko** helburua duen zehar-lerroa, programazioa eta beste eragile batzuekiko lankidetzaren areagotuz (Bagera Elkarte, Galtzagorri Elkarte, iAmetza, Euskaraldia...).

Eta ezin ahaztu **kultur aisialdirako** egindako proposamenak. Eskola inguruetik kanpoko **haurrentzako jarduerak** eta familientzako jardueren programa lan ildo sendoa bihurtu dira dagoeneko museoan. Esate baterako, haurrei eta familiei zuzendutako programazioak arte sorkuntza eta ezagutza sustatzea du helburu, jolasaren bitartez, modu ludiko eta erakargarri batean. Urtearen ezaugarri bereziak zirela eta, jarduerak bestelako formatuetan egin ziren: **aurrez aurreko lantegia, artista eta sortzaileek ere parte hartuz** (berezi nabarmenezkoa 1 eta 4 urte artekoentzako eskaintzak izan zuen harrera ona), **euskal kulturaren, artearen inguruko jarduera fitxak, eta San Telmo Museoaz familian eta modu autonomoan gozatzeko aldikako erakusketak.**

Gainera, mantendu egin zen zenbait estilotako musika programazioa, **Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin, Francisco Escudero Kontserbatorioarekin eta Musikagileak-ekin (Musika Garaikideko Zikloa)** urtero dugun lankidetzari esker. Museoan **Jazzaldiko** eta **Musika Hamabostaldiko** kontzertuak izan ziren berriz ere, eta zenbait ikuskizun eszeniko programatu ziren, hala nola **Erritu, Kukairena, Iparraguirre 7** eta **Kolore Festa. Jose Luis Zumeta in memoriam.**



Hitzak irudi, Mauthaus.

ERRONKAK

Erronkak lerroko programazioari dagokionez, bertan behera geratu zen, pandemia zela eta. Une horretara arte, nabarmentzekoa **Vandana Shivaren** eta **Adela Cortinaren** presentzia, bi erreferente zein bere esparruan. Handik aurrera, **online** formatuan ekin zitzaion berriro jarduerari, **Europar Elkarrizketak** zikloarekin eta **Death Café** saioekin, doluaren inguruan, hain zuzen ere oso harira zetorren gaia. Urtea ixteko, **Agorak** zikloa, klima aldaketari buruz, non **Yayo Herrero** eta **Olga Rodríguez**ek hartu zuten parte.

HEZKUNTZA

Ohiz kanpoko urtean, museoa itxita egon zen bitartean, **Hezkuntza Komunitateari hezkuntza materialak eskaintzea** izan zen **Hezkuntza Sailaren** ahalegina, bai irakasleei baita familiei ere. Gero, jendeari **museoa berriro ireki**

zitzeanean, hezkuntza lanari berrekiten saiatu zen, oso egoera bihurrian, edukiera mugak zirela-eta osasun neurri zorrotzen ondorioz. Ondorioz, bisitarien kopurua nabarmen jaitsi zen.

2020an zehar, 2.977 lagun etorri ziren museora, 249 taldetan, bisita gidatuak egitera eta Hezkuntza Sailaren proposamenetan parte hartzera: jaitsiera nabarmena kopuru aldetik, aurreko urtearen datuekin alderatuta. Kopuru horretatik etorri ziren gehienak ikasleak izan ziren (%59), eta dezente gutxiago gizarte taldeak (%10). Beste guztiak, beren kontura etorritako partikularrak izan ziren (%31). Bisita instituzionalak bertan behera geratu ziren urte osoan, eta ia ez zen izan tour operadoreenik.

Datuok aditzera ematen dutenez, nahiz eta edukiera mugatuak eta murrizketak izan, herritarrek museora etorri nahian jarraitu zuten, eta horren

erakusgarri da Plus 55 kultur bisitek oso harrera ona izaten jarraitu zutela, gidariei esker.

Udazkenean, hautatu eta testuingurura egokitu ziren maila guztietako hezkuntza programak, eta halaxe jakinarazi zitzaizen ikastetxeei.

Hezkuntzari dagokionez, nabarmentzekoa hirugarren aldiz segidan egin zirela **Dolugelan Jardunaldiak, Bidegin Elkartearrekin** eta **Donostiako Irakasleen Orientaziorako Zentroa**rekin lankidetzan. Jardunaldi horietan, Hezkuntza Komunitateko 100 lagunek hartu zuten parte, gehienak irakasleak eta gurasoak. Online jardunaldi horietan, museoak **Heriotza egunerokoan...** maleta didaktikoa aurkeztu zuen. Hezkuntza material hori erakusketa iraunkorrean aurkezten den ehorzte ondarean dago oinarritua, eta 20 proposamen eta baliabide ditu heriotzaren gaia lantzeko hezkuntza maila guztietan.



DOKUMENTAZIO ZENTROA - LIBURUTEGIA

Museoko **liburutegiak** jarraitu egin zuen **Gabriela Cendoya Bergarecheren** (GCBC) argazki liburuen bilduma hedatzeko lanetan, jarduerak antolatuz, funtsak katalogatuz eta bildumarentzako orri-markatzaile bat argitaratuz. Zailtasunak zailtasun, **J. M. Ramírez-Suassi** eta **Jon Cazenave** artistak etortzea lortu zen; museoan izan ziren biak beren lanak aurkezteko, **Fordlandia 9** eta **Galerna**, hurrenez hurren. **Online**, berriz, **Naroa Pérez Iguaran** Londresen bizi den artista donostiarraren hitzaldia izan genuen (**Trail of touch**), baita Salvi Danés argazkilarikatalanarena ere (**A les 8 en el bar Eusebi**).

Orobat, ikus-entzunezko bat ekoizteko aukera probestu zen, non **Nagore Legarreta** argazkilarik gipuzkoarrak sorkuntza ariketak proposatzen zituen, edonorentzako modukoak, GCBC bildumako argazki liburuak irakurri ondoren. Material hura Interneten jarri zen, eta oso harrera ona izan zuen.

Novis corpus argazki liburuaren hedapenean ere parte hartu genuen; 48 artistaren ekinbide bat, konfinamendua islatzeko. 500 aleko edizioa agortua dago dagoeneko, eta salmentaren irabaziak erietxe baterako osasun materialak erosteko eman ziren.

Gaur egun, 2.675 ale daude argazki liburuen bilduman. Museoak ahalegin berezia egin zuen 2020an, eta lehen argitalpen agortuen aleak erosi zituen bildumarako, hala nola **Robert Franken** **Les américains** (1958) eta **William Kleinen** **New York** (1956), baita Alemania naziak

1938 eta 1942 artean argitaratutako **26 argazki liburuxka** ere.

Amaitzeko, nabarmendu behar da liburutegiak **Archivo Oral** proiektua bultzatu zuela, urte asko dituzten dendetan azken urteetan bildutako lekukotzen 20 elkarriketa editatuz.

ARGITALPENAK

Lau argitalpen kaleratu ziren: **Deabrua ote; Bruegheldarren mundua** erakusketako katalogoa, Espainiako Eskultura Museo Nazionalarekin eta Asturiasko Arte Ederren Museoarekin batera; **Nagore Amenabarren Platina abian** proiektuaren lehen edizioa, Kutxa Fundazioarekin batera; eta **Atzera Begirako Poetika. Antton Elizegi argazki funtsa** eta **Postigo. Crónica de una época** erakusketen katalogoak, zeinak museoaren bildumen sailean sartu ziren, bi erakusketa horietan geure funtsak agertzen direnez.

URGULL

Urgull mendiko ondareak gure ondarea eta historia ezagutzeko aukera ematen du. 2020an, mendiko kultur ekipamenduak itxita egon ziren osasun larrialdia zela eta, baina, hala eta guztiz ere, zenbait ekinbide burutu ziren Urgullek gordetzen duen aberastasuna ezagutarazteko.

Nabarmentzekoa bi **euskarri** egin izana, non zailtasun gutxiko ibilbide bat proposatzen baita, ondare historiko eta naturalaren gunerik garrantzitsuenetan barrena: **mapa bat, paperezkoa, eta Urgull app-a**. Aplikazioaren bertsioan, gainera, gune eta gotorleku historikoei



Museoaren berririkiera.

buruzko informazioa, espezie naturalei buruzko azalpenak, paisaia begiratokiak eta museoaren bildumako argazki zaharrak datoz.

Erakusketa iraunkorra berritzea izan zen urteko mugarri nabarmenetako bat; mantentze lanak egin ziren, bai eta Historiaren Etxeko erakusketa iraunkorra aldatu eta hobetu ere.

Azkenik, kanoien kontserbazio eta zaharberritze lanak nabarmendu behar dira.

KOMUNIKAZIOA

2020ak erronka handia jarri zion museoari, eta komunikazio sailak ere ahalegin handia egin behar izan zuen baliabide berrien bila, jendearekin harremanetan jarraitu ahal izateko. Konfinamenduak iraun bitartean, **bide berriok digitalak izan ziren batez ere**, eta, martxan jarri ziren



ekinbideei esker, museoak kultur eduki interesgarriak eta entretenimendurakoak eskaini zituen. Hala, **erakusketak ikus-entzunezko formatuetan jarri ziren** Interneten partekatu ahal izateko; bideoak eta beste material batzuk egin ziren hainbat arlotan espezialista ziren adituekin museooko funtsei buruz (**#STMLoMás** atala, erakusketa iraunkorreko pieza hautatu batzuekin); museoak aspaldi honetan bere kanal digitaletan jarri dituen ikus-entzunezko edukiak nabarmendu ziren, eta abar.

Proiektu horiek aurrera ateratzeko, lan egiteko era berriak bilatu ziren, departamenduen arteko elkarlanean. Emaizak aberasgarriak izan ziren.

Urtean zehar, museoak 13 prentsaurreko eman zituen (nabarmentzekoa da beste erakunde eta entitate batzuen aurkezpen batzuk ere egin zirela, gai eta proiektu interesgarrien ingurukoak), eta 25 prentsa ohar igorri ziren.

Museoaren eskuorria.



Webaren erabiltzaileen kopurua 126.357 izan zen, 2019an baino zertxobait gutxiago (%10). Erraz ulertzekoa da hori, batez ere *Agenda* eta *Aldi baterako erakusketak* izan ohi direlako interesgune nagusiak museoaren webgunea bisitatzen dutenentzat. Hala ere, hobetu egin zen bisiten kalitatea (iraupena, bisitaturiko orrialdeen kopurua, errebote-ehunekoak).

Posta elektronikoaren, sare sozialen eta trafiko organikoaren bidez iristen diren bisiten ehuneko nabarmen igo da, eta horrek esan nahi du museoak ondo kokatuta dagoela sarean.

Oro har, **sare sozialek** mugimendu handia izan zuten urte osoan. Denetan egin zuen gora jarraitzaileen kopuruak, batez ere **YouTube**n, zeina eduki gehien jaso zuen plataformetako bat izan zen. Martxoan, bestalde, **Instagram**en jarri zen martxan museoaren profila, eta 1.000 jarraitzaile baino gehiago zituen urtearen amaieran. Hala, bada, gaur egun museoak bere lekua du Facebook, Twitter, YouTube, Instagram, Flickr eta Ivoox-en. **Vandana Shiva**ren bideoek zuten ikuskapen gehien 2020. urtearen amaierarako (20.000tik gora ingelesez eta gaztelaniaz).

5.700 lagunek baino gehiagok jaso zituzten museoak bidalitako buletin elektronikoak. Kopuru horrek gora egin zuen 2020an ere.

Nabarmentzekoa da, bestalde, **Jardueren Agenda** hilabetekari izatetik hiruhilabetekari izatera pasatu zela, nahiz eta osasun larrialdiak utzi ez formatuak finkatzen eta etorkizunera begira plan seguruak egiten.

Agendaz gain, **euskarri batean argitaratu zen lehen aldiz argazki liburuaren inguruko urteko programazioa**, baita erakusketa aldikakoaren eta iraunkorraren ohiko liburuxkak ere.

Publizitateari dagokionez, museoak publizitate iragarkiak sartu zituen komunikabideetan, batez ere museoaren babesle edo enpresa ongile diren komunikabideekin egindako lankidetzak akordioaren bitartez, aldikako erakusketei eta bazkide kanpainari zabalkundea emateko, batik bat. Kanpaina horretan, indar berezia egin zen 2021ari begira kopurua handitzeko. Orobat, museoak publizitate plan bat egin zuen komunikabide espezializatuetan eta orokorretan, jardueren zabalkundea areagotzeko ikus-entzule potentzialen artean.

STM

San Telmo Museoa



Kultur Ekintzak zuzentzen duen ekipamendu sarea herritarren topagunea eta auzoen eguneroko agenden erreferentzia da. Kultur etxeek udal zerbitzuen eskaintza zabala kudeatzen dute, eta kultur diziplina orotariko jarduerak eta jaialdiak programatzeaz gain, sortzaileak babesteaz eta ekinbide publikoa eta pribatua batzen dituzten ekimen berriak sustatzeaz arduratzen dira.

2020 urtea **Covid-19**ak eragindako pandemiagatik baldintzatuta egon zen eta gizarteari larriki eragin dion osasun krisiak ekipamendu sarearen ohiko jarduerak eta zerbitzuak kaltetu zituen. Gure lan dinamikan ondo bereizitako hiru etapa izan genituen: lehena, urtarrilean normaltasunez hasi eta martxoan bat-batean eten zena, bigarrena, itxialdiarena, eta hirugarrena, zerbitzuak egoera berrian berrabiaraztearena.

Urtea normaltasunez hasi arren, martxoaren erdian osasun krisia iristearekin batera zerbitzu eta jarduera gehienak bertan behera utzi eta kultur ekipamenduak aldi baterako itxi izan behar genituen. Bat-batean hiritarrak etxean konfinatu zituzten, eta egun batetik bestera aldatu zitzairen eguneroko bizimoldea, eta gizarte harremanetan hainbat behar berri azaleratu ziren.

Aurreikusi gabeko larrialdi egoeraren premia berri horiei erantzuteko asmoarekin hainbat urgentziatzeko ekimen boluntarista sortu ziren hiritarren gizarte-erantzukizunetik, eta kultur gileak ez ziren atzean geratu gizarteari laguntzeko unean. Horrela, erreminta digitalez baliatuz, kulturaren sektoretik jaiotako ekimen askok asmo argiak zituzten: pertsonak elkarrekin harremanetan jarri, entretenitu, irakatsi eta sarritan, hunkitu.

DK etxean

Donostia Kultura izan zen ekimen horiekin bat egin zuen lehen erakundeetarikoa, eta **DKetxean** programa sortu zuen eduki kulturalen eskaintza digitala zabaltzeko. Programa horrek, besteak beste, gure ekipamenduetan izan ohi diren ipuin kontalari, irratsaio, ikastaro eta tokiko artisten emanaldiez etxetik gozatzen jarraitzea ahalbideratu zuen. Izan ere, **DKetxean**-ek bi helburu ezberdin zituen: gure erabiltzaileen eguneroko eta gertuko aisialdia mantentzen laguntzea, eta tokiko kultur gileei lana ematea diru-sarrerarik gabe zeuden une batean. Hala, martxoaren erdialdetik ekainaren hasierara arte, **internetesko eduki digitalak** izan ziren gure lan-tresna nagusiak erabiltzaileen begietara eta, besteak beste, bat-batean etendako kultur etxeetako hainbat ikastaro online bukatu ahal izan ziren.



Bi hilabete baino gehiagoko itxiera jasan eta barne-lan isil asko egin behar izan zen tunelaren amaierako lehen argia printzak ikusi aurretik. Ekipamenduetako ateak berriro ireki ahal izan genituen ekainean, liburutegietako mailegu zerbitzuarekin soilik izan bazen ere.

Handik aurrera helburu bakarra izan genuen: lehenbailehen berreskuratzea gure jardueren eskaintza erabiltzaileen, kulturgileen eta langileen osasuna babestuz. Ez zen lan erraza izan. Izan ere, ondorengo hilabetetako lanak egoera aldakorren baldintzapean egin genituen eta, besteak beste, zerbitzuak unean uneko araudietara egokitzeko lan-dinamikak etengabe berrasmatu behar izan genituen: egutegi eta ordutegi berriak, edukiera murriztuak, higie-neurri berriak...

Dinamika berri horretan programatutako jarduera asko aurrera eraman ahal izan bagenituen ere, tamalez beste batzuk bertan behera utzi behar izan ziren momentuko osasun baldintzak ez zirelako gomendagarrienak. Adibidez, arrisku taldeekin (+55) edo gaztetxoekin lotutako zerbitzuak murriztu ziren bitartean, pertsona bilkura handiak erakartzen zituzten

jaialdiak (**Musikaren Eguna** edo **Glad is the Day**) eta jarduera amateurren praktikak zeharo etenda geratu ziren.

Gauzak horrela izanda ere, esperientzia horiek uda amaierarekin zetorren ikasturte berria prestatzeko baliagarriak izan zitzaizkigun eta hainbat erabaki eta apusturen ondoren, ohiko ikastaroen eta programazioaren eskaintza egokitu bat plazaratzeko gai izan ginen.

Eta musukoa nahitaez janzten eta elkarrekiko distantzia mantentzen ikasi behar izan genuen, baina erabiltzaileek gure eskaintzari gogotsu heldu zioten. Euren erantzun onak eta parte-hartze gero eta handiagoak argi erakutsi ziguten gure zerbitzu eta jarduerak apreziatuak direla euren eguneroko bizitzan eta badutela balioa pertsonekin harremanetan jartzeko garaian.

Azkenik, normaltasuna definitzea zaila izan arren, nabarmendu behar dugu ekainetik hona ez zela zerbitzurik itxi behar izan birusagatik, eta ekipamenduetara etortzen ziren erabiltzaileen kopurua etengabe igotzen joan zela. Hartu ziren neurriengatik eta batez ere, erabiltzaileen eta langileen jarrera onari esker, beldur gabe esan ahal dugu denon artean lortu genuela gure ekipamenduetan kultura benetan segurua bermatzea.

KOPURU OROKORRAK

Antzerkiak, zinemak, musikak, ikastaroek, liburutegiek, KZguneek, bilerek... Arlo horiek guztiek pairatu zituzten neurri handiagoan edo txikiagoan, pandemiak ezarritako murrizketak. Horren aurrean, Donostia Kulturarentzat lehentasuna izan zen eragile, talde eta kolektibo kulturaleri laguntzea, eta udaberrian eten edo



2020-2021 Ikastaroen aurkezpena.

atzeratu behar izan genituen jarduera asko, kasu gehienetan, udazkenean berreskuratu ahal izan genituen.

Testuinguru horretan, urtean zehar egin ohi ditugun zerbitzuen eta jardueren kopuruak behera egin zuen, eta erabiltzaileen kopuruak ere bai, segurtasun arrazoiengatik ezarritako edukiera mugak zirela eta.

COVID-19AREN ERAGINPEAN BIZI IZAN GENUEN 2020 URTEAN ZEHAZ, KULTUR ETXEEK 538.912 BISITA IZAN ZITUZTEN, ETA 3.231 JARDUERA BAINO GEHIAGO PROGRAMATU ZITUZTEN, ZEINETAN 113.689 LAGUNEK HARTU ZUTEN PARTE.

IKASTAROAK

Kultur Ekintzaren programazioaren barruan, kultur etxeen **prestakuntzarako eskaintza** da herritarren artean urtez urte harrera onena duen programetako bat. Ikastaro programazio zabalak osatzen du eskaintza, bizia eta askotarikoak, hiriak gaur egun dituen beharrei erantzuteaz gain, adi dagoena eta, urtez urte, arlo berriak eta eskaria duten proposamenak jasotzen dituen.





Urtero legez, 2020 urtean zehar **bi ikasturte ezberdinetako ikastaroak** eta ikasleak izan genituen: urtarriletik abuztura arteko epea, 2019-20 ikasturteari zegokiona, eta irailetik abendura zihoana, 2020-21 ikasturtekoa. Bi epe horien kopuruak kontuan hartuta, **2020** urtean Donostia Kulturaren eskaintza anitzetik osatutako ia **490** ikastaroetan **7.539** ikasle izan ziren.


Covid-19ak zuzenean eragin zion ikastaroen ohiko dinamikari eta martxoan genituen **290 ikastaroen eta 4.600 ikasle baino gehiagoren jarduera eten egin behar izan zen**. Aurreikusi gabeko egoerari aurre egiteko, erabiltzaileei ahalik eta ikastaro gehienak online formatuan amaitzeko aukera lantzea erabaki zuten Donostia Kulturak.

Horrela, itxialdiaren aurretik **abian zeuden ikastaroetatik 177 online jarraitzeko eskaintza osatzea lortu zen**, eta eskaintza horretako **161 atera ziren aurrera**. Nabarmendu beharra dago **bertan behera** geratutako 2019-20ko ikastaroetako **ikasleei matrikulazioari zegokion diru portzentaia itzuli zitzaie**.

2020-21 ikasturte berriari begira eta aurrean genuen egoera aldakorra kontuan hartuta, hainbat erabaki hartu behar izan genituen ikastaroen **eskaintza egokitu ahal izateko**: taldeen **partaide kopurua murriztu, ordutegia aldaketak, ikastaro arteko desinfekzioak aurreikusi, taldeak biderkatu**... Eta, batez ere, ikastaro **orokorrak hiru hilabetetan banatu ziren**, osasun-krisiaren gorabeherari hobekiago erantzun ahal izateko. Birusarengatik ikastaroen bat eten behar izanez gero, klaseak berreskuratzeko epealdiak aurreikusi ziren hiruhilabete bakoitzean.

IKASTAROAK ONLINE

euskaraz 26
gaztelaniaz 135
guztira 161



Poltsiko Antzerkia: The Chanclettes.

Hori horrela izanda, irailean 2020-21 ikasturterako matrikulazio zabaldu zen lehen hiruhilabeterako, **340** ikastaroz osatutako eskaintza anitzarekin. **Osasun kisiak jarraitu arren**, nabarmentzekoa da ia **190 ikastaro osatu zirela 2.700 ikasle baino gehiagorekin**. Aipatu behar dugu 2020an hasitako ikastaro gehienek jarraipena izango dutela 2021 ikasturteko bigarren hiruhilekoan eta ikastaro berri gehiago izango direla uda bitartean.

Azkenik, ez da ahaztu behar Donostia Kulturaren eskaintzaz gain, KZguneek ere hainbat ikastaro eskaintzen dituztela gure ekipamenduetan eta, tamalez, euren ohiko jarduera ere murriztua ikusi zela. Guztira **400** ikastaro osatu zituzten **2.056** ikaslerekin.

POLTSIKO ANTZERKIA

Urtarrilaren **29tik otsailaren 16ra bitarte** egin zen **Poltsiko Antzerkia, 29. edizioa** iritsi zen 2020an. Programak **26 gune/agertoki** izan zituen hirian zehar, eta **34 emanaldi** eskaini zituen (bi-lau eguneko, Donostiako zenbait lekutan).

Jaialdi hau zubi ezin hobea da formatu txikiko antzerkira hurbiltzeko, eta arrakasta handia izaten du urtero ikus-entzuleen artean. Azken edizioan, hain zuzen, **3.629 ikus-entzuletik gora izan ziren**. Guztira, **16 konpainiak** eskaini zituzten umorezko lanak, drama eta musika; batzuk talde lanak izan ziren, eta beste batzuk bakarkakoak.

Beste urte batzuetan bezala, oraingoan ere euskal sorkuntzak leku nabarmena hartu zuen: **16 emanaldi euskaraz** izan ziren. Generoari dagokionez, 17 ikuskizunetan emakumeak izan ziren protagonista, 2tan biak, eta 15etan gizonak.

Amaierako jaian, zeinean **280 lagun** bildu baitziren, topaketa gunea eskaini zen aktoreentzat eta ikus-entzuleentzat; oso esperientzia polita eta jostagarria. Poltsiko Antzerki jaialdiak beti izan du ikusle gozagarria, eta urtero gehiago batzen doaz iada Donostiako kultur programazioko klasiko bat den ekitaldi honetara.



POLTSIKO ANTZERKI SORKUNTZA

Poltsiko Antzerki jaialdian, eta oro har formatu txikiko antzerkian euskarazko eskaintza urria ikusita, euskarazko sorkuntzak bultzatu nahi ditugu deialdi honekin. Sorkuntzarako diru-laguntzaz gain, **ekoizpenean eta hedapenean laguntza** ere jasotzen dute proiektu sarituek, aukeratutako proiektuekin emanaldiak ere antolatuz. Beraz, deialdiaren laguntzak kultur katearen atal guztiak hartzen ditu barnean: sorkuntza, ekoizpena eta hedapena.



Ttak Teatroa eta Kamimaz Kolektiboa. *Matriuska* antzezlanara.

10. edizioan jasotako proiektuen artean, lehen saria **Ttak Teatroa eta Kamimaz Kolektiboa** taldearen *Matriuska* antzezlanari eman zion epaimahaiak. Bigarren saria, berriz, **Elur Sorkuntza Etxearen Esnatu Naiz** lanari egokitu zitzaion.

Korner

KULTURA & FUTBOL FESTIBALA

Donostia Kulturak eta Real Sociedad Fundazioak antolatutako **Korner** jaialdiaren hirugarren edizioaz gozatzeko aukera izan zen **otsailaren 9tik 15era bitartean**.



Santiago Cañizares.

2018an hasi zenetik, jaialdia erreferentzia bihurtu da kirol nagusiak diziplina artistikoekin eta eztabaida sozialekin dituen loturak aztertzeke orduan.

Kornerrek publiko guztiarentzat pentsatutako programa zabala eta diziplina anitzekoa eskaini zuen, eta kulturako eta futboleko izen nabarmenak izan ziren bertan: **Manuel Vilas, María Botto, Benjamín Prado, Manu Lareo, Santiago Cañizares, Jose Luis Garci, Maddi Torre, Roberto Olabe, Imanol Agirretxe, Luis Chillida, Mikel Alonso edo Judith Jauregui**, besteak beste.

Ernest Lluch Kultur Etxea eta **Antzoki Zaharra** izan ziren jaialdiaren egoitza nagusiak eta **1.600 pertsona baino gehiago bildu ziren** solasaldiez, proiektioez, bakarrizketez, antzerkiaz, bertsoez eta erakusketez gozatzeko.

Realak eta Athletic Clubek elkarren aurka jokatzen duten bakoitzean Antzoki Zaharrean antolatzen den **Bertso Derbi** tradizionalarekin hasi zen Korner. Hitzaurre dibertigarria

izan zuen ekitaldiak jaialdiaren eskutik: *Monologolak*, **Zuhaitz Gurrutxagak**, **Mirari Martiarenak** eta **Idoia Torregarai** antzeztutako monologoak umore klabean.

2020ko zita berezia leku pribilegiatuan iritsi zen: **Chillida Leku Museoa**. Bereziki atezainaren figura jorratu ZUEN edizio batek ezin zuen utzi pasatzen Eduardo Chillidaren obrak futbolarekin duen harremanaz hitz egiteko aukera. Jakina denez, artista donostiarra Realeko atezaina izan zen gaztetan. Esperientzia horrek arrasto sakona utzi zuen Chillidaren espazioaren kontzepzioan.

Azkenik, ez da ahaztu behar Kornerren baitan **Etxe txuri-urdinak** erakusketa inauguratu zela Ernest Lluch Kultur Etxean, Realak sorreratik izan dituen hainbat joko-zelaietan oinarritua. Hirugarren edizio honetako solasaldi guztiak jaialdiaren **www.korner.eus** webgunean daude eskuragarri, baita gonbidatu batzuei grabatutako Korner galdetegiak ere, euren futbolarekiko ikuspegi pertsonalak jasotzen dituztenak.



Sara Zozaya.



Sex Museum.

DKLUBA

DKluba programak Donostiako auzoetako musika eskaintza dinamizatzeko helburua du, tokiko taldeen parte-hartzea sustatuz, bereziki. Hiria bera musikan erreferente bihurtzea da helburua, talde berriak aurkitzeko, artista ospetsuen bisita jasotzeko eta bertako talentua modu naturalean hazi ahal den tokia izateko.

Lankidetzeta du oinarri (administrazio publikoaren eta erakunde pribatuen artean), musika emaldi komertzialak ez bezalako ekitaldi alternatiboak programatzeko eta bertakoa aintzat hartzeko xedez (hala musika taldeei dagokienez nola kolektibo, klub, sustatzaile eta elkarten lanari dagokionez).

Dklubarentzat urtea gogotsu hasi zen eta neguan programatutako kontzertuek Intxaurren Kultur Etxeko aretoa bete zuten. Urtarrileko lehen kontzertuan, **Los Zigarros** eta **Radiocaster** taldeak izan ziren, eta sarrera guztiak agortu ziren taldeen arrakasta islatuz.

Hala jarraitu zuen otsailean, **Musikagela Weekend** jaialdiaren 10. urteurrenarekin, non **Sex Museum** madrildarra izan zen talde nagusia eta **The Blackfeet** eta **Glory Howl** tokiko talde gonbidatuak. Gros auzoko tabernetan **Mikel Karton** eta **David Grajal**en kontzertuak ere izan genituen, tokiko talentua auzoetara eramateko lanean jarraituz.

Ondorengo kontzertuak ere arrakastatsu zetozen eta **ETS**-ren kasuan otsailerako sarrerak **agortuak** zituzten, baina **osasun krisiak kontzertuak jendaurrean egin ahal izatea eragotzi zuen. Martxotik ekainera ezin izan zen zuzeneko musika emanaldi profesionalik antolatu** eta musikarien agerraldiak euren etxeetako balkoietara eta internet bitartezko emisioetara geratu ziren mugatuak.

Ekainean berriro kalera ateratzen hasi arren, egoera berriaren segurtasun baldintzak oso aldakorak izan ziren uda guztian zehar eta, ondorioz, urtero antolatzen genituen jaialdi

jendetsuenak bata bestearen atzetik **bertan behera** geratzen joan ziren: Loiola kaleko **Musikaren Eguna**, zentroan egitekoa zen **Musikagela Fest**, Cristina Enea parkeko **Glad is the Day** eta Miramongo parkean egitekoa zen **Basoka**.

Zirkuituaren jarduera ez zen udazkenera arte berreskuratu ahal izan eta, beti ere, Covid-19ari aurre egiteko neurrietara egokituta, besteak beste, mugatutako edukierekin eta ikusleak eserleketan eserita. Hala ere, publikoak berriro gogotsu erantzun zuen egoera ezberdin horretan.

Urrian **Donostikluba Festivala** izan genuen Intxaurren eta bi egunetarako sarrerak agortu zituen. Ostiralean auzoko **El Negro** eta ez oso urrutiko **Latriku** aritu ziren musika urbano berrietan Intxaurren Kultur Etxeak zer eskaini dien argi utziz. Larunbatean **Chaqueta de Chándal** eta **Grisés** taldeek bestelako estilo batean kontzertu ederra eman zuten, bertaratutako gozamenerako. Jarraian, **Revolution Jamrock Donostia Reggae Festival**-ak bere burua berrasmatu eta jaialdia bi data ezberdinetan eskaintzeko apustua egin zuen: azaroan **Live** formularekin **Emeterians & Forward Ever Band**-ek zuzeneko itzela eman zuen eta abenduan, **GabON Reggae** formularekin eta sound system estiloan, **Revolutionary Brothers** bikotea jardun zen tokiko hainbat artistekin batera.

Ezin ahaztu ere bi emanaldi horien artean **Sara Zozaya** aritu zela azaroan, eta berriro sarrera guztiak agortu zirela.

Urtea amaitzeko, **DKluba** zirkuitua, hiriko **musika areto pribatuen jarduera berreskuratzen laguntzeko**



asmoarekin, hainbat kontzerturen antolaketan parte hartzen hasi zen berriro. Horrela, abenduan **Pedro Pastor eta Ketekalles** taldeak izan ziren **Dokan**, eta 2021erako **Dabadaba** eta gainerako aretoetan emanaldi gehiago aurreikusi ditugu.

MUSIKAGELA 2020

Musikagela Donostia Kulturaren zerbitzu ezagunenetariko bat baino askoz gehiago da. Hiriko erreferente bat da Donostiko musikari zaletuen munduan, eta horri esker du atzetik etengabe berritzen doan tokiko musikarien lagun taldea.

Batetik, erabiltzaileek hainbat baliabide dituzte: aholkularitza zerbitzuak, maketak grabatzeko eta zuzeneko emanaldietarako ekipoak, entsegu aretoak, kultur etxeetan egonaldi artistikoak... Horri guztiari gehitu behar zaio musika prestakuntza espezializatuaren eskaintza. Bestetik, etengabe ari da lanean, bertako taldeen jarduera sustatzeaz gain, haien lanari zabalkundea emateko. Donostia Kultura bitartez antolatutako ekitaldietan ahalik eta baldintza egokienak ziurtatzen dira ekipamenduaren, kontratazioaren eta publizitatearen aldetik.



Covid-19aren eraginpean igarotako 2020an **musika jarduera oso kaltetua izan zen arren, Musikagelako erabiltzaileek zerbitzua oso gogotsu hartu zuten**. Nahiz eta zerbitzua itxita edo mugatua egon zen urteko epe luzeetan, Egia Kultur Etxean eta Intxaurren Kultur Etxean dauden entsegu aretoetan **78 musika proiektu/talde eta 269 erabiltzaile izan ziren**. Aipatzekoa da martxoko itxialdiaren ondoren, zerbitzuaren erabiltzaileek gora egin zutela ekainean, eta horien artean musikari semi-profesionalak edo batera jotzaileak nabarmen ditzakegula.

Kontzertuei dagokionez, urtarrilerako eta otsailerako DKluba zirkuituan programatutakoak bakarrik egin ahal izan ziren. Martxoan eta ondorengo hilabeteetan programatutakoak bertan behera geratu ziren, eta baldintzek ez zuten ahalbideratu urtean zehar berreskuratzea. Nabarmentzekoa da otsailean Intxaurren aretoan egindako **Musikagela Weekend Jaialdia**. Bertaratzeko ezarritako helburua lortu zen, eta jaialdiaren 10. edizioa baliatu genuen zerbitzuaren 16 urteak ospatzeko, **Musikagela: 16 urte** erakusketa batekin. Erakusketa horretan urte horietan egindako jardueren ibilbidea ikus zitekeen. Aldiz, tamalgarria izan zen **Musikagela Fest** jaialdiaren 3. edizioa ezin egin izana ekainean.

Formazioari dagokionez, azaroko murrizketa guztiak gorabehera, 9 ikastarotik 5 ateratzea lortu genuen, eta materiala elkartrukatzea eskatzen zutenak atzeratu behar izan genuen (adibidez, zuzeneko soinua). Aipatu behar dugu ere zerbitzuak duen balorazio onaren adierazgarri direla Donostiatik eta Euskal Autonomi Ekidegotik kanpo bizi den musikarien parte-hartzea eta interesa.



LITERAKTUM

Literaktum letren jaialdia **azaroaren 6tik 21era egitekoa zen**, sail eta proposamen berrieekin eta, beti bezala, kolaborazio-sare zabalarekin. Bere horretan eusten zion asmo nagusiari, hots, literaturara hurbiltzea beste hizkuntza eta diziplina batzuekin eta egungo eztabaidagaiekin batera.

Pandemia egoerak baldintzatutako edizioa zen, gertuagokoa eta ahalegin berezia eskatzen zuena. Tamalez, nahiz eta azken unera arte itxaron, azkenean ezinezkoa izan zen jaialdia egitea, besteak beste, uneko osasun araudiak ez zuelako kanpoko hainbat gonbidatu bertaratzera ahalbidetu.

Izan ere, batetik bestera nahi moduan mugi ezin gaitetzkeen garai hauetan, gizakien leku aldaketez aritzekoak ginen Literaktumen, borondatezko zein borondatez kontrako leku aldaketez, migrazioez, azken finean. Pobreziak batzuetan, gatazkek bestetan, arrazakeriak edo beste askotan ezegonkortasun politikoek bultzatutako migrazioak azken urtetan gizartean puri-purian dauden gaia eta kezka dira.

Literaturaren eta gizartearen arteko konexioak arakatzeko ahalegina izan da urtetan jaialdiaren ezaugarrietako bat eta, 2020an ere, erronka horri eutsi nahi zion. Antolatutako egitarau zabalean diziplina ugari izango zuten tartea, guztiak ere literaturarekin elkarriketan, hala nola: hitzaldiak, mahai inguruak, antzerkia, ikastaroak, erakusketak...



Jarduerak

	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	3.231	113.689
Antzerki emanaldiak	132	12.424
Dantza emanaldiak	22	2.690
Musika kontzertuak	41	6.191
Zine emanaldiak	84	2.785
Hitzaldiak eta mahai inguruak	101	4.371
Erakusketak	117	44.444
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	1.413	18.911
Liburutegiko jarduerak	483	6.210
Plus 55	204	5.884
Gaztelekua	299	3.844
Haurtxokoa	288	4.122
Bestelakoak	47	1.813

Zerbitzuak

	Bisitaldiak
GUZTIRA	382.538
Liburutegia	259.322
Ikasgela	720
Gaztelekua	4.482
Haurtxokoa	4.044
Kzgunea (Nabigazioak)	10.330
Altzako bilduma	59
Altzako bilduma web	74.631
DK Irratia web	22.014
<i>Ispilu Beltza</i> magazine-podcast	14.800
Bideo tailerra	497
Musikagela	1.465
Musika Eskola	2.615
Plus 55	2.359



Prestakuntza

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak	
GUZTIRA	1.695	887	9.635	
			7.421	2.442
2019-2020 IKASTAROAK	831	291	4.910	
Ikasturte osokoak (2019ko urria - 2020ko maiatza)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	8	0	0	0
Gaztelaniaz	24	20	685	193
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	269	50	565	123
Gaztelaniaz	247	174	2.132	640
Bigarren lauhilabetekoak (2020ko otsailean hasita)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	13	4	35	13
Gaztelaniaz	18	11	69	46
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	150	14	93	45
Gaztelaniaz	102	18	177	94
2020-2021 IKASTAROAK	340	188	2.743	
Ikasturte osokoak (2020ko urria - abendua)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	14	6	65	9
Gaztelaniaz	31	27	572	165
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	159	46	401	88
Gaztelaniaz	136	109	1.128	315
IKASTARO PUNTUALAK	18	8	202	
Tailer, mintegi eta masterclassak				
Euskaraz	10	4	62	23
Gaztelaniaz	8	4	63	54
KZgunea IKASTAROAK	181	116	491	
			300	191
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	325	284	1.517	
			1.074	443

KULTUR ETXEETARA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 538.912



SpaceWomen. Sipa Press.

2020an Aiete Kultur Etxeak 10 urte bete zituen, hasieratik izan duen auzoarekiko eta hiriarekiko konpromisoari eutsiz; giza eskubideak eta bakearen bidea lantzen, berdintasuna eta lankidetzaz uztartzen, sortzaileen ikusgarritasuna aldarrikatzen, eta, beti, hurbileko elkarten eta pertsonen zerbitzura. Urte hauetan eskainitakoetan edertasuna, baloreak eta erabiltzaileen kezka eta bizipenak jaso dira, kultur etxea hiriaren erreferente bihurtuz.

Programazio aldetik, **berrehun bat erakusketa** antolatu ditugu kultur etxearen gune ezberdinetan. Kalitatea beti bermatuz, herritarren eskaerak ere kontuan izan ditugu. Erakusketa hauetan kultur etxearen funtsezko gaietan sakondu dugu: gizarte eta ingurumen arloak, literatura eta artea, besteak beste, begirada pedagogiko berria eta erakargarria helburu izanik.

Hauetan, bide askotatik eraman gaituzten bertako eta kanpoko artistak izan ditugu. Bertako artistekin produkzioko erakusketak egin dira bereziki, arte-sorkuntzari bultzada emanez, eta hiriarri eta auzoari loturiko gaiak ere landu dira. Hauetako batzuk, beste kulturguneek eskatuta, Donostian eta Gipuzkoan zehar egon dira erakusgai. Bestalde, Donostia Kulturaren beste esparru batzuk lantzerakoan, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea, Giza Eskubideen Zinemaldia edo Literaktum jaialdiaren baitan erakusketa esanguratsuak espresuki sortu dira. Beste administrazio eta elkarteekin ere kolaborazio asko egin dira.

Osasun larrialdi egoeragatik erakusketa batzuk atzeratu behar izan genituen. Horien artean, **Parisko Sipa Press** fotokazetaritza agentziak eta **Europako Espazio Agentziak** aurkeztu zutena dira

aipatzekoak. Espazioari begiratzen zioten neskak eta emakumeen argazkiak aurkezten zituzten munduko hainbat lekutatik. Emakumea eta Neska Zientzian Nazioarteko Egunarekin bat, emakumeek zientzian izan behar duten presentzia aldarrikatzen zuten.

Donostiako Udaleko Lankidetzaren Atalaren, Euskal Fondoaren eta Aieteko Kultur Etxearen arteko elkarlanak **Exodoa. Hondakinak aterpe** erakusketa eta dokumentala jarri zuen ikusgai. **Andoni Lubakiren argazkiek** Siriako kurduak egun pairatzen duten zigorra islatzen zuten: gerra frontea, mamu herriak, errefuxiatu eremuak, iheslariez jositako eskolak, hiletak... Argazki hauek ezinbesteko tresna dira errealitate gordin hori ulertzeko, eta hala esplikatzen zuten egileak egindako bisita gidatuetan. Aretoan ere **Karlos Zurutuzak zuzendutako dokumentala proiektatu zen.**



Exodoa, hondakinak aterpe.



Musiklasik. Miren Urbieta eta Amaia Zipitria.

Arteari dagokionez, Usoa Zumetaren artelan grafiko originalak izan genituen gure aretoan. Beste artistek aurretik sortutako irudi bat hartu eta aukeratutako teknikara moldatu ditu Usoak, estanziaziorako serigrafia edo litografia erabiliz.

Donostia Kulturak duen hurbileko kulturaren bereizgarritasunaren ildotik, aurrean auzokideekin antolatu dugu Aieteko Gurutzeaga abesbatzaren 25. urteurrena. Hasieratik erakusketaren produkzioan hartu du parte kultur etxeak, oroigarri polita lortuz.

Aieteko berezitasun nagusi bat 2012an hasitako **Ilustratzailearen Txokoa** da. Proiektu berri hau Donostia Kulturaren eta Galtzagorri

Elkartearen arteko lankidetzari esker jarri zen martxan. Liburuen munduan idazleen lana beti aitortu da; ilustratzaileak, aldiz, itzaletan geratu dira askotan. Horregatik, Aiete Kultur Etxean ikusgai dagoen instalazio honen bidez liburu irudiduna nabarmendu nahi izan da, ilustratzaileen lanaz gozatzeko eta haien lanbidearen ezagutzan sakontzeko. Urte hauetan oihartzun eta arrakasta polita izan du proiektuak, gure artean ilustratzaile bikainak baititugu. Erakusgai izan genuen **Miren Asiain Lorak** 2020ko Euskadi Saria eskuratu zuen.

Arte plastikoetako artistei ez ezik, **Musiklasik** programaren bidez musikariei ere ikusgarritasuna ematen diegu. Urteen poderioz, egonkortu den programa da. 2020an gurekin izan genituen: **Lauburu Sax Cuartet**, saxofoi sopranoa, saxofoi altua, saxofoi tenorea eta saxofoi baritonoa; **Zugaz bikotea**, pianoa lau eskutara; **Miren Urbieta** sopranoa eta **Amaia Zipitria** pianoan.

Aieteko Kultur Etxearen haur programazioa ospe handikoa da, izan ere parke baten barruan dago kokaturik eta programazio

honen aldeko apustu sendoa egin dugu, kultur etxearen ardatz nagusi bihurtuz: ipuin kontaketa, musika zuzenean, haur antzerki edo haur zinema, beti euskal kulturaren sustapenari eutsiz. Gainera, irizpide soziala indartuz, ahal diren film guztiak azpidatziekin eman ziren, bai pertsona gorren onurarako, baita aniztasunaren kontzientzia soziala pizteko ere.

Liburutegia-k jarraitzen du topagune garrantzitsua izanez, non eskaintza zabala aurki daitekeen publiko anitzarentzat



Peru eta otsoa. Didau Antzerki Faktoria.



Ilustratzailearen Txokoa. Miren Asiain Lora.



Harry Potter. Itxaso Mugikaren ilustrazioa.

eta adin askotarikoarentzat. 2020an **Harry Potter txokoa** erakusketa aipagarrienetarikoa bat izan zen. Erakusketatik pasatu ziren mila bisitari baino gehiago, eta horrekin batera, arrakasta itzela izan zuen **Animalia fantastikoa** marrazki lehiaketak. J.K. Rowling-enak dira liburutegian gehien mailegatzen diren liburuak. Slawka Grabowskak zuzendutako erakusketa honetan, **Itxaso Mugikaren** ilustrazioekin mundu magiko batera eramaten gintuzten irudiak eta objektuak izan ziren erakusgai.

Aieteko **ikastaroetan 400 ikasletik gora egon ziren**: arte plastikoak, dantzak, musika instrumentuak, autoezagutza, osasuna eta humanitateak diziplinetan. Egile ikastaroen atalean Aietek urtero esfortzu berezia egiten du aukera zabaltzeko. 2020an hurrengoak izan ziren nabarmenenak: Egiptoko arkeologiari buruzkoa, bikingoen gaia jorratu zuena, Greziako mitologiarena, Karlistena, Aitziber Alonsoren ilustrazioarena edo Garbiñe Larrearen etxeko botikinari eta kosmetika naturalari buruzkoa.

Auzotarrekin eta hiriarekin kultur etxeak duen erlazioa estuaren lekuko da **Lantxabe** elkartearekin lankidetzak urte hauetan izan duen emaitza oparoa, zineman eta literaturan edo arte zikloan adibidez. Bestalde, **ACEX-Eske** unibertsitateko esperientzia gelako adineko pertsonen taldea eta Helduen Hitza erakundeak antolatu dituzten ikastaroen egoitza nagusi bat izan da Aiete.

Kultur etxetik kanpo ere zenbait ekitaldi egin ziren, eta modu horretan auzoko bizilagunei hainbat jarduera kultural gerturatu zitzaizkien. 2020an **Poltsiko Antzerkia** auzoko bi tabernetan ospatu zen eta izugarriko arrakasta izan zuten **Barry Barrez**-en **Irlandar eta euskaldun** eta **Las Pituister**-en **Qué contamos cuando contamos** artisten saioak.

Haurtxokoak Donostiako ospakizunetan modu aktiboan parte hartu du: Kaldereroak, Inauteriak, Pintxo Lehiaketa eta Giza Eskubideen Aldeko Marrazki Lehiaketa, besteak beste. Beste ekintzen artean nabarmentzekoak



Qué contamos cuando contamos. Las Pituister.

dira parkean egin zirenak eta Yoga Familiar saioa. Gaztelekuan, berriz, gazte taldeek bere txokoa aurkitu zuten irekita egon den hilabetetan.

Aiete Kultur Etxearen **10. urteurrena** ez zen ohikoa izan bizi izan dugun osasun egoeratik. Hala ere, azken urteotan egindako ibilbide oparoak hurrengo urteetan hazteko oinarri sendoa eman digu.



Aiete 10. urteurrena. Asier Iturrallderen ilustrazioa.



Jarduerak

	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	186	10.817
Antzerki emanaldiak	8	620
Dantza emanaldiak	0	0
Musika kontzertuak	3	156
Zine emanaldiak	23	559
Hitzaldiak eta mahai inguruak	8	495
Erakusketak	13	5.848
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	33	1.607
Liburutegiko jarduerak	22	501
Plus 55	0	0
Gaztelekua	18	210
Haurtxokoa	58	821
Bestelakoak	0	0

Zerbitzuak

	Bisitaldiak
GUZTIRA	33.259
Liburutegia	31.567
Ikasgela	0
Gaztelekua	577
Haurtxokoa	1.115
Kzgunea (Nabigazioak)	0
Altzako bilduma	0
Altzako bilduma web	0
DK Irratia web	0
<i>Ispilu Beltza</i> magazine-podcast	0
Bideo tailerra	0
Musikagela	0
Musika Eskola	0
Plus 55	0



Prestakuntza

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak	
GUZTIRA	116	53	712	
			577	135
2019-2020 IKASTAROAK	70	28	378	
Ikasturte osokoak (2019ko urria - 2020ko maiatza)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	31	7	61	12
Gaztelaniaz	30	17	208	47
Bigarren lauhilabetekoak (2020ko otsailean hasita)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	2	1	15	0
Gaztelaniaz	2	0	0	0
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	3	2	11	9
Gaztelaniaz	2	1	7	8
2020-2021 IKASTAROAK	46	25	334	
Ikasturte osokoak (2020ko urria - abendua)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	4	2	36	0
Gaztelaniaz	6	4	40	16
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	18	6	61	12
Gaztelaniaz	18	13	138	31
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	
Tailer, mintegi eta masterclassak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	0	0	0	
			0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	
			0	0

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 44.788



Altzathlon.

**ISPILU
BELTZA**
Irrati
magazina



CASARES / TOMASENE

2020. urteari alarma egoeraren ezohikotasunak eman zion jite berezia, gure zerbitzu eta **kultur jarduera asko eta asko geldiarazi baitzuten, bai eta kultur etxea aldi baterako itxiarazi ere, martxotik maiatzera bitarte**. Jarduera batzuk atzeratu, eta maiatzetik aurrera egin ziren; beste batzuk, berriz, segurtasuna zela eta, ezin izan ziren egin ikasturtean zehar.

Hala ere, Donostia Kulturaren antolakuntzak zenbait zerbitzu online jarri zituen martxan, hala nola **DK Irratia eta YouTubeko ikastaroak eta ipuin kontaketak**, besteak beste.

Eta maiatzetik aurrera, proiektu asko **berreskuratu eta kultur etxean bertan egin ahal izan ziren**: arte eszenikoetako eta musika saioak, irakurketa sustatzea, kultur jardunaldiak, kultur etxeko aretoak lagatzea inguruko erakunde eta elkarteei zerbitzua emateko, eta abar.

IRRATIA, CASARESKO IZARRA

2020an, **Donostia Kultura Irratiak, bere izaerari eutsi ez ezik, indartu egin** zuen, eta ingurukoaren eta hiriaren kultur leiho bihurtu zen (txikia bada ere). Inguruan duen kultur ekosistema zabalari begiratzen dion leihoa da, betiere kultura interesatzen zaienen ikuspuntutik.

Horretarako, eta hain egoera bitxian bizi baginen ere, eutsi egin zitzaion eguneroko **kultur magazinearen programazioari. Bestalde** programaren orde, zeina **Ion Olano Carlos** kazetari donostiarrak aurkeztzen baitzuen, **Oier Aranzabalen Ispilu Beltza** programa antenaratu zen. Programa horretan, kultura eta gaurkotasuna dira ardatz nagusiak.

Bestalde, irrati **ikastaroen** eskaintza (arlotan horretan eskarmentu handia duten profesionalen eskutik)

ugaria izan zen urtearen bigarren erdian. **Irrati ikastaroan**, esate baterako, ikasleek aukera izan zuten irratiaren alderdi anitz ezagutzeko eta ikasteko, Onda Vascako **Jose Joaquín Forcada Forki** eta **Sergio Errasti** profesionalen eskutik: lokuzio teknikak, gidoiak, alderdi teknikoa, eta abar. Eta gainera, arrakasta handia izan zuten **Maidor Gorostegiren Ahotsarekin jolasean** eta **Inko Martinen Radio-teatro** programek.

Hamaika Entzuteko! Irrati Piezen VI. Lehiaketaren sari banaketan, saritutako lanak ezagutzeaz gain, zuzenean gozatu ahal izan zen irrati-antzerkiak.

Donostia Kultura Irratiak Casares-Tomasene Kultur Etxetik emititzen du, **FM 107.4** sintonian, eta internet bidez ere bai irratia.donostiakultura.eus helbidean. Donostia Kultura Irratiaren webguneak programa grabatu guztiak eta **Donostia**



Kulturaren podcast asko eta asko gordetzen ditu, edonork berriro entzun ahal ditzan.

ALTZAKO TOKIKO BILDUMA

Altzako Tokiko Bildumak 19.204 dokumentu ditu katalogatuta (horietatik, 1.513 2020. urtean katalogatu ziren). Guztira, 15.601 dokumentu webgunetik kontsulta daitezke (2019an baino 1.620 gehiago).

Dokumentu bilaketa aldi historiko jakin batzuetan (Gerra Zibiletik hona) eta euskarri grafikoetan egiten da: lurraldearen dokumentazio historikoak, irudiak eta ikus-entzunezko lekukotzak, besteak beste. Dokumentu horiek katalogatuta daude, eta webgunetik kontsulta daitezke.

Bildumak gero eta zabalkunde handiagoa du urtetik urtera, eta gero eta ezagunagoa da. Funtsaren bisitari digitalak ere gero eta gehiago dira urtetik urtera. 2020an, 2019an baino 3.471 lagun gehiagok bisitatu zituzten funtsak online plataformatik. Guztira, 74.631 izan ziren (iturria: Google Analytics).



Heavy Jaia. Axxis.

Bestalde, Kontsulta Zerbitzuak zortzi ikertzaileekin jardun zuen elkarlanean, eta, hala, haiek sei artikulua eman zituzten argitara. Orobat, Bildumak lankidetzan jardun du Garbera merkataritza gunearekin, zeinak erakusketa bat antolatu baitzuen Intxaurrendoko auzoaz, baita Altzathlon-ekin ere. Biak izan zituzten bisitari ugari.

LARRATXO

2020an, **Larratxo Kultur Etxean bitartekaritza lana** egin genuen, bai eta **Mugmus Laborategiaren Garaiz: 60 t.m.** obra estreinatu ere, non auzoko zenbait ikastetxerekiko diziplinarteko lankidetzak aurkeztu baitzen. Parte hartu zuten, besteak beste, Oleta/

Harri-berri, Herrera eta San José de Calasanz ikastetxeek. Lanek, partehartzaileak baitziren, oso erantzun ona izan zuten ikasleen aldetik.

Musikaren arloan, programa hauetan parte hartu zuten taldeek bete egin zuten Larratxo Kultur Etxea: **Gabonak in Hell 1500 -Leize+Debler-**, **Heavy Jaia -Axxis + Regresion + Knights of Blood-** eta **Zombie Jaialdia -Väldemar + Etorkizun Beltza-**. Aretoak edukiera murrizketetara eta segurtasun neurrietara egokitu ziren, eta frogatu zen musika kultura segurua izan daitekeela, eta ikus-entzuleek jarraipena eskatzen dutela.



Sonakay.



Emakumeen Astea. Ausartak Taldea.



Erradikalak ginen. Ane Labaka + Beatriz Egizabal.

Plus 55 programak kultura eta hezkuntza jarduerak eskaini zizkien 2020an ere nagusiei. Besteak beste, **SexHitz** proiektua, zeinak helduaroko sexualitatea jorratzen baitu zenbait alderditatik. Egindako jarduerak harrera ona izan zuten, eta erreferente garrantzitsua izan ziren berriz ere auzoko talde honentzat.

Prestakuntzarako eskaintzak, iraupen desberdineko ikastaroen bitartez, bere betekizuna izan zuen 2020an ere: arlo sorta zabala eskaintzea herritarrei, baita topaguneak eta parte hartzeko lekuak ere. Kultur etxeko aretoak premia berrietara egokitu baziren ere, tailerretan parte hartu zutenen kopurua handia izan zen; erantzun mirezgarria eta positiboa.

Gizarteari interesatzen zaizkion gaiak, hala nola ingurumena,

genero berdintasuna edo hezkuntza, ardatz izan ziren Altzako elkarte eta erakundeekin batera antolaturiko jardueren zenbait ziklotan. Hala **Emakumeen Astea** nola **Hezkuntza Jardunaldiak** arrakasta handikoak izan ziren partehartzeari, interesari eta bildutako jendetzari dagokienez.

XIX. Bertso Aroan bertsolari ezagunek hartu zuten parte: **Aitor Sarriegi, Mainer Arregi, Nerea Elustondo** eta **Unai Iturriagak**. Haurrentzako ikuskizunei dagokienez, **Bertso Jasa, bat-bateko jolasa** egin zen; bertsoa eta flamenkoa biltzen zituen kontzertua, **Gorria, Miren Amuriza** eta **Askoa Etxebarrieta La pulgaren** eskutik; eta **Erradikalak ginen** antzerkia, **Ane Labaka** eta **Beatriz Egizabalen** eskutik.

Bereziki nabarmentzekoa izan zen jendearen erantzun ona, oso aintzat hartu baitzuen bertsoa Altzako auzoan.

Bi **liburutegietan**, irakurketa bultzatzearen eta jarduera partehartzaileen aldeko apustua egin zen berriz ere. Biek eutsi zioten mailegu zerbitzuari, bereziki beharrezkoa 2020. urtean. Erabiltzaile kopuruak berresten du liburutegiak erreferente direla auzoko bizitzan eta dinamikan.

Amaitzeko, nahitaezkoa da eskerrak ematea kultur etxe hauetan kultur programazioa garatzen parte hartu zuten erakunde eta elkarte guztiei; gure instalazioak erabiliz adierazi duten konfiantzak eta jarduerak antolatzen izan duten jarraipenak eta inplikazioak lagundu egin dute kultur etxeek auzoko kultur dinamizazioan ardatz izaten jarrai zezaten.



Jarduerak

	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	209	7.425
Antzerki emanaldiak	5	422
Dantza emanaldiak	0	0
Musika kontzertuak	0	0
Zine emanaldiak	1	60
Hitzaldiak eta mahai inguruak	3	245
Erakusketak	4	3.849
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	128	1.941
Liburutegiko jarduerak	57	654
Plus 55	11	254
Gaztelekua	0	0
Haurtxokoa	0	0
Otros	0	0

Zerbitzuak

	Bisitaldiak
GUZTIRA	152.376
Liburutegia	37.186
Ikasgela	0
Gaztelekua	0
Haurtxokoa	0
Kzgunea (Nabigazioak)	1.088
Altzako bilduma	59
Altzako bilduma web	74.631
DK Irratia web	22.014
<i>Ispilu Beltza</i> magazine-podcast	14.800
Bideo tailerra	0
Musikagela	0
Musika Eskola	2.506
Plus 55	92



Prestakuntza

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak	
GUZTIRA	319	121	1.040	
			726	314
2019-2020 IKASTAROAK	179	34	463	
Ikasturte osokoak (2019ko urria - 2020ko maiatza)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	3	0	0	0
Gaztelaniaz	4	3	13	6
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	43	2	17	8
Gaztelaniaz	37	23	240	109
Bigarren lauhilabetekoak (2020ko otsailean hasita)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	2	0	0	0
Gaztelaniaz	3	2	9	6
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	47	2	19	6
Gaztelaniaz	40	2	21	9
2020-2021 IKASTAROAK	57	23	280	
Ikasturte osokoak (2020ko urria - abendua)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	2	0	0	0
Gaztelaniaz	3	2	19	9
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	30	5	32	15
Gaztelaniaz	22	16	143	62
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	
Tailer, mintegi eta masterclassak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	15	9	41	
			28	13
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	68	55	256	
			185	71

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 63.191
(19.547 Casares + 43.644 Tomasene)



Jarduerak

	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	119	5.289
Antzerki emanaldiak	10	1.263
Dantza emanaldiak	1	290
Musika kontzertuak	5	1.035
Zine emanaldiak	4	202
Hitzaldiak eta mahai inguruak	1	83
Erakusketak	1	200
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	87	1.709
Liburutegiko jarduerak	8	57
Plus 55	2	450
Gaztelekua	0	0
Haurtxokoa	0	0
Otros	0	0

Zerbitzuak

	Bisitaldiak
GUZTIRA	11.296
Liburutegia	0
Ikasgela	0
Gaztelekua	0
Haurtxokoa	0
Kzgunea (Nabigazioak)	0
Altzako bilduma	0
Altzako bilduma web	0
DK Irratia web	0
<i>Ispilu Beltza</i> magazine-podcast	0
Bideo tailerra	0
Musikagela	0
Musika Eskola	0
Plus 55	0



Prestakuntza

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak	
GUZTIRA	225	53	688	
			473	212
2019-2020 IKASTAROAK	179	34	466	
Ikasturte osokoak (2019ko urria - 2020ko maiatza)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	3	0	0	0
Gaztelaniaz	4	3	13	6
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	43	2	17	8
Gaztelaniaz	37	23	240	109
Bigarren lauhilabetekoak (2020ko otsailean hasita)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	2	0	0	0
Gaztelaniaz	3	2	9	6
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	47	2	19	6
Gaztelaniaz	40	2	21	9
2020-2021 IKASTAROAK	46	19	222	
Ikasturte osokoak (2020ko urria - abendua)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	1	0	0	0
Gaztelaniaz	2	2	19	9
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	26	5	32	15
Gaztelaniaz	17	12	103	44
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	
Tailer, mintegi eta masterclassak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	0	0	0	
			0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	
			0	0

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 27.114
(11.296 liburutegia + 15.818 K.E.)



El Festín de los Cuerpos. Danza Mobile.

2020. urtea bi etapetan banatu zen: urtarrilean hasi, martxoan etena etorri, eta irailean berrekin zitzaien. Une oro, kultur eragileen, elkarten eta, batez ere, Egia Kultur Etxearen erabiltzaileen jokaera eredugarria izan da.

Gorabeherak gorabehera, hala kultur etxean nola auzoan eskainitako jarduerak eta zerbitzuek benetako babesa izan zuten urteotan modu aktibo eta dinamikoan haietan parte hartu duten pertsonen aldetik.

Emakumeek kooperatiba palestinoetan duten egoerari buruzko argazki erakusketa



JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

Tailerrek eta ikastaroek oso harrera ona izan zuten, aurreko urteetan bezala. Adin guztietako parte-hartzaileak egunero etorri ziren zenbait arlotan parte hartzera: yoga, joskintza, DJ, dantza garaikidea, marrazkia edo kakorraz-lana, besteak beste.

Liburutegia, berriz ere, eta modu berezian 2020an, erreferentziazko lekua izan zen. CD, DVD eta liburuen mailegu zerbitzua ere funtsezkoa izan zen. Jardueretara ere jende asko etorri zen, interes handiz: literatur solasaldiak, irakurketa errazeko lantegia, liburu aurkezpenak (hala nola **Itxaro Bordaren Boga Boga** edo Ipuinaren Orduaren proiektu berria, **Zeu irakurle, Gu kontalari**)... Denetan izan zen nabarmena irakurzaileen presentzia.

Musikagela zerbitzuan ia 40 musika talde izan ziren, eta soinuz bete zuten kultur etxeko beheko solairua. **Susmara** taldeak

Escarcha bere bigarren singlearen bideoa grabatu zuen entsegu aretoetan. Erreferentziazko lekua izaten jarraitzen du Donostia osoko musikazaleentzat.

Zailtasunak zailtasun, **Plus 55ek** eutsi egin zion bere jardunari. Tailerrak eskaintzeaz gainera, **ON DO KORI** eutsi zion, komunitatearentzako dantza eta antzerki proiektuari, **Mafalda Saloio**ren eskutik. Ahal izan zen heinean, esperientzia horretan parte hartzen dutenen lankidetzari esker, dinamika online eskaini zen martxotik ekainera bitarte. Oso harrera ona izan zuen jarduerak, eta oso balorazio onak izan zituen.

ANTZERKIA ETA DANTZA

Bestalde, oso babes handia izan zuen Euskal Antzerkiaren programak: **Artedrama, Axuti!, Dejabu Panpin Laborategia, Xake Produkzioak, Aldatzen Laguntzen Antzerki Taldea eta Amancay** eta **Iraia Elias**. Programazioak testuaren eta aktore lanaren aldeko apustua



Lü. Maduixa.

egin zuen. Funtzio guztietan izan zen sarrera salmenta, eta batzuetan leku guztiak bete ziren.

Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiko sorkuntza lehiaketako bi lan irabazleak, **Matriuska** eta **Esnatu naiz**, auzoko bi areto enblematikotan eman ziren, **La Taberna de Aitor** eta **Le Bukowski**-n. **Egiatarrak** erretiratu elkarteko kideek bat egin zuten jaialdiarekin, eta **Noemi Ruiz** eta **Asier Hormazaren** umoreaz gozatu zuten.

Ttan Ttakun Irrati Festak 17. edizioa egin zuen, eta parte-hartze handia izan zen hala jendearen nola taldeen aldetik: Koban, Unidad Alavesa, Dogo, Bullet Proof Lovers, Señor no Sarkastic, Lola Mento, Lanbroa (Teknosis), Azken Dantza, Emesutan + Pemaulk, Kokonauta + R.K. Mari. Askotariko estiloak, eta gaurkotasun handikoak denak ere.

Dantzari dagokionez, 2020an ospe handiko konpainiak izan genituen. Urtean zehar, jarraipena izan zuten egonaldiaren programak eta sorkuntzari laguntzekoak, eta kultur etxean estreinaldiak eta jarduera paraleloak eskaini ziren. Dantza, beraz, apustu handi eta erabatekoa izan zen **Gazteszenaren** programazio barruan, eta erreferente bihurtu zuen gure agertokia dantza garaikidearen arloan.

La intrusa (Espainiako Dantza Sari Nazionala 2015ean), **Lasala, Osa + Mujika, Adriana Bilbao, Daniel Abreu** (Espainiako Dantza Sari Nazionala 2014an), **Danza Mobile,**

Brodas Bros, Maduixa (Feten saria 2020an), **Iron Skulls, Marco Vargas & Chloé Brûle, Elirale, Ertza** eta **Sharon Fridman.**

Mark Jürgen andoaindar artistak, zeina Islandian bizi baita, argazki eta poesiako erakusketa bat aurkeztu zuen, **I Miss the Days Chasing Lights** izenekoa. **Aurora Bengoetxearen** lan grafikoaren eta paper gaineko



Burdina. Adriana Bilbao.



Losser. Osa + Mujika.



Zaldi Urdina. Artedrama + Axut! + Dejabu.



Birritan bortxatua. Aldatzen Laguntzen Antzerki Taldea.

margolanen atzera begirakoaz gozatzeko aukera izan genuen, baita argazki erakusketa bikain batez ere, zeinaren bidez emakumeak kooperatiba palestinoetan duen egoera ezagutu baikeuden.

2020. urtean, inoiz baino gehiago jardun genuen talde lanean, eta indartu egin genituen Egia auzoko erabiltzaile eta elkarteekiko harremanak. Horren adibide argia da **Euskaraldia** ospatzeko aurkeztu zen programa, auzoko **Egia Euskaraz** eta **Egia Bizirik** elkarteekiko lankidetzan. Bertan, **Txirri, Mirri eta Txirribitonek *Bart, non ote nintzen?*** lana estreinatu zuten Gazteszenan, **Karmele Jaiok *Aitarene etxea*** aurkeztu zuen, eta **Rafa Rueda** musikariak ***Hitzen ahaire*** ikastaroa eman zuen. Programa **Xabier Artieda** aktore gazteak osatu zuen, ***Zaldi urdina*** eta ***Matriuska*** antzezlanen testuak jokatuz (oraingoan, antzokira egokiturik) eta ***Zeu irakurle, Gu kontalari*** programakoak.

Egia Kultur Etxean, positiboki baloratzen dugu 2020. urtea, eta uste dugu erabiltzaileak ere, eta bereziki **Gazteszenara** etorri ziren ikus-entzuleak, bat datozela gurekin. Urte horretan, gainera, kultur exean lehentasuna izan zuen eragile, konpainia eta kultur

kolektiboei babes emateak. Konpromisoa, profesionaltasuna eta eskuzabaltasuna ezinbesteko izan ziren gizarte eta kultur dinamika gozagarria garatu ahal izateko. Horrek lagundu digu aurrera egiten, eta irakatsi digu proiektu berriei begira jartzen.





Jarduerak

	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	319	9.886
Antzerki emanaldiak	26	2.433
Dantza emanaldiak	19	2.030
Musika kontzertuak	1	700
Zine emanaldiak	7	197
Hitzaldiak eta mahai inguruak	1	25
Erakusketak	3	1.037
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	133	1.290
Liburutegiko jarduerak	75	933
Plus 55	7	758
Gaztelekua	46	433
Haurtxokoa	0	0
Bestelakoak	1	50

Zerbitzuak

	Bisitaldiak
GUZTIRA	13.828
Liburutegia	9.708
Ikasgela	720
Gaztelekua	1.239
Haurtxokoa	0
Kzgunea (Nabigazioak)	1.183
Altzako bilduma	0
Altzako bilduma web	0
DK Irratia web	0
<i>Ispilu Beltza</i> magazine-podcast	0
Bideo tailerra	0
Musikagela	882
Musika Eskola	0
Plus 55	96



Prestakuntza

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak	
GUZTIRA	276	221	1.891	
			1.464	427
2019-2020 IKASTAROAK	54	34	549	
Ikasturte osokoak (2019ko urria - 2020ko maiatza)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	30	14	168	33
Gaztelaniaz	24	20	314	34
Bigarren lauhilabetekoak (2020ko otsailean hasita)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
2020-2021 IKASTAROAK	36	30	346	
Ikasturte osokoak (2020ko urria - abendua)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	18	12	120	13
Gaztelaniaz	18	18	190	23
IKASTARO PUNTUALAK	8	4	28	
Tailer, mintegi eta masterclassak				
Euskaraz	5	2	5	5
Gaztelaniaz	3	2	4	14
KZgunea IKASTAROAK	22	15	64	
			30	34
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	156	138	904	
			633	271

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 55.451



Belén Gopegui.



Lucía Baskaran.

Zalantzarik gabe, 2020. urtea pandemiak markaturiko urtea izan zen Ernest Lluch Kultur Etxearentzat ere, beste edozeinentzat bezala. Baina hala eta guztiz ere, kultur etxeak funtsezko lan ildoak eutsi ziren, egokitzeko ahalegin handia eginda.

PROGRAMAZIOA

Horren adibide ona izan ziren **aurrez aurreko ikastaroak**, martxoan eten eta ondoren **online jarraitu baitzuten**. Hain zuzen ere, Ernest Lluch ikastaro gehien eta ikasle gehien izan zituen kultur etxea izan zen berriz ere 2020an. Zailtasunak zailtasun (oraindik ere baditugu batzuk) 2020-2021 ikasturterako izen-emateak beste urte batzuetakoen parean ibili ziren kopuruen aldetik: 1.000 lagunek baino gehiagok eman zuten izena kultur etxeko ikastaro eskaintza zabalerako.

Pandemia aurreko hilabeteetan, Ernest Lluchek fin eutsi zion **literaturaren eta eztabaida garaikidearen** aldeko apustuari. **Belén Gopegui** eta **Lucía Baskaranek** liburu bana aurkeztu zuten, eta **Alex Grijelmo** hizkuntzalariak hizkuntzaren eta feminismoaren arteko loturez jardun zuen **María Silvestre** irakasle eta Emakundeko zuzendari ohiarekin.

Otsailean, **Korner Kultura & Futbol Festivalaren** hirugarren edizioa egin

zen, normaltasunez egin ere. Proiektu bitxia, Donostia Kulturaren eta Real Sociedaden artean antolatua eta egina, eta pixkanaka sendotuz doana, kulturaren eta futbolaren arteko harremanez interesa duen jende sail bat beretuz doana.

2020an, **Kornerrek** gonbidatu nabarmenak izan zituen berriz ere, hala nola **María Botto, Roberto Olabe, Judith Jáuregui, Javier Aizpurua, Benjamín Prado, Santiago Cañizares, José Luis Garci** edo



Korner Festivala.



Manuel Vilas. Horiek solasean jarri, eta talentuaz, futbolari lotutako poesiaz edo atezainaren irudiaren magiaz jardun zuten. Kornerren jarduera guztiak, bai edizio honetakoak eta bai aurrekoetakoak, eskura daude festibalaren webean (www.kornerfestibala.eus).

Otsaila izan zen **Poltsiko Antzerkiaren** hilabetea ere. Tabernak bete zituen proposamen eszeniko jostagarri eta abangoardistei esker, urtetik urtera handituz doan jende kopuruaren gozamenerako. **Belén Cruz** eta **Mila Espigaren** *Anarkía relacional*; **Barry Barrezen** *Irlandar eta euskaldun*; eta **Sol Maguna** eta **Gemma Martínez**en *Monolokos* izan ziren Amarako tabernetan programaturiko antzezlanak.

Baina pandemia etorri, eta kultur etxea itxi behar izan zen hilabete batzuetan, eta **horrek galarazi zuen Poesialdiaren beste edizio bat egitea.** Donostiako Poesia Astearena alegia, programa iragarrita zegoen arren. Hein batean, udazkenean berreskuratu ahal izan zen; esate baterako, **Antonio Colinas**i elkarrizketa, zeina gure garaiko poeta handienetako bat baita gaztelaniaz, baita **Amalia Iglesias** poeta eta editorearena ere.

Azaroan, berriz, Ernest Lluch Kultur Etxearen urteko apustu etako bati berrekin zitaiaon: **Bigara (Itziar Aranburu eta Jon Ander Garcia)** artista bikotearen **Abereba** erakusketaren ekoizpena, izen bereko palindromo liburuan oinarritua. Erakusketaren inaugurazioan, palindromo performancea egin zuten bi artistek, eta sorkuntza proiektu horren potentzial handia jarri zuten agerian.

Eta 2020an ezin nabarmendu gabe utzi ekitaldi berezi-berezi bat: **Ernest Lluchi eta hark emandakoari egindako omenaldia, ETak hil zuela 20 urte bete zirenean.** Abenduaren 10ean, Joan Esculies, Enric Lluch eta Odón Elorza aritu ziren solasean intelektual eta politikari katalanaz, zeinak oso harreman estua izan zuen Donostiarekin.

Bestalde, esan beharrekoa da ezen, itxita egon behar izan zuen hilabeteetan izan ezik, Ernest Lluch Kultur Etxeak martxan izan zituela bere ohiko programak 2020an ere, hau da, haurrentzako antzerkia, zinekluba edo literatur solasaldiak.

ZERBITZUAK

Kultur etxeak eskaintzen dituen **zerbitzuei** dagokienez, liburutegia izan zen berriro bihotza, zalantzarik gabe; pandemiak ekarritako zailtasun ugariak gainditu zituen, zerbitzuak eta programak unez unez egokituz, betiere ahalik eta jardun handienari eusteko helburuarekin. Eta hori ez ezik, kultur etxea ekainaren hasieran berriro ireki zenetik, konfinamenduaren

ondoren, Ernest Lluch-eko liburutegiak ekinbide berriak jarri zituen martxan, hala nola: **Zeuren irakurle, Gu kontalari,** Lehen Hezkuntzan irakurketa sustatzeko programa; mintzalagunak, euskara praktikatzeko taldeak; zenbait buletin eta irakurketa ohar; edota **Amaraura** atalaren garapena, Amarako auzoaren oroimenari eta historiari buruz, **DonostiaTEKA** proiektuaren barruan, Donostiako Liburutegi Zerbitzuaren bultzadaz.

Plus 55 zerbitzuak ere berrekin zion udazkenean, eta merezi du nabarmentzea **Aztarnak** kontakizun laburren lehiaketaren edizioa, zeinak inoiz baino original gehiago jaso baitzituen 2020an. Adinekoentzako literatur sorkuntzako proiektu bat da, zeina hazten ari den lau edizio egin eta gero.

Amaitzeko, aurki irekiko dira berriro Haurtxoko eta Gazteleku zerbitzuak egun duten kokagunean, Olaeta parkean; eta aurrera doaz instalazio berriak egokitzeko lanak ere, Ernest Lluch Kultur Etxearen aldamenean.

Esandako guztiari esker, erabiltzaileak ere eta gero eta gehiago ari dira etortzen, urriaren hasieran zerbitzuak eta programak osorik berrezarri zirenetik. Erantzun horrek baikortu egiten gaitu geroari begira, eta sinetsita gaude laster utziko ditugula atzean pandemiaren hilabeterik zailenak.



Lehen amodioa. Agerre Teatroa.



Jarduerak

	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	367	9.681
Antzerki emanaldiak	10	728
Dantza emanaldiak	0	0
Musika kontzertuak	0	0
Zine emanaldiak	15	475
Hitzaldiak eta mahai inguruak	10	466
Erakusketak	4	2.514
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	84	973
Liburutegiko jarduerak	101	1.023
Plus 55	46	2.217
Gaztelekua	43	594
Haurtxokoa	54	691
Otros	0	0

Zerbitzuak

	Bisitaldiak
GUZTIRA	54.723
Liburutegia	48.424
Ikasgela	0
Gaztelekua	948
Haurtxokoa	1.085
Kzgunea (Nabigazioak)	3.481
Altzako bilduma	0
Altzako bilduma web	0
DK Irratia web	0
<i>Ispilu Beltza</i> magazine-podcast	0
Bideo tailerra	0
Musikagela	0
Musika Eskola	0
Plus 55	785



Prestakuntza

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak	
GUZTIRA	237	163	2.112	
			1.503	561
2019-2020 IKASTAROAK	83	47	1.044	
Ikasturte osokoak (2019ko urria - 2020ko maiatza)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	1	0	0	0
Gaztelaniaz	8	7	293	134
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	28	10	123	21
Gaztelaniaz	26	22	279	72
Bigarren lauhilabetekoak (2020ko otsailean hasita)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	2	1	5	5
Gaztelaniaz	3	2	21	6
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	8	0	0	0
Gaztelaniaz	7	5	56	29
2020-2021 IKASTAROAK	51	37	718	
Ikasturte osokoak (2020ko urria - abendua)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	1	0	0	0
Gaztelaniaz	10	10	288	104
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	19	7	58	6
Gaztelaniaz	21	20	202	60
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	
Tailer, mintegi eta masterclassak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	46	27	115	
			54	61
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	57	52	235	
			124	63

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 112.472



Sex Museum. Musikagela Weekend.

2020 zatitu zuen pandemiak, "aurretik" eta "ondoren" hitz errepikakorrak bihurtu arte. 2020ko jarduna ere hala kontatu behar. 2020ko gertakizunek hitzei esanahi berria eman zieten eta gure jardueren dinamika berrasmatzera eraman gaituzte, hala ere **musikak** jarraitu du izaten Intxaurren Kultur Etxeko enbaxadore nagusia.

Musikari dagokionez 2020 gogotsu hasi zen, kontzertuek areto handia betetzen zutela. Horren lekuko urteko lehen kontzertua, **Los Zigarros** eta **Radiocaster**, hasieratik salak beteta, talde nagusiaren zein aurreko taldearen arrakasta islatuz. Hala jarraitu zuen otsailak **Musikagela** zerbitzuaren **10. urteurrena** ospatzeko egitasmoari buruzko erakusketarekin eta

kristoren kontzertuarekin **Sex Museum** buru eta **The Blackfeet + Glory Howl** talde gonbidatuekin.

Otsailak ere **Izaro** abeslaria jaso zuen, Intxaurren Kultur Etxean egonaldi bat egiteko, **Limones en invierno** gira prestatzeari begira. Lauazetako ikasleek egitasmoan parte hartzeko aukera paregabea izan zuten.

Ondorengo kontzertuak ere arrakastatsu zetozen, otsailerako sarrera agortuak zituztenak baziren **ETS** bezala, baina pandemiak sala betetzea eragotzi zuen. Horren ordez, lehendik egindako lana sarean ezagutarazi zen: **June Calsor** artistak Intxaurren Kultur Etxean grabatutako bideoa sareetan estreinatu zuen martxoaren bukaeran, eta aurrerago sareek ere ezagutarazi zuten **Izaro** abeslariak Lauazetako ikasleekin eginiko topaketaren bideoa. Zirkunstantzia berri haietan ere Intxaurrendoko ezaugarria



Grises.

Izaro.



agerian geratu zen: **aritutakoak zein hasiberriak jasotzea.**

Kultur etxeko atea berriro irekitzearekin batera, udazkenean Intxaurrondok zuzeneko kontzertu eskaintzari heldu zion, egoera berriari egokituta, Covid-19ari aurre egiteko neurriak ziurtatuz. 2020aren bukaeran *sarrerak agortuta* kartela beste esanahi bat izan arren, Intxaurrondo Kultur Etxeak musikarako aukera paregabe izaten jarraitzen zuen: publikoak berriz ere gogotsu erantzun zuen udazkenean.

Irailean, **Donostia Festibalak Urban Jaialdiaren** bidez **Foyone** raperoa jaso zuen. Urriari Donostikluba Festibalak bi eguneko agortu zituen salako sarrerak. Ostiralean, auzoak bertako semea indarrez jaso zuen eta **El Negro, Triku**ekin batera, aritu ziren. Bi kontzertu hauek argi utzi zuten musika entzuteko bide berriak badirela eta Intxaurrondo Kultur Etxeak horretan baduela zer eskaini. Larunbatean **Chaqueta de Chándalek** irekita, **Grisés** taldeak kontzertu ederra eman zuen, bertako publikoaren gozamenerako.

Revolution Jamrock Donostia Reggae Festival-ak bere burua berrasmatu zuen reggae zaleei dagokien eskaintza emateko



Sara Zozaya.

apustua eginda: azaroan **Revolution Jam Rock Live** formulak **Emeterians & Forward Ever Band**-en zuzeneko itzela eman zion. Abenduan **GabON Reggae** formularekin *sound system* estiloan tokikoari ere espazio ederra emanez, **Revolutionary Brothers** bikotea anfitrioi.

Dkluba zirkuituan ere **Sara Zozaya** azaroan aritu zen, salan berriz ere *sarrerak agortuta* kartela jarrita.

Urriak ere jaso zuen **Izaro** bigarren aldiz, otsailean egindako egonaldiari jarraipena emanez, **Limones en invierno** birari hasiera emateko. Oraingoan bai **Izarok** Donostian kantatzea lortu zuen eta Intxaurrondo Kultur Etxearen lana gorpuztuta geratu zen, nahiz eta pandemiak bestelako elkarlanak zapuztu.

Intxaurrondoko aretoak 2020 urteari amaiera eman zion **Skakeitan** taldearekin, Gazteria Sailarekin batera antolatuta eta **Beste bat!** programaren baitan. Eta, nekatu gabe, aipatuko dugu berriz ere *sarrerak agortuta* kartela jarri genuela.

Emeterians.

Ezin itxi musikaren kapitulua **Musikagela** zerbitzuaren garapena aipatu gabe, Intxaurrondoko Musikagela zerbitzua kultur etxeak musikari egiten dion ekarpenaren parte inportantea baita. **Entsegu gelak** egoera berrira egokitu ondoren, nabarmendu behar da **entseguak egiteko eskaeraren igoera**, zirkunstantzien eraginez. 10. urteurrena ospatzeko egindako lanak bere fruituak eman zituen, publiko berriengana ailegatuz. Erakusketak harrera ona izan zuen eta bertan jartzeko prestatu ziren materialei zukua atera zitzaien ikusgarritasuna emanez (kartelak, mezuak...).

Aipatu moduan, tokiko taldeak eszenaratzeko aukera lantzen da Musikagelaren bidez. Urte hasierako emaitza onek pandemiak bere horretan utzi zituen arren, beste lan batzuei heltzeko aukera izan zen: Musikagelak Larrotxene Bideo egitasmoari egiten dion ekarpena, elkarlanaren bidez off-eko ahotsak grabatzen baitira. Segurtasuna mantenduz, formazioak eta aholkularitzak bere espazioa izan zuten Musikagelaren atea irekita izan ziren bitartean. Ondorioz, bi ikastaro aurrera atera ziren





Ekain Zubizarreta Ibiltari Astea.

(Grabación con ordenador eta Introducción Ableton Live).

Kultur etxearen eta auzoaren arteko elkarlanean dagokienez, emaitzak ere izan ziren konfinamenduaren aurretik, hala nola, **Emakumeen Astea**, talde zahar eta berriekin elkarlanean. Otsailean ireki zituen ateak **Zita Ayalaren** erakusketak, bisitari ugari izan zituena Emakumeen Astea bertan ateak itxi arte. Jardueren programa euskaraz hasi zen eta musikarekin bukatu, publiko berriak eta ohikoak bilduz *emakumeak eta artea* leitmotivaren inguruan.

Pandemiak ez zuen harremanak moztea lortu, eta geroa antolatzen eta denbora horretan berau berrasmatzen aritu zen Intxaurren Kultur Etxeko taldea, elkarlanek udazkenean argia ikusi zuten arte.

Ibiltari Aste desberdina izan zen 2020koa udaberrietik udazkenera pasatzerakoan, kontzentratuta, zirkunstantziak jarritako mugak tarteko, baina zapore ederra utzi zuena aurrera jarraitzeko, hizkuntza eta eskarmentu desberdinak

uztartuta: **Ekain Zubizarreta, Felipe Uriarte eta Bego García** kideen eskutik esperientzia paregabeen berri jaso genuen.

Euskaraldia ekimenak, Intxaurrendoko mugak gaindituta, arigune desberdinak jaso zituen 2018aren antzera. Intxaurren Kultur Etxean hiru arigune sortu, eta Larrotxenerekin batera, berriro euskara *praxi* kolektiboan jarri du. Une goxoak utzi zituzten auzokideen arteko topaketek irekiera eta itxiera egiterakoan, eta ikusgarriena: **Pirritx, Porrotx eta Marimotots** pailazoen ikuskizuna edo Lauazetako gazteak **Eñaut Elorrieta** eta **Mikel Markezekin** bilduta.

Bestalde, kultur etxearen bitartez, Donostiako beste hainbat auzo eta kultur etxeekin batera garatzen diren egitarau bereziek Intxaurren izaten dute leku propioa. 2020an **Poltsiko Antzerkiaren** jaialdia eta **dFeria** izan ziren konfinamenduaren aurretik programa ederrak **utzi** zituztenak. **Qué contamos cuando contamos!** lana **Centro Extremeñoak** jaso zuen eta



Euskaraldia.

jaialdiaren azken festa-emanaldia ezohiko moduan Intxaurren egin zen. Intxaurren Kultur Etxeko areto nagusiak dFeria hiru lan jaso zituen: **¿Cómo hemos llegado a esto?, ¡Ave osos! eta Oymyakon habitación 101.**

2019-20 ikastaroen garapena eta 2020-21 ikastaroen eskaintza baldintzatua geratu ziren konfinamenduaren ondorioz. 2019-20 epeari dagokionez, nobedade handia izan zen eskaintza digitala egitea. 2020-2021 epeari dagokionez, eskaintza mugatua geratu zen, espazio egokiak ziurtatzea helburu, baina arlo desberdinak garatzea





Gerezi garaia komikiaren erakusketa.



Lucio Urtubiaren bizitzan oinarritua dago.

lortuta (yoga, sendabelarrak, mindfulness, baratza, bizikleta...).

Lehen hiruhilekoan ohiko jarduerari heldu zion **liburutegiak**, 2019-20ko programazioaren dinamikarekin jarraituz: **literatur solasaldiak, komikiei buruzko solasaldiak, Ipuinaren Ordua eta Liburu Baby Kluba** jarduerak. Nobedadeak ere izan ziren. Komiki sail inportantea dago Intxaurren Kultur Etxeko liburutegian. Konfinamenduaren aurretik ohiko solasaldiez gain, urtarrilean Argentinako errealitatea ezagutzeko parada izan genuen **Iñaki Echeverria**ekin. Eta otsailan, **Unrwa Euskadi**ekin elkarlanean **Ainara Azpiazu Axi** ilustratzaileak Palestinari buruzko hurbilpen soziala egin zuen, marrazkien bidez, auzoko gaztetxoekin.

2020ko martxoaren hasieran, **Mikel Santos Belatz**-en **Gerezi Garaia** komikiari eskainitako solasaldiarekin batera, **Kike Infamek** prestatutako erakusketa inauguratu zen. Belatzen eleberrigrafiakoa **Lucio Urtubia** anarkista nafarraren bizitzan oinarrituta dago eta erakusketan komikiaren sormen prozesua garatzen zuten panelak ikusgai

zeuden. Erakusketaren programaren baitan ere **Lucio** dokumentalaren proiektioa iragarri genuen **Moriarti** taldekideekin, **Jon Garaño**k gidatuta. Horrekin batera, Espainiako anarkismoari buruzko irakurketa-gida bat prestatu genuen liburutegian. Konfinamenduak, baina, eten zuen jarduera. Uda ostean erakusketa berreskuratu zen, ez aldiz proiektioa.

Liburutegiak ekainaren lehen berriz ireki zituen ateak maileguarekin. Gutxinaka eta aforoak egokituta, zerbitzuak aurrera egin zuen.

Helduen jarduerari dagokienez, konfinamenduaren ondoren **Komikien tertuliako saioak (Igor Leturiaren eta Juan Manuel Díaz de Guereñuren eskutik)** eta **Plazara Goaz-ekin** elkarlanean egiten diren solasaldiak udazkenean berreskuratu ziren. Eta Intxaurren Berri Emakumeen Elkartearekin **Mujeres de libro** programa Kultur Etxean garatzen hasi zen.

Umeen jarduerari dagokienez, **Iosu Mitxelenak** komikien sorkuntzari buruzko ilustrazio tailerra, Liburutegien Eguna gogoratzeko, jarduera arrakastatsua

izan zen, eta abenduan Euskaraldiaren testuinguruan errepikatuzeko aukera egon zen.

Ipuinaren Ordua ere egoera berrira egokitu eta 6 urtetik gorakoentzako **Zeu irakurle, Gu kontalari** programa urrian hasi zen.

Haurtxoko eta **Gazteleku** zerbitzuei dagokienez, aktibitatea lehen hiruhilekora mugatua geratu zen. Ez aldiz **Plus 55** zerbitzua, urriaren erditik aurrera fase berriari helduz zerbitzua ireki eta gutxinaka programak berreskuratzen joan baitzen.

Kultur etxeak dituen aretoen eta ekipamenduen erabilera gero eta inportanteagoa izan da azkeneko urteetan; 2020an are gehiago konfinamenduaren bueltan, mota guztietako elkarteek eta erakundeek beren dinamikari eusteko garaian. Horrela, oso programa desberdinen habia izan zen Intxaurren doko zentroa: **Indarkeria matxistak nerabezaroan IV** jardunaldiak, **Intxaurren Berri Emakumeen Elkartearen** jardunak, **Eskukadak** liburuaren aurkezpena, eta beste hamaika bilkura.



Jarduerak

	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	467	11.323
Antzerki emanaldiak	10	1.136
Dantza emanaldiak	0	0
Musika kontzertuak	12	1.617
Zine emanaldiak	1	65
Hitzaldiak eta mahai inguruak	4	165
Erakusketak	66	1.256
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	219	3.430
Liburutegiko jarduerak	59	829
Plus 55	11	430
Gaztelekua	61	1.282
Haurtxokoa	21	1.081
Bestelakoak	3	32

Zerbitzuak

	Bisitaldiak
GUZTIRA	32.613
Liburutegia	31.921
Ikasgela	0
Gaztelekua	0
Haurtxoko	0
Kzgunea (Nabigazioak)	0
Altzako bilduma	0
Altzako bilduma web	0
DK Irratia web	0
<i>Ispilu Beltza</i> magazine-podcast	0
Bideo tailerra	0
Musikagela	583
Musika Eskola	109
Plus 55	0



Prestakuntza

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak	
GUZTIRA	51	14	322	
			227	95
2019-2020 IKASTAROAK	33	10	165	
Ikasturte osokoak (2019ko urria - 2020ko maiatza)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	1	0	0	0
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	9	3	33	12
Gaztelaniaz	7	6	72	36
Bigarren lauhilabetekoak (2020ko otsailean hasita)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	15	0	0	0
Gaztelaniaz	1	1	10	2
2020-2021 IKASTAROAK	18	11	157	
Ikasturte osokoak (2020ko urria - abendua)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	1	0	0	0
Gaztelaniaz	3	2	8	8
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	9	4	39	13
Gaztelaniaz	5	5	65	24
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	
Tailer, mintegi eta masterclassak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	0	0	0	0
			0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0
			0	0

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 57.035



Erradikalak ginen. Ane Labaka + Beatriz Egizabal.

“**A**urretik” eta “ondoren” ezinbesteko hitzak bihurtu zaizkigu 2020ko kontakizunak egiteko. Larrotxeneko jarduna pandemiak zatituta geratu zen, noski.

Larrotxene Kultur Etxeko hormak gainditu ditu bertako **Bideo** egitasmoak. Eskaintza formatiboa, ekoizpena ailegatzeko laguntzak eta proiektua hedatzeko gaitasuna izan ziren berriz ere Larrotxene Bideo egitasmoaren arrakasta. 2020ak eman zizkigun oztopoak aukera bihurtu eta Larrotxene Bideok, bertsio **digitalean** ere, arrakasta ezagutu zuen, egoera berrietara ohitzeko duen trebetasunarekin eta bere inguruan mugitzen den komunitate bizian oinarrituta.

Zerbitzu garrantzitsua beti izan da **materialaren lagapena**. Horren bidez ekoizpen propioak zein elkarlanak aurrera eramaten baitira.

Konfinamendu aurretik 12 lagapen izan ziren eta, jakina, dinamika moztu zen martxoaren erdian, ekoizpen batzuk bertan behera geratuz. Aholkularitza eta laguntza telematikoki ematea lortu zen, aldiz, eta pandemiak ez zuen lortu zerbitzua guztiz etetea. Ondoren, indartsu hasi zen zerbitzua eta 7 proiektu desberdinetan parte hartu zuen, 17 lagapeneri esker. Horrela, Larrotxene Bideok parte hartu zuen **Museo Bikoitza** egitasmoan, San Telmo **Museo**arekin elkarlanean.

Aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea izan zen konfinamendu aurretik, bitartean eta ondoren Larrotxene Bideok eman zuen zerbitzu garrantzitsua. Pandemiak moduak aldatu zituen, baina ez kalitatea. Aurretik eta ondoren 361 (%68 emakumeak) pertsonak parte hartu zuten bertan, fase berrian alde aurretiko hitzordua ezarrita. Kolaborazioetan ere aipamen berezia behar du **Musikene**rekin egindakoak: Larrotxenetik 5

pieza eta erreportaje bat egin ziren **Musikene**rentzat.

Konfinamendu aurretik 39 ikaslek parte hartu zuten **Ander Iriarteren Fikzio Zuzendaritza eta Aktoreekin Lana**, Iñaki Sagastumeren **Producción Audiovisual** eta **Laurent Dufrecheren Teoría del Montaje** ikastaroetan. **Michel Gaztambideren Guión Avanzado** ikastaroa arrakastatsua pandemiak bururaino eramatea eragotzi zuen arren, Larrotxene Bideok mintegi arrakastatsu bat egitea lortu zuen berarekin, eta 35 partehartzailek film labur bat aztertzeko beste modu bat izan zuten. Udazkenean 2020-21 ikasturteari martxa heldu zitzaion **Andoni De Carlosen Gidoigintza hastapena** ikastaroarekin.

Bideoaldia izan da urtero ikasturte osoko lan isila ikusgarri bihurtzen duena. 2020ko edizioa guztiz berezia izan zen, konfinamenduaren ondorengo lehen ekitaldia izan baitzen kultur etxean, Antzoki



Zaharrearren garatu arren. Aipagarria da horra ailegatzeko Larrotxene Bideo egitasmoko taldeak eginiko lana, bereziki konfinamendu garaian. Ekoizpenak izatea ezinezkoa iruditu arren, emanaldi sorta polita (7 lan), ikus-entzunezko aurkezpen umoretsua eta guzti lortu zuen Larrotxene Bideok.

Bideoaldia berritzailea ere izan zen, online egiteko aukera eskainita eta emanaldi osoa ikus-entzunezko eredu desberdinez baliatuz prestatuta (animazioak, grabazioak, bideokonferentziak...). Horrela, bertan 180 pertsonen eta etxetik beste 86k parte hartu zuten. Bideoaldiak urterokoari heldu zion Zinemaldian presentzia izatea lortuta 2020 desberdin horretan.

Nobedadea izan zen 2019an sortu zen **Oihua!** egitasmoak 2020ko udaberriaren garatu, udan grabatu eta produzitu eta udazkenean argia ikusi zuen **Zerua hautsi zen gaua**

OIHUA!

lana, Donostiako Fantasiatzako eta Beldurrezko Zinemaren Asteak, Donostiako Sustapena - Gipuzkoa Film Commisionek eta Gazteak bultzatuta. 8 hilabeteko lana, oso baldintza zailtan egindakoa eta Larrotxene Bideoko kideei esker gauzatua.


Konfinamenduan zehar praxi digitalak hartu zuen garrantzia ez zuen ustekabeen harrapatu

Larrotxene Bideo. Aurretik eta 2019-20 ikasturtearen zehar **Medialab** egitasmoa jarri zen abian, **Learn By Doing** delako metodologia eta lantalde bidezko formazioa erabilita, bi egitasmo gauzatuz (**Hijopotismoa** eta **Antenas**). Konfinamenduan hiru formatu jarri ziren abian #DKetxean egitasmoaren baitan: **Adobe After Effects tutorialak**, **Transmediazine** eta **Larrotxean zuzenekoak**. Ondoren dinamika digitalak jarraitu zuen eta Medialab prozesuak berreskuratu ziren, egitasmo berriak burutuz. Halaber, Larrotxene Bideoko eduki digitalek sare sozialetan izan zuten inpaktua inportantea izan zen, gorakada handiak jasota YouTube, Facebook eta Twitter sareetan.


Larrotxene Kultur Etxeko beste jardunari dagokionez, ondorengo fasean **Lagunekin Kantari** egitarauak argia ikusi zuen salto bikoitza eginez: batetik, udaberrietik udazkenean eta, bestetik, Larrotxenetik Intxaurrondora. Astero-astero Larrotxenen **Intxaurrondo Kantuz** ikasturte osoko formazioaren inguruan biltzen direnak urteroko saio bereziari heltzekotan izan ziren, baina pandemiak berriz eragotzi

Kalean otso, etxean uso.

Patata Tropikala.



Txor-Txor,
Nerea Arriola.



Bideoaldia.



zituen **Peio Ospital** eta **Fermin Balentzia** kantarien emanaldiak.

Euskaraldia ekimenak Intxaurrendoko mugak gaindituta, bi arigune sortu zituen, eta Intxaurrendoko Kultur Etxearekin batera, berriz ere hautu pertsonaletik kolektibora salto egiteko modua zein den praktikan jartzeko parte hartu genuen azaroaren 20tik abenduaren 4ra. Aurretik, Larrotxenek **Nerea Arriolaren Txor txor** bakarrizketaren lehen saioa jaso zuen irailaren 9an. Hau izan zen konfinamendu ondoren Intxaurrendoko berreskuratu zuen lehen jarduna.



Txoriak txori.
Sarini Zirko.

Izan ere, antzerki saio desberdinak bildu ziren Larrotxeneren inguruan. Konfinamenduaren aurretik eta ondorengo larunbatetan plan ederra eskaini genien auzoko txikienei: **Egur taupadak, Kanean otso etxean uso, Murren Bidaia, Dr Bubble** eta **Mc Fly. Poltsiko Antzerkiak** ere kukua egin zuen otsailean **Inprokomeriyak** lanarekin. Eta festarik gabeko irailean kaleak jaso zuen **Sarini** zirkuaren **Txoriak txori**, 2020an izan zen kale antzerki bakarra.

Ikastaroen garapena eta eskaintza guztiz baldintzatua geratu zen konfinamenduaren ondorioz. 2019-20 epeari dagokionez, nobedade handia izan zen eskaintza digitala egin ahal izatea. 2020-2021 epeari dagokionez, eskaintza erabat mugatua geratu zen, osasun egoerak eskatzen

dituen segurtasun neurriak mantentzea helburu.

Larrotxeneko **liburutegiak** ere izan zuen bere "aurretik"-a eta "ondoren"-a: aurretik **Ipuinaren Ordua** txikiei emaniko jarduera izan zen. Ondoren, aldiz, ez da posible izan segurtasunezko edukierak mantentzea. Bai, aldiz, inguruko txikiei eta helduei irakurtzeko eta kontsultarako aukera ematea, ekainaren 1etik ateak berriz ireki eta mailegua eta kontsulta zerbitzuak bizi-bizirik baitaude.

Urtea bukatzeko **Altzako Historia Mintegia** elkarteak 2021eko egutegiaren banaketa Intxaurrendon egitea erabaki zuen. Hain zuzen ere, argazkia Intxaurrendori baitagokio. Banaketa atontzeko IZBEk prestatu zuen **Intxaurrendoko: ibilbide bat iraganetik** argazki bilduma kaleratu zen Txaparrene parkean.



Murren bidaia.



Dr Bubble & Mc Fly. Nogusano.



Jarduerak

	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	63	1.014
Antzerki emanaldiak	8	354
Dantza emanaldiak	0	0
Musika kontzertuak	0	0
Zine emanaldiak	1	16
Hitzaldiak eta mahai inguruak	0	0
Erakusketak	0	0
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	26	318
Liburutegiko jarduerak	28	326
Plus 55	0	0
Gaztelekua	0	0
Haurtxokoa	0	0
Bestelakoak	0	0

Zerbitzuak

	Bisitaldiak
GUZTIRA	10.148
Liburutegia	9.651
Ikasgela	0
Gaztelekua	0
Haurtxokoa	0
Kzgunea (Nabigazioak)	0
Altzako bilduma	0
Altzako bilduma web	0
DK Irratia web	0
<i>Ispilu Beltza</i> magazine-podcast	0
Bideo tailerra	497
Musikagela	0
Musika Eskola	0
Plus 55	0



Prestakuntza

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak	
GUZTIRA	27	17	250	
			185	65
2019-2020 IKASTAROAK	22	12	148	
Ikasturte osokoak (2019ko urria - 2020ko maiatza)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	1	1	11	5
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	2	1	18	2
Gaztelaniaz	6	2	25	7
Bigarren lauhilabetekoak (2020ko otsailean hasita)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	3	1	2	6
Gaztelaniaz	4	3	14	22
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	6	4	32	4
Gaztelaniaz	0	0	0	0
2020-2021 IKASTAROAK	4	4	35	
Ikasturte osokoak (2020ko urria - abendua)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	1	1	8	3
Gaztelaniaz	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	1	1	7	0
Gaztelaniaz	2	2	16	1
IKASTARO PUNTUALAK	1	1	67	
Tailer, mintegi eta masterclassak				
Euskaraz	1	1	52	15
Gaztelaniaz	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	0	0	0	
			0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	
			0	0

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 14.114



Negua gozatuz erakusketa.



Los bailes de Txomin Enea.

Ez, eskerrik asko.

Gladysen leihoa dokumentala.



Negua gozatuz erakusketa.

2020a urte etena izan zen. Kronologikoki deskribatuko dugu, Loiola Kultur Etxearen itxiera eta berrirekitzea markatu zituzten erritmoei jarraituz.

Kultur Etxeak ondo ekin zion urteari. Hona hemen aipagarri batzuk: **Poltsiko Antzerkiko Jaialdiaren** lau ikuskizunak, **Inauterietan** eta **martxoaren 8an** egin ziren jarduerak, **Emakumearen Nazioarteko Eguna** eta zenbait lankidetzak, aurrerago zehaztuko ditugunak. Ohiko beste programazio batzuei ere eutsi zitzaion; hauei, besteak beste: erakusketak (**Joaquín García Lizeagaren Loiola, Urumea eta inguruetako oroigarriak**; **Iker García Barrenetxearen Ukitze-begiradak / Miradas tangentes** eta **Negua gozatuz**) eta dokumentalen proiektzioak (**Ez, eskerrik asko?** eta beste batzuk, oso harrera ona izan arren aurrez aurreko jarraipenik izan ez zutenak, hala nola **Liburu Baby Kluba**).

Ondoren, hilabete zailak etorri ziren, martxoaren erdialdetik hasita. Kultur etxea itxi egin zen, ikastaro eta jarduerak bertan behera geratu ziren, baita erakusketak, zikloak eta abar ere. Jarduna ez zen bere onera etorri harik eta kultur etxea berriro ireki arte, ekainean.

Bertan behera geratutako eta atzeratutako jardueren artean, esan behar da batzuk errepikaezinak eta ordezkaezinak zirela. Esate baterako, **Los bailes de Txomin Enea** antzezlan amateurraren estreinaldia, Loiola auzoko emakume batzuek interpretatua eta bertan behera geratu zena betiko.

Bestalde, esan behar da kultur etxearen erronka handietako bat ikastaroak izan zirela. Batzuk egin ahal izan ziren, jarraipena eman zitzaion formatua berregokitu eta online eskainita. Beste batzuk, ordea, bertan behera geratu ziren, eta kuotak itzuli behar izan ziren.

Kultur etxea ekainaren leian ireki zenean, berriro jarri zen martxan **liburutegi zerbitzua**, bai **kultur etxean** bertan eta bai **Amundarain Mediatekan**. Hartarako, protokolo guztiak onartu ziren: manparak, seinaleak, edukiera, eta abar. Handik aste batzuetara, hilaren azken aldera, kultur etxea ia jardun osoan ari zen, aurrekontuak doitu eta hartarako behar zen ekipamendua eguneratuta.

Uztaila iritsi zenean, auzoko jaiak ospatu ohi diren garaia alegia, ospakizunak bertan behera utzi behar izan ziren nahitaez. Kale antzerkia, lankidetzak eta **Nazioarteko Folklore Jaialdia** zeuden programatuta, besteak beste, baina ezin izan zen ezer egin. Hala ere, mini-proposamen bat zertu genuen ordainetan: *streaming* bidez, kultur etxeko ekitaldi aretotik, **Miren Amuriza** eta **Anjel Mari Peñagarikano** bertsolarien saioa eskaini zen, eta **Loiola Got Talent** showa.



Ispirit.

Txomin Enea eta Martuteneko jaien programazioari dagokionez, aldiz, ezin izan zer ezer egin. Erabatekoa izan zen deuseztatzea. Irailean, **Mikologia eta Gastronomía Jardunaldiak** ere ez ziren egin.

Udazken-neguetan ekitaldi gehiago geratu ziren bertan behera: **Abesbatzen Astea** eta **Vintage Musikaldia**. Eta **Literaktum Jaialdia** atzeratu egin zen. **San Martin Topaketak zikloa, Euskaraldia** eta **Gabonak Zuretzat**, aldiz, egin ahal izan ziren, baita beste jarduera nabarmen batzuk ere, hala nola **Ispirit-en gospel** kontzertua, Loiolako parrokian.

Ukitze-begiradak.



Loiola, Txomin Enea eta Martutene auzoetako elkarte eta erakundeekiko ohiko lankidetzari dagokionez, nabarmendu beharra dago auzoan eta kultur etxean izan ziren jarduerari eskainitako aholkularitza lana eta bultzada, ekoizpen lana bera baino gehiago. Hona hemen adibide batzuk: EITBko **Herri txiki, infernu handi** programak Loiolari eskaini zion saioarekiko lankidetzari; **Parkea bizirik** erakusketa Egiako tunelean, **Kabikutxen** 30 urteei buruz; **Ainara Azpiazu Axi** artistaren murala, Martutenen, Euskaraldia zela eta; oroimenari buruzko proiektua eta Txomin Eneako artxibo dokumentala **Impact Hubentzat (Tabakalera)**; **Sutan Bang** kolektiboak eta **Galtzagorri Elkarteak** Kultur Etxetik *streaming* bidez eskainitako ikus-entzunezko materiala; eta azkenik, **Kantujira**ren entsegu saioak *streaming* bidez eman izana. Sinergia horiek guztiek esanahi berezia dute pandemia garaiotan.

Egin ziren erakusketen artean, **Martuteneko Kartzelako tailerretan egindako lanen**

erakusketa; Matizen bikoitza, Ate itxia + Gazte ahaztuak; Eneko Etxebesteren Ezpainak; eta pintura klasikoaren ilustrazioak (fantastikoenak eta aingeruenak).

Bestalde, berriz ere bisita gidatuak egin ziren **Loiola Apaineko** muraletara, Loiolaren 2019ko programa izarra.

Beraz, pandemiak markaturiko urtea izan zen 2020a.



Jon Maia.



Jarduerak

	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	82	9.204
Antzerki emanaldiak	10	598
Dantza emanaldiak	0	0
Musika kontzertuak	10	1.610
Zine emanaldiak	3	19
Hitzaldiak eta mahai inguruak	0	0
Erakusketak	15	5.986
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	10	511
Liburutegiko jarduerak	24	383
Plus 55	1	20
Gaztelekua	0	0
Haurtxokoa	0	0
Bestelakoak	9	77

Zerbitzuak

	Bisitaldiak
GUZTIRA	13.380
Liburutegia	0
Ikasgela	0
Gaztelekua	0
Haurtxokoa	0
Kzgunea (Nabigazioak)	0
Altzako bilduma	0
Altzako bilduma web	0
DK Irratia web	0
<i>Ispilu Beltza</i> magazine-podcast	0
Bideo tailerra	0
Musikagela	0
Musika Eskola	0
Plus 55	0



Prestakuntza

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak	
GUZTIRA	49	18	289	
			240	49
2019-2020 IKASTAROAK	30	14	221	
Ikasturte osokoak (2019ko urria - 2020ko maiatza)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	15	3	43	3
Gaztelaniaz	14	11	142	33
Bigarren lauhilabetekoak (2020ko otsailean hasita)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	1	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
2020-2021 IKASTAROAK	13	4	68	
Ikasturte osokoak (2020ko urria - abendua)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	8	2	15	3
Gaztelaniaz	5	2	40	10
IKASTARO PUNTUALAK	6	0	0	
Tailer, mintegi eta masterclassak				
Euskaraz	3	0	0	0
Gaztelaniaz	3	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	0	0	0	0
			0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0
			0	0

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 18.930



Generación Why. Teatro en Vilo.

Zalantzarik gabe, esan dezakegu 2020an birusa izan zela gure jarduera guztietan protagonista nagusia, Covid-19 izenekoa alegia, gure bizitzetan sartu baitzen ustekabeen. Martxoaren erdialdetik ekain hasierara, telelana izan genuen tresna nagusi. Jarduera asko utzi behar izan genituen bertan behera udaberrian, edota atzeratu, baina, gehienetan, berriro ekin genien udazkenean.

Giro horretan, urtean egin ohi ditugun jardueren kopurua asko urritu zen. Hori ez ezik, edukiera murrizketak ezarri behar izan genituen kutsatze arriskua gutxitzeko. Antzerkia, zinema, musika, prestakuntza ikastaroak, liburutegia, KZgunea eta abar, denei eragin zieten, gehiago edo gutxiago, pandemia zela-eta egindako murrizketek.

Hala eta guztiz ere, eutsi egin genion antzerki programazioari,

eta lan eta estilo desberdinak izan genituen, bai hemengoak eta bai haragokoak: **Teatro en Vilo**, **Histrion**, **Txalo** edo **Ados Teatroa** izan ziren horren adibide. Familiei zuzenduriko lanen artean, **La Baldufarena** eta **Anita Maravillas & Portal 71**rena nabarmenduko genituzke. Antzerki amateurrean, berriz, 2020an ere beren lekua izan zuten bertako konpainia batzuek landutako obrek, hala nola **Emakume Ausartak**, **Nueve Teatro** eta **Les Figuretes** taldeenek.



Ausartak Taldea.



Zoaz pake santuan. Txalo Produkzioak.

Kale antzerkiaz, berriz, esan dezakegu sail horrek jasan zituela gehien birusaren ondorioak. Zenbait emanaldi bertan behera geratu izanagatik, egin ahal izan genuen **Trapu Zaharra**rena, erreferente handia baita Donostian antzerkia kalera eramateko orduan. Kale-kalean izan ez bazen ere, Antigua, Añorga eta Igeldoko zenbait aretotan bai, eman ziren **Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiko** zenbait emanaldi.



Musika ere protagonista izan zen Imanol Larzabal aretoko agertokian. 2020an ere euskal musikaren arloko zenbait artista izan ziren han. Besteak beste, honako artista hauen emanaldiak aipa daitezke: **Mikel Markez, Mikel Urdangarin, Thierry Biscary;** eta horien osagarri, **Donostia Bertsotan**, klasiko bat dagoeneko.

Erakusketei dagokienez, Mugikortasun Departamenduak sustatutako batekin hasi genuen urtea, **Eskolara bideak** izenekoak bera, eta haren ondotik etorri zen **Katrin Aldanondorena**, dantza garaikideari buruzko argazki erakusketa. Udako geldialdiaren ondoren, argazki erakusketa gehiago etorri ziren, hala nola **Carmen Hierro** errioxarrarena, zeinak **El juego** izenburupean bete baitzuen Lugaritzeko erakusketa eremua.

Zinemari dagokionez, jarraipena eman ahal izan zitzaion Zientzia Fikziozko Filmen Zikloari, eta horri gehitu zitzaizkion Plus 55 programako ohikoa, baita euskararena ere, **Bagera Elkarateak** sustatua, zeinak 2020an hasi baitzuen hain zuzen ere bidea.



Mikel Urdangarin.



Thierry Biscary.



Donostia Bertsotan.

Ikastaro eta lantegien kopuruak behera egin zuen, bai udaberriko itxialdiagatik, bai udazkenean edukierak txikiagotu zirelako. Hala eta guztiz ere, hala telematikoki nola aurrez aurre, behar adinako jarraipena eman ahal izan zitzaion, interesaturiko lagunen eskariari gutxieneko erantzun bat emateko behinik behin.

Etxekolandia ingurugiro programari eustea ere lortu genuen; ikasleei zuzendutakoa da, kutsaduraren kontrako neurri berrietara egokitu eta gero.

Liburutegi zerbitzuari dagokionez, martxoaren erditik aurrera maileguak ezinezkoak zirenez, behera egin

zuen, batez ere liburutegira joan ohi diren erabiltzaileen kopuru aldetik. Liburutegian egiten ziren jardueri buruz, berriz, gehienei eutsi ahal izan zitzaion, beharrezko ziren babes neurriak ezarri ondoren.

Ez zitzaion gauza bera gertatu **Plus 55** jardueri, zeren eta, adinekoentzat direnez, eta birusaren eragina batik bat haiek jasaten zuten, gehien-gehienak bertan behera geratu baitziren.

Horiez gainera, deitoratzekoa da elkaratek Merkatuan egiten dituzten jarduerak eta Hautxoko eta Gazteleku zerbitzuetakoak ere bertan behera geratu izana pandemia hasi eta gero.

El juego. Carmen Hierroren erakusketa.





Jarduerak

	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	877	13.580
Antzerki emanaldiak	30	3.514
Dantza emanaldiak	0	0
Musika kontzertuak	6	875
Zine emanaldiak	10	219
Hitzaldiak eta mahai inguruak	0	0
Erakusketak	3	392
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	646	6.535
Liburutegiko jarduerak	49	789
Plus 55	103	919
Gaztelekua	15	108
Haurtxokoa	15	229
Bestelakoak	0	0

Zerbitzuak

	Bisitaldiak
GUZTIRA	21.118
Liburutegia	19.527
Ikasgela	0
Gaztelekua	258
Haurtxokoa	414
Kzgunea (Nabigazioak)	770
Altzako bilduma	0
Altzako bilduma web	0
DK Irratia web	0
<i>Ispilu Beltza</i> magazine-podcast	0
Bideo tailerra	0
Musikagela	0
Musika Eskola	0
Plus 55	149



Prestakuntza

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak	
GUZTIRA	175	116	881	
			665	216
2019-2020 IKASTAROAK	59	32	401	
Ikasturte osokoak (2019ko urria - 2020ko maiatza)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	1	0	0	0
Gaztelaniaz	3	3	46	1
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	20	5	44	13
Gaztelaniaz	17	14	153	41
Bigarren lauhilabetekoak (2020ko otsailean hasita)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	1	1	13	2
Gaztelaniaz	3	2	16	6
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	9	3	9	13
Gaztelaniaz	5	4	22	22
2020-2021 IKASTAROAK	38	21	249	
Ikasturte osokoak (2020ko urria - abendua)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	4	3	21	6
Gaztelaniaz	4	4	40	12
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	15	3	29	7
Gaztelaniaz	15	11	98	36
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	
Tailer, mintegi eta masterclassak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
KZgunea IKASTAROAK	34	24	61	
			42	19
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	44	39	170	
			132	38

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 59.451



Sorginak! erakusketa.

Okendo Kultur Etxeak, Donostia Kulturaren beste kultur etxe eta ekipamenduek bezala, 2020. urtea markatu zuten itxialdi eta pandemia egoeren eraginpean izan zituen bere jarduna eta zerbitzuak. Horri gehitu behar zaio urte horretan kultur etxea hobetzeko lanak egitekoak zirela, baita klimatizazio berria instalatzekoak ere. Bi kontu horiek zirela eta, kultur etxea itxita egon zen martxotik uztaile bitarte.

Ondoren kultur etxearen programazioaz, zerbitzuez eta dinamikez egiten den laburpenean, zenbait alderdi dira nabarmentzekoak. Lehenik eta behin, Okendo Kultur Etxea arte plastikoetan espezializatua dagoela kontuan izanik, nabarmentzekoa da irekita egon zen hilabeteetan eutsi egin ziola **erakusketen, eskola magistralen eta ikastaro berezitu**en programazioari, eta arreta berezia

eskaini ziela humanitateekin eta arte ederrekin zerikusia zutenei. **Prestakuntza espezializaturako eskaintza** hori kultur etxearen eskaintzaren ezaugarri nabarmena bihurtu da, ikastaro asko ditugu pintura, historia eta artea, musika, literatura eta abarretan.

Erakusketei dagokienez, aipatzea merezi du **Ana María Parrari** egindako omenaldia, Donostiako artista nabarmenenetakoa izaki, eta gainera aitzindaria emakumeek arte munduan parte hartzean. Okendo jauregiak marrazkilari, ilustratzaile eta margolari donostiar honen erretratuak, paisaiak, natura hilak eta eszena kostunbristak bildu zituen.

Eraikin historiko horretantxe, **Mafaldaren 50. urteurreneko** erakusketaren parte bat berreskuratu zen 2014kotik, eta 2020an omenaldia egin nahi izan zitzaion Quino zenari; erakusketak oso harrera ona izan

zuen, era askotako ikusleen bisita izan baitzuen egunez egun, hasi gazteenetatik eta marrazkilariak eta haren pertsonaia kuttunak, Mafaldak, munduaz zuten ikuspegiaren zale zirenenganaino.

Martxo inguruan, Emakumearen Nazioarteko Egunaren paretsuan, **Sorginak!** erakusketa programatu zen, talde erakusketa bat, zeinaren bitartez **Emakume Artisten Nazioarteko Elkarteak, EmPoderArtek**, XV. eta XVIII. mendeen artean egin zen genozidioa salatu baitzuen, 250.000 emakume hil, torturatu baitzituzten European, sorgintzat jo ondoren. Erakusketarekin batera, bi bisita gidatu eta bi mahai inguru izan ziren.

Atal hau amaitzeko, esan Aran Santamaria artista zumaiarraren **Te deshoja / Hostoz hosto erantzi** erakusketak itxi zuela 2020. urtea. Erakusketa hartan, zeina Literaktum jaialdirako ekoitzi baitzen -baina



jaialdia ezin izan zen egin-, collagea edo *pop up* teknika erabiliz sortu eta birsortutako liburuak izan ziren protagonista, arkitektura bat eta paperezko historia pertsonal eta irudimenez beteak irudikatzen.

Donostiako kultur etxeen ezaugarri funtsezko bat hurbiltasuna da, auzoetako eragile eta erakundeekiko hurbiltasuna, zuzenean hartzen baitute parte kultur bizitzan. Alde horretatik, 2020an **Osasun Astearen 30. urteurrena** ospatu zen, herritarren osasunarekin eta komunitatearen zaintzarekin zerikusia zuten jardueren programa baten bidez. Programa horretan hartu zuten parte auzotarrek, Osakidetzako osasun profesionalak, Groseko farmaziek eta udal teknikariek, baita Algaraklown taldeak ere, zeinak lagun egiten baitie txikienei erietxean. Guztira, 240 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte.

Auzoko erakunde eta kolektiboekiko lankidetzaz hori **Mendia eta Natura** zikloaren programaziora ere iritsi zen, Club Vasco de Cámping-en bidez, bai eta **Zine Frantsesaren eta Alemanaren** zikloetara ere, **Institutu Frantsesaren** eta **Goethe**

Alegiazko izakiak
erakusketa.



Pirenaica,
Ander Izaguirre

Cine, surf y paraíso,
D'enak Ohana.

Hostoz hosto erantzi,
Aran Santamaria.

Institutuaren bidez, hurrenez hurren. Bestalde, kultur etxeko ateak irekita egon ziren hiriko **elkarte** eta **kolektiboek** aretoak erabil zituzten proiektu eta jarduera jakin batzuk egiteko, hala nola **Helduen Hitzza** hitzaldi programa.

Zerbitzuei dagokienez, pandemiaren eragina nozitu zuten, eta murriztuta geratu ziren. Hala ere, kultur etxeak behar ziren neurri guztiak hartu zituzten segurtasunez eta higienez jardun ahal izateko, egoerak eskatzen zuen bezala, eta uztailan berriro ireki zen. **Liburutegiak**, esate baterako, erregulartasunez funtzionatu zuten, eta literatur solasaldiak egin egin ziren. **Zeu irakurle, Gu kontalari** programa ere, Lehen Hezkuntzako lehen mailako ikasleen artean irakurketa sustatzeko, egin zen.

Plus 55 nagusientzako aisialdi aktiboko zerbitzuak ere kalte handia jasan zuen. Gaur egun, formula berrien bila eta formula berriak eskaintzen jarraitzen du kolektibo horren errealitateari erantzuteko, eta dinamikak

eskaintzen ditu sozializatorako eta teknologia berriak ikasteko, adibidez. **Nagusi bizien kluba** eta norberaren buruari eta autolaguntza gaiei buruzko hitzaldi parte-hartzaileak interesgarriak dira nagusientzat, eta ia egunero etorri ohi dira kultur etxera.

Haurtxoko eta Gazteleku zerbitzuak bertan behera geratu ziren, baina 2021ean berreskuratzeko asmotan gabilta, auzoko haur eta gazte askoren babesba baitute.

2020. urtea erronka eta ziurgabetasun handien urtea izan zen, baina, pixkanaka, kultur etxea eta zerbitzuak egoerara egokitu ziren, eta herritarrek ezin hobeto erantzun zuten: programazio berriari, jarduera murrizketei, Donostia Kulturaren kutsadurak saihesteko eta kulturaz modu seguruan gozatzeko hartutako neurri berriei. Horregatik, hain zuzen ere, 2020. urtearen balorazioa itxaropenez bete da, eta lanean jarraituko dugu kultur etxeak herritarren eta auzoko zein hiriko kolektiboen kultur eskakizunei erantzuten jarrai dezan.



Jarduerak

	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	541	35.577
Antzerki emanaldiak	15	1.356
Dantza emanaldiak	2	370
Musika kontzertuak	4	198
Zine emanaldiak	19	973
Hitzaldiak eta mahai inguruak	74	2.889
Erakusketak	8	23.362
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	47	597
Liburutegiko jarduerak	60	715
Plus 55	23	836
Gaztelekua	115	1.327
Haurtxokoa	140	1.300
Bestelakoak	34	1.654

Zerbitzuak

	Bisitaldiak
GUZTIRA	54.597
Liburutegia	46.662
Ikasgela	0
Gaztelekua	1.460
Haurtxokoa	1.430
Kzgunea (Nabigazioak)	3.808
Altzako bilduma	0
Altzako bilduma web	0
DK Irratia web	0
<i>Ispilu Beltza</i> magazine-podcast	0
Bideo tailerra	0
Musikagela	0
Musika Eskola	0
Plus 55	1.237



Prestakuntza

	Ikastaro eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak	
GUZTIRA	225	104	1.729	
			1.361	368
2019-2020 IKASTAROAK	122	46	1.078	
Ikasturte osokoak (2019ko urria - 2020ko maiatza)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	3	3	309	41
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	48	3	41	11
Gaztelaniaz	49	36	459	152
Bigarren lauhilabetekoak (2020ko otsailean hasita)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	1	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	14	1	3	7
Gaztelaniaz	7	3	40	15
2020-2021 IKASTAROAK	36	14	334	
Ikasturte osokoak (2020ko urria - abendua)				
Egile ikastaroak				
Euskaraz	0	0	0	0
Gaztelaniaz	3	3	158	7
Ikastaro orokorrak				
Euskaraz	15	1	8	4
Gaztelaniaz	18	10	133	24
IKASTARO PUNTUALAK	3	3	107	
Tailer, mintegi eta masterclassak				
Euskaraz	1	1	5	3
Gaztelaniaz	2	2	59	40
KZgunea IKASTAROAK	64	41	210	
			146	64
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	
			0	0

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 86.366



Pandemia aurretik.

Liburutegiak, beti funtsezko, baita pandemia garaioan ere

Donostiako liburutegi sareak herritarrei zerbitzua ematen jarraitu zuen 2020an ere, Covid-19a eta guzti. 2020a **pandemiak markaturiko urtea izan zen**. Baina dela online eran, konfinamenduak iraun bitartean, dela aurrez aurre ekainaren lehenetik aurrera, eta Osasun Sailak ezarritako protokoloek jarraituta, **liburuekiko eta ikastearekiko topagune** izan gara betiere.

Liburuak eta irakurketa sendagai izan dira. Liburuak irakurtzeak lagundu egiten digu ulertzen bizi izandakoa iragan zela eta berriro gertatuko dela. Berriro irakurri da Albert Camusen *Izurria*, José Saramagoren *Ensayo sobre la ceguera*, eta berriro ekarri da gogora klasiko bat, Bocaccioren *Dekameronea*, Florentziako izurritearen ondotik idatzia.

Nola pentsatu azkenaldiko eleberririk batzuetan irakurritako zenbait distopia errealitate bihurtuko zirenik. Ling Ma-k, *Liquidación* liburuaren egileak, gaur egungoaren oso antzeko egoera deskribatu zuen duela bi urte.

Ez dago esaterik irakurketak hobetu egiten gaituenik, baina bai atzo baino jakintsuago; eta, batez ere, itxialdian sartu gintuztenean, etxeratzeko agindua eman zigutenean, ez zen egon liburu baten parekorik urrun bidaiatzeko. Horregatik diogu ezinbestekoak garela.

ERREPASO KRONOLOGIKOA

Martxoaren 16an, liburutegiak itxi ziren, pentsaturik kultura ez zela funtsezkoa. **Ekainaren 1ean ireki ziren berri**, ahalegin kolektibo handia eginda protokoloa betetzeko. Ez zegoen irispide

librerik funts eta bildumetara, eta jendearentzako edukiera %50 murriztu zen. Liburuzainak bihurtu ziren liburuaren eta irakurlearen arteko bitartekari. Egoeraren ikuspegi alai eta umorezkoa emateko, ilustrazio bat enkargatu zitzaion **Antton Olariagari**, eta liburutegi guztietan ipini zen.

Gainera, dokumentuek **hamabost eguneko berrogeialdia** egin behar zuten ekainean, eta handik aurrera **zazpi egunekoa**. Berrogeialdiak zaildu egin zuen mailegu prozesua eta dokumentuak itzultzea. Oraingoan, arazoa konpondu gabe dago modu informatikoz. Automaileguko makinek itzalita jarraitzen dute.

“Normaltasun berrian” bizi gara ekainaren 29tik. Irakurlea musukoa ipinita doa apaletara, eta gel hidroalkoholikoz igurzten ditu eskuak liburutegian sartzean. Esan dezakegu ezen, oztopoak oztopo, udako liburutegirik



Berririkiera.

gabe, ordutegi batzuk aldatuta, edukiera murrizturik, eta kutsatzeko beldurrez, liburutegiak bizirik daudela oraindik ere.

Donostian, liburutegiak izan ziren lehen erakundeak atek irekitzen.

KONFINAMENDUA, MARTXOAK HAMASEI - EKAINAK BAT

Konfinamenduan, liburutegiak harremanetan izan ziren erabiltzaileekin, zenbait ekintza digital zirela medio: liburu digitalen

mailegua, Ipuinaren Ordua online, literatur solasaldiak Jitsi Meet programaren bidez, apirilaren 23ko Liburuaren Egunaren ospakizuna online, 25 euskal ilustratzaileen ilustrazio bilduma, 20 euskal idazleren literatur testuak, eta liburutegi digital historiko zaharra gaur egun DonostiaTEKA bihurturik (<https://www.donostia.eus/DonostiaKultura/donostiateka/>).

Hilabete haietako liburu digitalen mailegua **iazko maileguen %80 izan zen**. 6.544 mailegu egin ziren liburu digitaletan, eta 1.213 erabiltzaile berri baliatu ziren zerbitzuaz. Hiru liburu digital mailegatuenak Dolores Redondoren *La cara norte del corazón*, Karmele Jaioren *Aitaren etxea* eta Camila Lackberg-en *Una jaula de oro* izan ziren.

Ipuinaren Ordua, online, Donostia Kulturaren **DKetxean** programako izarra izan zen. Familiak 16:00etan biltzen ziren ipuina entzuteran, Lur Korta, Saioa Aizpurua, Amaia Puin, Iraitz Lizarraga, Kattalin Ansorena, Izaskun Mujika, eta Lur Usabiagaren ahotik. Larunbatetan, saioa zeinuen

hizkuntzan jarrai zitekeen Bego González-eri esker. 1.105 familiek jarraitu zituzten zuzenean YouTubeko saioak. Guztira, hiru kanaletan (YouTube, Instagram eta Facebook) **125.547 ikustaldi** izan genituen.

LITERATUR SOLASALDIK JITSI MEET PROGRAMAREKIN

Konfinamenduan, bederatzita literatur solasaldi egin genituen, eta 12 lagunek hartu zuten parte batez beste saio bakoitzeko. Solasaldietako jende kopurua handiagoa denez, konexio arazo batzuk izan genituen WiFi eta jendearen ordenagailuak zirela eta. Aurki, jauzi digitalak arrakala eragin dezake erabiltzaileen artean. Pertsona guztiak ez dituzte baliabideak ordenagailu eta konexio onak izateko Baina, hala ere, esperientzia polita izan zen. **Dena den, nahiago aurrez aurreko saioa.**

LIBURUAREN EGUNA, ONLINE

Liburuaren Eguna programa berezi batekin ospatu genuen. DK Irratiak, *Ispilu Beltza* programan, 08:00-10:00 artean, gure programazioaz eta oro har liburuaz jardun zuen. Mikel Casal ilustratzaileak egin zuen orri-markatzaileko ilustrazioa. Ana Malagón izan zen eguneko idazlea, *Hau ere pasako da* kontakizun laburrarekin; Ipuinaren Ordua, ohikoa, Amaia Puinekin, baina batik bat **Liburu Challenge** jardueraren arrakasta nabarmendu beharra dugu, 17:00etan, **Go!azen** taldearen eskutik, zeina Lorea Intxausti, Xanti Korkostegi eta Markel Sainzek osatu baitzuten. **Saioak 36.761 ikustaldi izan zituen.**

Gainera, eta Gipuzkoako

Liburuzainen Elkartearekin lankidetzan, zozketa bat antolatu genuen gure liburutegietako erabiltzaileekin. Galdera honi



Liburu Challenge, Golazen taldearen eskutik.



erantzun behar zioten: *Gaur, Liburuaren Nazioarteko Eguna, zer liburu erosiko zenuen liburu dendak irekita egon balira?* Parte hartu zuten 950 lagunen artean, liburuak erosteko 20€ko 50 bono zozkatu genituen.

DK KOADERNOA, IDAZLE ETA ILUSTRATZAILEEN SORKUNTZA LANA

DK Koadernoan epigrafepean, **testu labur bat** eskatu genien **hogei idazleri** Covid-19ak eragindako **konfinamenduari buruz**. Honako hauek hartu zuten parte: Yolanda Arrieta, Iñigo Aranbarri, Juan Manuel Uria, Patxi Zubizarreta, Ander Izagirre, Arantxa Urretabizkaia, Anjel Lertxundi, Xabier Etxaniz Rojo, Oier Guillán, Kirmen Uribe, Harkaitz Cano, Ana

Malagón, Beñat Sarasola, Karmelo Iribarren, Aritz Gorrotxategi, Mariasun Landa, Fernando Savater, Juan Kruz Igerabide eta Luisa Etxeniketik. Testuak askotarikoak eta laburrak dira. Aniztasunak ematen die balioa. Testuok Donostia Kulturaren webgunean irakur daitezke, **DK ON!** atalean.

Ilustratzaileek ere hartu zuten parte DK Koadernoan, Covidari buruz duten ikuspegia emanez. **Hogeita bost ilustratzailek** bidali ziguten zeinek bere ilustrazioa: Judas Arrieta, Yolanda Mosquera, Mikel Valverde, Ainara Azpiazu *Axpi*, Iraia Okina, Jokin Mitxelena, Sisters and the City, Arantza Sestayo, Elena Odriozola, Maite Gurrutxaga, Asier Iturralde Gastón, Paula Estévez, Marcos Navarro, Aitziber Alonso,

Diego Besné, Sandra Garayoa, Iker Ayestarán, Rebeke Elizegi, Mikel Casal, Ane Picaza, Belén Lucas, Mattin, Ines Ayoon Cho eta Mikel Anterok. Horien lana Donostia Kulturaren webgunean eta DonostiaTEKAn kontsulta daiteke: <https://www.donostia.eus/DonostiaKultura/donostiateka/handle/123456789/379>

Amaitzeko, aipatzekoa liburutegi digital zaharrean prentsa historikoari buruz egin ziren kontsultak, konfinamenduaren hilabeteetan. **Guztira, 237.218 orrialde bisitatu zituzten 5.401 erabiltzailek.**

Beraz, esan dezakegu liburutegi sarea erabiltzaileengandik hurbil egon zela konfinamenduan.





NORMALTASUN BERRIA, EKAINAK 1 - ABENDUAK 31

Konfinamenduaren ondoren, liburutegiek ahalegin handia egin zuten irakurleak bereganatzeko. Hasiara ez zen erraza izan, baina, uda amaitzerako, erabiltzaileen %70 genuen gureganatuta.

Gure sentipena zen bazela halako neke bat eskaintza digitalaren aurrean, baina hala ere online programatu genuen Ipuinaren Ordua udako hilabeteetan, uztailean eta abuztuan. Animatu egin nahi genituen haurrak liburutegietara etor zitezen, eta, bidaiatzerik ez zegoenez, Donostiako zenbait leku ezagutarazi nahi genituen.

Ipuinaren Orduak Donostiako hainbat lekutan grabatu ziren. **Berrogeita lau saio**, Haizearen Orrazian, San Telmo Museoan, Igeldoko funikularrean, Aquariumean, Paseo Berriko Jorge Oteizaren eskulturaren, eta abar. Programa berria izan arren, bete genituen gure aurreikuspenak. 4.471 ikustaldi izan genituen, hots, 104 ikustaldi saioko, batez beste. Lur Korta eta bere taldea arduratu ziren ipuinak kontatzeaz. Parte hartu zuten 42 familiek zoriondu egin gintuzten ekinbideagatik.

Irailetik aurrera, aurrez aurreko jardueretara itzuli ginen, baina murrizketekin, jakina.

SAREA ZENBAKITAN

Zenbakiak garrantzitsuak dira gure zerbitzuen errendimendua neurtzeko. Bistan denez, 2019. urtearekin konparatzean, kontuan izan behar dugu bi hilabete eta erdi gutxiagotan eman genuela



Liburutegien Eguna.

zerbitzua; ekainean, irakurleak ezin ziren etorri liburuak apaletan aukeratzera; aldeztu aurretiko hitzorduarekin ibili ginen; edukiera %50ekoa zen; haurtxotekak eta hemeroteka itxita zeuden; Amara, Okendo eta Tomaseneko liburutegien udako ordutegia erdira murriztu zen udan; eta ez genituen ireki udako bi liburutegi: Eguzkiteka eta Urgullekoa. **Hala eta guztiz ere, 409.182 bisita izan genituen, eta 296.265 mailegu egin.**

Baldin eta 2019ko zerbitzu egun berberekin konparatzen baditugu 2020ko datuak, **%12 egin zuten behera maileguek.** Datu hori kontuan hartzen ez badugu, Donostia Kulturako balantze orokorrak adierazten duen bezala, %65eko beherakada izan genuen. Bisitetan, %48koa izan zen beherakada.

Guztira, **296.265 mailegu** egin genituen **bederatziz hilabeteetan.**

Alegia, **1.433 mailegu eguneko.**

Haurrentzako liburuetan, **91.635 izan ziren maileguak.**

1,5 mailegu biztanleko (186.667 biztanle 2016an).

Mailegu gehien egin zituen liburutegia **Liburutegi Nagusia** izan zen, **67.124**; ondoren, Amarakoa, **36.444**, eta Okendokoa, **33.495**. Kontuan izanik azken liburutegi horrek abuztuan ireki zituela ateak, bistan da zelako dinamismoa izan zuen.

Liburutegien funtsak eguneratu egin ziren. Liburu dendak ireki zirenean, martxan jarri genituen eskariak. **38.109** dokumentu erosi genituen, hau da, %4,34ko hazkunde tasa. **Berritze kuota %6,37koa** izan zen; **%10era iristea dugu helburu.** Nabarmenezkoa da liburuzainek funtsak katalogatzen egin zuten lana: 8.000 katalogazio eta beste hainbeste berrikuspen. Aldikako argitalpenekin ere jarraitu genuen; 288 eguneratu ziren.



Bazkide izen-emateak: **91.719 lagun. Bazkide berriak: 2.848.**

Bazkide aktiboak 21.100 dira (gure arloan, bazkide aktibo deitzen zaie mailegu zerbitzuetik gutxienez behin pasatu direnei).

Funts bibliografikoak erosten egindako gastua 449.539,78€koa izan zen. Aurreko urtean baino 20.764€ gehiago. Alegia, 2,40€ko gastua biztanleko, eta 4,90€koa bazkideko. Aipatu beharrekoa da Donostia Kulturak erosketetan egiten duen ahalegina irakurleek lan berriez gozatu ahal izan dezaten.

Webgunean Liburutegiak sailean egindako **kontsulta digitalet** gora egin zuten. Liburutegi digital zaharrak aurreko datuei eutsi zien. Gorakada handia erabiltzaile bati zor zaio, ia hemeroteka osoa deskargatu baitzuen. Liburu digitalen maileguak %80 egin zuen gora konfinamenduan. Gero, aurreko urteetako datuetara itzuli zen. Liburutegietan, arlo digitalak ondo funtzionatzen du aurrez aurreko zerbitzua ezinezkoa denean. Baina, oro har, donostiarrek paperezko liburua dute nahiago.

Liburutegiok benetako gardentasunean sinesten dugu. Gure datu guztiak urtero argitaratzen dira paperean eta formatu digitalean, edonork ikus dezan gure bilakaera. Datuak Eusko Jaurlaritzarako, Irakurketa Publikoko Sarerako eta INErako ere jasotzen dira.

PROIEKTU NABARMENAK

Hiru proiektu nabarmen aipatuko ditugu 2020an burututakoen artean:

1. **DonostiaTEKA:** Donostia Kulturaren liburutegi digital berria.
2. **Burnizko potoa** komikia argitaratzeko emandako laguntza.
3. Eta 6 urteko haurrentzako jarduera berria, **Zu irakurle, Gu kontalari.**

DonostiaTEKA Donostia Kulturaren liburutegi digital berria da. 2020ko azarotik dago martxan. 2004an sortutako liburutegi digitala ordeztu du. DonostiaTEKA dokumentu

digitalen OAI-PMH errepositorio berri bat da, eta helburu hau du: Donostiako Udal Liburutegiak 1874an sortu zenetik gordailututako bildumak antolatzea, gordetzea eta irispide irekiaren bidez hedatzea.

2004ko liburutegi digitala modernizatu egin zen beharrezko arau teknikoak bete ahal izateko, eta, hala, gure bildumak ikusgarriago dira, jaso egiten baitituzte bai Euskarianak eta bai Hispanak, edukien ondare digitalerako irispide-atari eta Europeanarako eduki agregatzaile nazionalak.

Digitalizatzeko proiektua tokiko prentsa historikoarekin hasi zen. XIX. mendetik 1936. urtera arteko argitalpenak dira. Kasu askotan, bilduma bakarrak dira, ikertzaileek asko eskatzen eta estimatzen dituztenak.

49 argitalpen aldikako horien digitalizazioari, tokiko proiektuekin zerikusia zuten bilduma txikiak erantsi zitzaizkien. *San Sebastianen Martxaren* partiturak; sei eleberririk historiko, zeinen gaia Donostiak 1813ko abuztuaren 31n pairatutako suntsiketa baita; Donostiako su-festen berrogeita hamar kartel, Donostia Kulturako Festak unitatearenak. Horiek ere digitalizatu dira.

DonostiaTEKA zazpi bildumatan dago egituratuta: Artikuluak; Kartelak eta ilustrazioak; Argazkiak; Liburuak; Mapak eta Planoak; Egunkariak; Aldizkariak. Fase berri honetan, Asun Balzolarek ilustrazioak aurkituko ditugu, eta Amara auzoko argazkiak, Amarauna proiektuak.



Zu irakurle, Gu kontalari.



Nabarmentzeko bigarren proiektua **Burnizko potoa** komikiaren argitalpena da. Argitalpen hori gure erakundeak emandako diru babesari esker burutu zen. Emaiza oso ona da, eta liburuaren kalitateak, Denonartean argitaletxearen edizioak, Jokin Mitxelenaren ilustrazioak, Antton Kazabonen testuek eta Anton Mendizabalen dokumentazioak frogatzen dute beharrezkoa dela **liburuak argitaratzen laguntzea**, baldin eta proiektuak kalitatezkoak badira.

Azkenik, jarduera berria, irailetik martxan dena, **Zu irakurle, Gu kontalari**. Zerbitzuak errealitate bati emandako erantzuna da: jarduerak egiteko zailtasunari, araudi berria eta protokolo berriak indarrean direla. Ipuinaren Orduaren orde, zeina bost urtetik beherako haurrentzat baitzen, jarduera berri hau sei urteko haurren irakurketa ikasketarekin lotzen da. Haur bakoitzak ipuinaren zati bat irakurtzen du ozenki, eta, amaitzeko, ipuin osoa irakurtzen du Lur Kortaren taldeko kontalari profesional batek. 2020ko azken hiru hilabeteetan, 107 parte-hartzaile eta 11 saio izan genituen; 9 haur saio bakoitzeko, batez beste.

Jarraitzen dugu **LIBURUKA** programarekin, zeinak lau ekintza baititu. Ezin izan genuen egin Literatura Aretoa, ezta Motxila Txikia ere. Baina sare osoaren **Irakurle Gazteak** jarduerak eutsi egin dio. Bi liburu bidalketa egin genituen ikastetxe guztietara, ohiko hiruren orde. 22 ikastetxek hartu zuten parte, 222 ikasgelak, eta **6.216 liburu mailegatu ziren** guztira. Inkestetako kalifikazioa: 8,8 puntu.

JARDUERAK

Jardueren programazioa zaildu egin zen pandemia zela eta. Izena eman beharra dago, eta musukoa eraman beharra jarduera egin bitartean. 2020an, 718 jarduera izan ziren, eta 10.805 parte-hartzaile. Alegia, 2019an baino %42 gutxiago.

Online jarduerak 107 izan ziren, eta 166.806 ikustaldi. Zoom edo Jitsi bidezko jarduerak bederatzi izan ziren, eta 108 lagun konektatu ziren.

Itxi baino lehen, Poesiaren Eguna genuen programatua martxoaren 21erako, baina ezin izan genuen egin. Literaktum hitzordua eta Emakume Idazleen Topaketa atzeratu egin ziren, konfinamendu perimetralak zirela eta. Liburu Baby Kluba jarduera ere bertan behera geratu zen.

BAINA AURREZ AURREKO FORMATUAN EGIN GENITUEN:

Uztailean, **DK Poesia Lehiaketa** -Lizar Begoña irabazle, *Aro beilegia* poemategiarekin- poeta gazteak sortzeko bultzada izan zen.

Poesia eta Pentsamendua topaketa ekainerako zegoen pentsatua, eta irailaren 16 eta 17ra atzeratu zen. Errezitaldia Klub aretoan, Iñigo Astiz, Lizar Begoña, Elena Olave, Jesús Rodríguez eta Julieta Valerorekin. Aretoa bete egin zen, 70 lagun.

Poesia Orduak irailaren lehen astean egin zen, 7an eta 9an: *Hain zara eder*, Fito Rodriguezena, eta *Nola gorde errautsa kolkoan ez tulik egin gabe*, Miren Agur Meaberena. Bi saio, eta 120 entzule guztira.

VI. Ipuin Maratoia, Galtzagorriekin elkarlanean, urrian: 48 parte-

hartzaile hiru saiotan, San Jeronimo kaleko aretoan.

Liburutegien Eguna, urriaren

24an. Urtero bezala, Koldo Mitxelena Kulturunearekin eta Medialab Tabakalerarekin elkarlanean. 2020. urtean, *Liburutegiak pandemiari aurre egiten* gaia: helburua pandemian zehar beste liburutegi batzuen esperientzia ezagutzea zen. Z aretoan izan zen egun nagusia, urriaren 21ean. Saioa aurrez aurrekoa eta *streaming* bidezkoa izan zen aldi berean. Parte hartu zutenak: zuzenean, bertatik, Iban Zaldua, *Imajinatzen al duzu liburutegirik gabeko mundu bat?* sarrerarekin; online, berriz: Galizatik, Cristina Nova, *La biblioteca escolar, una oportunidad en tiempos de pandemia*; Bartzelonatik, Juanjo Arranz eta Juli Cervera, *La adaptabilidad como herramienta contra la pandemia*; eta Madrildik, Estela



Poesia Orduak. Miren Agur Meabe eta Amorante.



Gonzalo, Madrilgo Eugenio Trías Liburutegi Publikoko zuzendaria, *Mejor juntos*. Arratsaldean, aurrez aurreko mahai inguru: *Gipuzkoako liburutegiak lanean, pandemia gorabehera* (Eibar, Oñati, Zizurkil eta Donostia). Moderatzaile: Lore Agirrezabal.

Gainera, bi jarduera programatu ziren jendearentzat. 21ean, Benjamín Pradoren ***Todo lo carga el diablo*** liburuaren aurkezpena. Erabat bete zen, 60 lagun, San Telmon. Eta zinema saioa, igandean, hilak 25, ***Can You Ever Forgive Me***, Marielle Heller, Tabakaleran. Arrakasta handia izan zuen. Formula hau, jardunaldi profesionala bi kultur hitzordurekin osatzea, oso egokia gertatu zen.

Garrantzitsua da esatea liburu aurkezpenak egiten jarraitu dugula, aretoa argitaldariei lagata. Covid-19a zela eta, liburu aurkezpenak Duque de Mandas aretoan egin ziren, eta solasaldiak eta beste jarduera batzuk, berriz, San Jeronimo kaleko aretoan. Airearen garbitasuna bermatzeko, aire garbigailu bat erosi genuen San Jeronimoko aretorako. Koadernatze lantegiak ere aurrez aurreko saioak eginez jarraitu zuen.

Urtea amaitzeko, abenduaren 3an Irene Vallejo izan genuen, ***El infinito en el junco*** liburuarekin. Irene Vallejok Espainiako Saiakera Sari Nazionala jaso zuen liburu horrengatik 2020an. Siruelak argitaratu zuen, eta sekulako arrakasta izan du. Arrakastak harritu egin ditu bai egilea eta bai editorea. Liburu Grezia eta Erromako liburutegiez ari da, baina irakurle guztiek aitortu diote



Liburutegien Eguna.




Amaia García eta Benjamín Prado.

idazleari gehienetan irakurleria minoritario bati zuzendutako gaia jende gehiagorengana zabaltzeko izan duen trebetasuna. Aretoa bete egin zen, 60 lagun (STM), eta aurkezpena *streaming* bidez eman zen, Donostia Kulturaren YouTube kanaletik. Hitzaldia eman zen bitartean, 90 jarraitzaile izan zituen.

2020a ez dugu gogoratuko zenbaki edo datuengatik,

baizik eta egunero egindako **ahaleginagatik**, zertarako eta, Covid-19a eta guzti, liburutegiek egunero ateak ireki zituzten. Gure inguruan, beste langile batzuk etxetik ari dira, ez dute jarduten aurrez aurre. **Liburutegiak aurrez aurreko harremanetan oinarritzen dira batik bat**. Alderdi digitala garrantzitsua da, baina liburutegia gero eta estimatuagoa izango da irakurketarako eta aisiarako toki gisa.



funtsak

GUZTIRA	598.471
Sarbide librea	494.489
Historiko katalogatua	103.982
GUZTIRA	
Liburuak	471.707
CD	35.713
CD ROM	1.736
DVD	61.667
Bideo jokoak	1.705
Mapak	232
Material grafikoa	3.672
Partiturak	8.893
Aldikako argitalpenak	12.984
Ordenagailu eramangarriak	34
E-reader / iPad	55
Mahai jolasak	69
HIZKUNTZAREN ARABERA	
Euskaraz	110.393
Gaztelaniaz	430.780
Besterik	57.298
ALTAK	38.109
BAJAK	21.112
BILDUMAREN HAZKUNDEA	4,34%
BILDUMAREN ERABERRITZEA	6,37 %

LIBURUTEGI ZERBITZUA ZENBAKIETAN

maileguak

GUZTIRA	296.265
Maileguak eguneko	1.433
EUSKARRIAREN ARABERA	
Helduentzako liburuak	138.945
Haurrentzako liburuak	91.635
CD	5.597
DVD helduak	35.017
DVD haurrak	14.670
CD ROM	156
Aldikako argitalpenak	3.582
Mapak	5
Partiturak	1.170
Bideo jokoak	2.815
E-reader / iPad	69
Mahai jolasak	0
Ordenagailu eramangarriak	2.604
HIZKUNTZAREN ARABERA¹	
Euskaraz	44.436
Gaztelaniaz	191.670
Besterik	47.000
E-LIBURUTEGIA	17.606
FUNTS HISTORIKOEN KONTSULTAK	293
HEMEROTEKA KONTSULTAK	548

¹ Luzapenik gabe



bazkideak

GUZTIRA	91.719
Helduak	78.692
Haurrak	12.511
Besterik	516
Gizonak	41.409
Emakumeak	49.816
BERRIAK	2.848
Helduak	2.070
Haurrak	693
Besterik	85
Gizonak	1.206
Emakumeak	1.558
AKTIBOAK	21.100
Helduak	15.800
Haurrak	4.971
Besterik	329
Gizonak	8.843
Emakumeak	11.943

bisitariak

GUZTIRA	409.182
EGUNEKO	1.968

kontsultak

INTERNET / CD ROM	
KZguneetan	14.376
Aretoan	18.461
WIFI	24.932
OPAC	377.933
WEB	282.288
HEMEROTEKA DIGITALA	668.274
LIBURU DANTZA	5.272

jarduerak

GUZTIRA	718
ETORRITAKOAK	10.806
ERAKUSKETAK	1
ONLINE	107
IKUSTALDIAK	166.806
ZOOM, JITSI MEET	9
KONEXIOAK	108

azalera

M2	8.959
APALAK METRO-LINEALA	8.702
IRAKURTZEKO GUNEAK²	551

² %50eko aforoa



Liburutegi Nagusia

Sorrera urtea eta irekiera leku berrian 1874 (1999)

Funtsak	149.425
Sarbide libreko funtsak	68.692
Funts historiko sailkatua	80.733
Altak	9.636
Bajak	2.026
Maileguak	67.124
Maileguak eguneko	288
Kontsultak funts historikoan	293
Kontsultak hemerotekan	548
Bisitak	114.155
Bisitak eguneko	490
Jarduera kopurua	167
Jardueretara etorritakoak	2.670
Erakusketak	1

Liburutegi Nagusia Haur Saila

Haur Liburuaren Dokumentazio Gunea

Sorrera urtea eta irekiera leku berrian 1970 (1994)

Funtsak	48.799
Sarbide libreko funtsak	32.468
Funts historiko sailkatua	16.331
Altak	2.794
Bajak	1.626
Maileguak	18.902
Maileguak eguneko	84
Bisitak	15.123
Bisitak eguneko	75
Jarduera kopurua	61
Jardueretara etorritakoak	1.273

AIETE K.E. Liburutegia

Sorrera urtea 2010

Funtsak	34.959
Altak	2.630
Bajak	856
Maileguak	28.058
Maileguak eguneko	125
Bisitak	31.567
Bisitak eguneko	140
Jarduera kopurua	22
Jardueretara etorritakoak	501

ALTZA K.E. Liburutegia

(Larratxo) Sorrera urtea 1987

Funtsak	19.187
Altak	1.315
Bajak	69
Maileguak	5.708
Maileguak eguneko	32
Bisitak	11.296
Bisitak eguneko	64
Jarduera kopurua	8
Jardueretara etorritakoak	57





CASARES-TOMASENE K.E. Liburutegia

Sorrera urtea eta irekiera leku berrian 1986 (2006)

Funtsak	40.990
Altak	2.766
Bajak	2.331
Maileguak	23.896
Maileguak eguneko	106
Bisitak	37.186
Bisitak eguneko	165
Jarduera kopurua	57
Jardueretara etorritakoak	654

EGIA K.E. Liburutegia

Sorrera urtea 1997

Funtsak	28.547
Altak	2.160
Bajak	3.822
Maileguak	13.989
Maileguak eguneko	79
Bisitak	9.708
Bisitak eguneko	55
Jarduera kopurua	75
Jardueretara etorritakoak	933

ERNEST LLUCH K.E. Liburutegia

Sorrera urtea 2001

Funtsak	42.491
Altak	3.307
Bajak	465
Maileguak	36.444
Maileguak eguneko	161
Bisitak	48.424
Bisitak eguneko	214
Jarduera kopurua	101
Jardueretara etorritakoak	1.123

INTXAURRONDO K.E. Liburutegia

Sorrera urtea eta irekiera leku berrian 2000 (2011)

Funtsak	48.823
Altak	3.134
Bajak	5.343
Maileguak	25.105
Maileguak eguneko	127
Bisitak	31.921
Bisitak eguneko	162
Jarduera kopurua	59
Jardueretara etorritakoak	829



Jardueretan parte hartzeagatik, liburuak opari.



LARROTXENE K.E. Liburutegia

(Intxaurren) Sorrera urtea 1988

Funtsak	14.949
Altak	1.215
Bajak	566
Maileguak	6.754
Maileguak eguneko	39
Bisitak	9.651
Bisitak eguneko	56
Jarduera kopurua	28
Jardueretara etorritakoak	326

LOIOLA K.E. Liburutegia

Sorrera urtea 1987

Funtsak	35.427
Altak	1.919
Bajak	729
Maileguak	12.983
Maileguak eguneko	74
Bisitak	13.380
Bisitak eguneko	76
Jarduera kopurua	24
Jardueretara etorritakoak	383

LUGARITZ K.E. Liburutegia

(Antigua) Sorrera urtea 1993

Funtsak	36.352
Altak	2.514
Bajak	683
Maileguak	16.913
Maileguak eguneko	96
Bisitak	19.527
Bisitak eguneko	110
Jarduera kopurua	49
Jardueretara etorritakoak	789

OKENDO K.E. Liburutegia

(Gros) Sorrera urtea eta irekiera leku berrian 1987 (2004)

Funtsak	44.055
Altak	3.082
Bajak	1.382
Maileguak	33.495
Maileguak eguneko	185
Bisitak	46.662
Bisitak eguneko	258
Jarduera kopurua	60
Jardueretara etorritakoak	715



Mattin, Marrazkiz Blai.



URGULL Liburutegia

Sorrera urtea 1997

Funtsak	5.476
Altak	38

EGUZKITEKA

Sorrera urtea 2017

Funtsak	2.346
Altak	97

DONOSTIAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO Liburutegia

Sorrera urtea 2006

Funtsak	19.883
Altak	229
Bajak	755
Maileguak	3.115
Maileguak eguneko	15
Bisitak	14.581
Bisitak eguneko	68
Jarduera kopurua	66
Jardueretara etorritakoak	853

SAN TELMO MUSEOA Liburutegia

Sorrera urtea 2011

Funtsak	16.868
Sarbide libreko funtsak	9.950
Funts historiko sailkatua	6.918
Altak	461
Bajak	29
Maileguak	609
Maileguak eguneko	4
Bisitak	1.538
Bisitak eguneko	9
Jarduera kopurua	2
Jardueretara etorritakoak	75



Ipuinaren Ordua.



CRISTINA ENEAKO INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEKO Liburutegia

Sorrera urtea 2002

Funtsak	2.650
Altak	0
Bajak	10
Maileguak	24
Maileguak eguneko	0
Bisitak	666
Bisitak eguneko	2
Jarduera kopurua	0
Jardueretara etorritakoak	0

AMUNDARAIN MEDIATEKA

Sorrera urtea 2006 (2018)

Funtsak	5.238
Altak	295
Bajak	420
Maileguak	3.074
Maileguak eguneko	18
Bisitak	3.660
Bisitak eguneko	21
Jarduera kopurua	1
Jardueretara etorritakoak	6



ESKURA GIZA ESKUBIDEEN ARLOKO BALIABIDE PEDAGOGIKOEN ZENTROA

Sorrera urtea 2019

Funtsak	2.006
Altak	517
Bajak	0
Maileguak	72
Bisitak	137
Jarduera kopurua	6
Jardueretara etorritakoak	88



A maitu zen 2020. urtea, urte zinez zaila, parekorik gabea; ez ahal du atzetik berdinek izango. Argi-itzaletan amaitu zen. Ikasi dugu gauza batzuk gure gaintetik ditugula, ezin ditugula ez kontrolatu, ez ezereztu: Covid-19aren pandemia da horietako bat, pandemia historikoa inondik ere. Lehenik, ustekabeen harrapatu gintuen, ezin genuen sinetsi zer ari zen gertatzen; doi-doi egin ahal izan genuen dFERIA. Estrategia bat zertzen hasi ginen hura gainditzeko, edo haren ondorioak ahalik eta gehien arintzeko behinik behin. Lehen konfinamendutik hasi ginen lanean, lehen unetik. Laguntza eman genien artistei, nola eta aurrekaririk gabeko online programa baten bidez, DKetxean, gar eszenikoa piztuta edukitzeko eta artistei behar zuten babesa emateko xedez, jakinik zer egoera zetorkien, katearen begi ahulena baitira.

30 ikuskizun utzi genituen bertan behera martxoaren 15a eta ekaina bitartean. Gai izan ginen haietarik %60 berreskuratzeko 2020ko

ekaina eta abendua bitartean. Eta beste %15 berreskuratuko dugu 2021ean. Gai izan ginen Victoria Eugenia Antzokia lehena izan zedin Espainiako antzokien artean atea zabaltzen, lehen konfinamenduaren ondotik. Ekainaren 10ean, hain zuzen ere, osasun langileei eskainitako gala bat egiteko. Ekainaren 13an, euskarazko lehen emanaldia; eta handik aurrera, etenik gabe gaur arte. Ondoren, 30 funtziotan jarri genuen *sarrera guztiak salduta* kartela. Betekada horiek, besteak beste, **Donostia Kulturaren ezarritako protokolo bikainei esker izan ziren, oso-oso lagungarriak izan baitziren ikus-entzuleen konfiantza berreskuratzeko**, antzokietan eroso eta seguru senti zitezten. Gainera, eskaintza oso ondo pentsatua eta kalitate eta interes handikoa izan zen. Une garrantzitsuak izan genituen, hala nola Donostia Antzerki Saria, euskaraz; Ballet T Egunak; Udako Antzerkiaren programazioa; edota 2020ko dFERIA bera. Zoritxarrez, ezin ahaztu edukiera murrizketak, bertan behera geratutako ikuskizunak,

eskoletako kanpainak ezereztu izana edota Donostiara etorri gabe geratu ziren musikal handiak.

ARTE ESZENIKOAK

Lehen hiruhilekoa sekulakoa izan zen. Kantitatez, aniztasunez eta programaturiko ikuskizunen kalitateagatik, eta batik bat ikus-entzuleen erantzun itzelagatik, pentsarazteraino ezen errekor guztiak hautsiko genituela, **hiru hilabeteetan 12.000 ikus-entzule** izan eta gero, dFERIAz gain. Esan bezala, dFERIA martxoaren 9tik 12ra egin zen. Lau egun luze haietan hasi ziren ixten antzokiak, Espainiako Estatu osoan, harik eta konfinamendu orokorra iritsi zen arte, martxoaren 14an. Hortik aurrera, dena berria izan zen, ezezaguna... Ziurgabetasuna eta irregulartasuna ezarri zitzaizkigun, bitzita pertsonalean zein profesionalean. **Berriro irekitzea ona izan zen, indartsu hasi ginen, ikus-entzuleen babesa genuela.** Udan han-hemen izandako kasu berragertzeek ondorio kaltegarri zuzena izan zuten sarrera salmentan, albisteen arabera bizkortzen edo moteltzen baitzen.

Bereziki helduentzako euskarazko antzerki proposamenak defendatzeko hautua egin genuen. Halaxe egin ere, eta ikus-entzuleen aldetik jasotako erantzuna harrigarri ona izan zen.

Urte osoan erabateko betekada izan zuten 30 funtzioetatik 13 euskarazko ikuskizunetan lortu ziren. Oso emaitza onak dira horiek, eta horrek animatzen gaitu pentsatzera azken 20 urteotan eremu horretan egindako lana, programazioan behin eta berri saiatzea eta Euskararen

Dead. Lasala.





Tak Bat. ATX Teatroa.



© Virginia Barbero

La transfiguración del mastodonte.
Teatro Abadía.

Udal Zerbitzuarekin batera antolatutako saria etekina ematen ari direla azken urteotan. Esan dezakegu euskarazko antzerkiaren kontsumoa sendotu egin dela ikus-entzule gazte eta helduen artean, horrek euskarazko dramaturgiari eta arte arloari dakartzkion ondorio on guztiekin. 9.768 ikus-entzule izan ziren Donostia Kulturaren agertokiatarako programaturiko 47 funtzioetan, hasi Victoria Eugenia Antzokiko agertoki nagusitik eta areto txikiagoetaraino, hala nola hango Klubean, adibidez.

Euskarazko antzerkiaren aldeko lan horrek erpina jo zuen Donostia Antzerki Saria emateko galan, helduentzat euskaraz emandako ikuskizunik onenarentzako saria, zeinak dirutza baitu berekin, eta ekitaldi horretan bertan antzezlan saritua antzeztu eta irabazleari artelan plastiko bat ematen baitzaio. 2020an, 2019ko Ekoizpen Onenari emandako saria ATX TEATROrentzat izan zen, **Tak Bat** lanagatik: “Nondik dator gizakiaren gaiztakeria? Berezkoa al du? Ezinbestekoa al da? Gure kulturako zazpi bekatu

kapitaletatik eta *bekatu* kontzeptu orokorretik abiatuta, izaki berri bat ekarri dugu bizitzara, Victor Frankesteinek egin zuen bezala; piztia dorpe, basati eta anker bat... Komikotasunez, satiraz eta sarkasmoz beteriko hizkuntza, denok alfonbrapean ezkutatu nahi izaten dugun huraxe argitara ekartzeko”.

Arte eszenikoak etorkizuneko ikus-entzuleei hurbiltzea beste ardatz estrategiko bat izan da Donostia Kulturarentzat ikus-entzuleria berriak sortzeari dagokionez. Gazteenei eszenaren eta arte bizen aldeko zaletasuna txertatzea, forma eta edukietan berritzaile diren ikuskizunen bitartez, eta gainera sortzaile berrien eskutik. Goraipatzekoa da zenbait kultur etxetan egindako lana: Egiakoan, Gazteszenaren bitartez, edota Antiguakoan, Imanol Larzabal aretoan. Prezioen politikari dagokionez, ekinbide “izar” batek, **Ordu Gazteak**, izugarri lagundu du horretan. Edozein ikuskizunetarako sarbidea 3 eurotan izatea, 30 urte baino gutxiago dituzula erakutsiz gero eta sarrera funtzioa hasi

aurreko 30 minutuetan erosiz gero, oso modu egokia da gazte jendeari begira, aukera ematen baitzaio arte eszenikoez gozatzeko. Gainera, zaletasuna eta etorkizunerako lokarriak sortzen dira gazteen eta eskaintza eszenikoaren artean.

500etik gora izan ziren 2020an.

DANTZA

Dantzan, badira urte batzuk lankidetza estua dugula Kukai Dantzarekin, zeinak Espainiako Dantza Sari Nazionala jaso duen sorkuntza modalitatean. Folklorearen eta mito eta errito tradizionalen trataera ikusgarria du bereizgarri talde horrek, unibertsaltasunera eramaten baititu gaur egungo dantza hizkuntzaren bidez. Eta ohi bezala, Malandain Ballet Biarritz, Victoria Eugenia Antzokiaren lankide estu eta etengabea 2007tik, urtero zenbait emankizun dakarrena antzokira. Malandain Ballet eta Kukai parte-hartzaile nagusiak dira urte osoan zehar antolatzen diren **prestakuntzarako eta dantzaren**



alde sentsibilizatze jarduera

koreografikoetan: topaketak, eskolak, tailerrak, laborategiak eta abar. Berritasunen artean, 2020an ere BALLETT EGUNAK izeneko programa antolatu izana dugu, Donostia Kulturaren urte osoan zehar antolatzen den jarduera koreografikoa ikusgai jarri eta ezagutarazteko: ikasleentzako emanaldiak, ibilaldi koreografikoak hirian barrena, erakusketak, lantegiak eta baita estreinaldi bat ere. Horiek guztiek asteburu betea osatu zuten dantzaren inguruan.

Azpimarra dezagun, halaber, Dantzaren Profesionalen Elkarteak dantza sustatzeko eta garatzeko egiten duen lana, zeinaren adierazlerik nabarmenena Dantzaren Hilabetea antolatzea baita, eta zehatzago, Dantzaren Gala, Victoria Eugenia Antzokiarekin lankidetzan. Ez dugu ahaztu nahi Verdini, ez eta dantza urbanoak, tradizionalak edota flamenko hutsa interpretatu zuten konpainiak ere. **Denen artean, urte koreografiko koloretsua eta ñabarduraz betea eskaini zuten.**

EKOIZPENAK

Victoria Eugenia Antzokia arte eszenikoen arloko eragile dinamizatzailea da (antzerkia, dantza eta, gutxiago bada ere, zirkua), eta urtero, urratsez urrats, aktiboki hartzen du parte sektorea ehuntzen. Antzokia ikuskizunen erakustoki bat baino gehiago da. Antzoki dinamikoa izan nahi du, kudeaketa bide berriak urratuko dituen, erronka berriei ekingo diena eta erakuste hutsa baino harago iritsiko dena, konpromisoak hartuz eta modu desberdinean inplikatur proiektuetan, modu beteagoan. Gastuak partekatuz



La sumisión y el porvenir está en los huevos. Morfeo Teatro.

ez ezik, ikuskizunaren garapenean eta geroko bizitzan parte hartuz. Hortik dator koproduzitzeko asmoa, parte batean bada ere, eta lagundu, bermatu, bultzatzekoa... Azken buruan, proiektuan parte hartzekoa. Produzioen kostu handiek eta ondorengo banaketaren zailak bat egitera eta arriskuak hartzera behartzen gaituzte. **Sortzeko arriskuak hartzera, alegia, lasaitasun handiagoz eta baliabide gehiagoz, zertarako eta emaitza artistiko onak** eta ustiatzealdi luzeagoak lortzeko.

Victoria Eugenia Antzokiak honako ikuskizun hauek koproduzitu zituen 2020an:

La pastoral

Koprodukzioa:

Chaillot Théâtre National de la Danse
• Beethoven Jubiläums Gesellschaft (Alemania)
• Norddeutsche Konzertdirektion Melsine Grevesmühl GmbH • Theater Bonn (Alemania)
• Le Parvis Scène Nationale Tarbes Pyrénées • Opéra de Reims • Ballet T • Donostia Kultura - Donostiako Victoria Eugenia Antzokia • CCN Malandain Ballet Biarritz
Koreografia: Thierry Malandain
Musika: Ludwig van Beethoven (6. Sinfonía, Pastoral, Kantata op. 112)

Sisiforen paperak (euskaraz) / Los papeles de Sisifo (gazteleraz)

Koprodukzioa:

ANTZ3RKIZ (Arriaga Antzokia - Gasteizko Principal Antzokia - Donostiako Victoria Eugenia Antzokia), CDN-Centro Dramático Nacional
Autorea: Harkaitz Cano
Zuzendaritza: Fernando Bernués
Eszenografia: Ikerne Giménez

La celda sin noche

Koprodukzioa:

NUEVAS DRAMATURGIAS-ANTZ3RKIZ (Arriaga Antzokia - Gasteizko Principal Antzokia - Donostiako Victoria Eugenia Antzokia), Festival de las ARTES de Costa Rica
Autorea: Galder Sacanell Bañuelos
Zuzendaritza: Mireia Gabilondo

La sumisión y el porvenir está en los huevos

Koprodukzioa:

Morfeo Teatro - Donostiako Victoria Eugenia Antzokia
Autorea: Eugéne Ionesco
Zuzendaritza: Francisco Negro



ESTREINALDIAK

Ikuskizun baten estreinaldia beti da momentu garrantzitsu bat, sorkuntzaren aldeko apustua da, produktu artistiko baten jaiotza babestea, ilusioz eta etorkizunerako itxaropenarekin.

Otsailaren 28an Antzoki Zaharrea estreinatu zen Vaiven Teatroren **Ni, munduko txarrena** euskaraz. Egun batzuk beranduago gaztelaniazko bertsioa estreinatu zen: **Yo, la peor del mundo**.

Gazteszenan **It's a wrap (Kubrick is dead)** estreinatu zen, martxoaren 7an, La Intrusa Danzaren eskutik.

Covid efektua eta hiru hilabetez geldirik egoteak sekulako geldialdia eragin zuen sektore osoan: mota guztietako funtzioetan, atzerapenak ekoizpen prozesuetan eta estreinaldiak bertan behera uztea. Baina, oraingoan, alderdi positiboa nabarmendu behar dugu: **hainbat ikuskizunen nazioarteko estreinaldiak izan genituen gurean**. Donostiako udal antzokiek ez dute ixten

eta programazio zabala eskaintzen dute udan, eta hori ere lagungarria izan zen. Jarraian dituzue estreinaldi horiek:

Gu primer, XENTIMORIK GABE. Ramón Agirre, Inaxio Tolosa eta Nerea Gorriti. Ekainaren 13an, Antzoki Zaharrea.

Los mojigatos, Gabino Diego eta Cecilia Solaguren. Victoria Eugenia, uztailaren 15ean.

La habitación de María, Concha Velasco. Abuztuaren 19an, Victoria Eugenia.

Irabazi, Jon Plazaola. Abuztuaren 26an, Antzoki Zaharrea.

Desmontando a Séneca, Jorge Javier Vázquez. Irailaren 10ean, Victoria Eugenia.

Zehar, Asier Zabaleta. Irailaren 12an, Gazteszena.

¡¡Por todos los dioses!!, Fernando Cayo. Urriaren 10ean, Antzoki Zaharrea.

Loser, Osa + Mujika. Urriaren 31n, Gazteszena.

Dead, Lasala. Abenduaren 19an, Gazteszena.

SENTSIBILIZAZIOA

Prestakuntza jarduerak eta arte eszenikoetan sentsibilizatzeko jarduerak, horra gure unitatean modu berezian zaintzen dugun ardatza. Urtean 1.641 lagun mugiarazten ditu topaketa, tailer, masterclass, truke eta abarren bitartez.

DRAMATURGIA BERRIAK

Dramaturgia berriak Donostia Europako 2016ko Kultur Hiriburu izateak utzitako ondarea da, eta Bilboko Arriaga Antzokiarekin eta



Los mojigatos.



La habitación de María.



Gasteizko Principal Antzokiarekin batera daramagu aurrera. Programaren helburua sortzaileen eta dramaturgoen sare bat sortzea da, zertarako eta, ohiko bakarkako lana eta hain ohikoa ez den talde lana konbinatuta, material dramatikoaren harrobia osa dezan, antzerki konpainientzat eta sorkuntza eszenikoarentzat erreferente izango dena. Orobat, ekinbide honen helburua antzerki testu berriak sortzea da; testua, partitura gisa ulerturik, zuzendari bati ematen zaiona eszenara dezan. Hautaturiko pertsonak, gehienez ere zortzi, obra dramatiko bat garatu beharko dute lau hilabeteetan, arte eszenikoetako profesionalen gidaritzapean: Patxo Telleria eta Mireia Gabilondo.

Victoria Eugenia Antzokia

Copenhagen. Teatro de palabra.

1941ean Danimarkan gertaturiko topaketa bat kontatzen da, Niels Bohr daniar zientzialari handiaren eta haren ikasle ohi Werner Heisenberg nazien ordezkariaren artean; biak ere elkarren etsai Bigarren Mundu Gerran. Fisika

teorikoko aurrerapenak arma nuklearrak garatzeko erabiltzearen arazo etikoa da antzezlanaren gai nagusietako bat. Agertokian, **Michael Frayn-en obra hau interpretatzen, Emilio Gutiérrez Caba, Carlos Hipólito eta Malena Gutiérrez, Claudio Tolcachir-en zuzendaritzapean.**

La ternura. Erregina batek gorroto ditu gizonak, beti baldintzatu diotelako bizitza eta askatasuna kendu diotelako, eta ez dago prest alabek patu bera izan dezaten. Samurtasuna da maitasunaren adierazpidea; samurtasunik gabeko gizartea gerran den gizartea da. Shakespeareren komedien unibertsoan inspiratua da *La ternura*, Alfredo Sanzolek zuzentzen du, eta Antzerki Ikuskizun Onenaren Max Saria irabazi zuen 2019an.

Jauría. *Jauría* La Manadakoei egindako epaiketaren transkripzioetatik abiatuta sortutako antzezlan da, salatuen eta salatzailearen adierazpenen zatiak komunikabide batzuetan argitaratu ziren bezala hartu eta eraikia. Fikzio dokumentala, alegia. Epaiketa hura

muga izan zen ordura artekoaren eta ondorengoaren artean. María Hervás da aktore taldearen buruan. *Jauriak* Antzerki Ikuskizun Onenaren Max Saria irabazi zuen 2020an. Gainera, Genero Indarkeriaren Kontrako Kultura Saria jaso zuen 2019an, Berdintasunaren Ministerioak emana emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko egin duen ekarpenagatik, eta 2019ko Ercilla Saria jaso zuen Sorkuntza Dramatiko Onenari.

La fiesta del chivo. Ez da batere erraza Mario Vargas Llosa Nobel Sariaren maisulan hau antzerkirako egokitzea, hain baita aberatsa eta konplexua. *La fiesta del chivon*, Dominikar Errepublikako Trujillo diktadorearen azken egunak kontatzen dira. Carlos Saurak zuzendu zuen, eta Juan Echanovek egin zuen Trujillo diktadorearena.

Horra 2020. urteko adibide batzuk, non testu handiak, zuzendari handiak, lehen mailako aktoreak izan genituen gure gozamenerako, kalitatezko programazio batean non hitza eta eduki interesgarriak izan baitira protagonista. Programazioa



Copenhagen.

Producciones Teatrales Contemporáneas.



© Vanessa Rabade

Jauría.



gai izan zen pultsuari eusteko eta ikus-entzuleen arreta erakartzeko hain urte bihurri eta berezian.

Antzeko zerbait esan daiteke dantzari dagokionez ere. Aipa ditzagun hiru ikuskizun aparteko:

iVIVA! Higiduraren askatasunari egindako kantua, non emetasuna norberaren osagaitzat onartzen baita gorputz maskulinitatik. Genero patrioiak, flamenkoa bezala kodeturiko mundu batean, alaitasunetik eta gozamenetik hausten dira, alor berriak sortuz, alor urratu gabeak baina ez arrotzak, hala ere... Ospakizunaren moldean, Manuel Liñánek dantzaren aniztasuna proposatzen du, hainbat forma eta forma bakoitzaren berezitasuna. Eta hori sei bailaor-dantzarekin batera egiten du; horiek arakatu eta murgilduko dira emetasunaren unibertso liluragarri horretan, maskulinitatetik murgildu ere, eta horrela azalduko dituzte bi identitate horiek, geure izatearen osagai direnak.

La Pastorale. Ludwig van Beethoven-en jaiotzaren 250. urteurrena zela eta, eta Bonn-go Operak gonbidaturik -konpositorearen jaioterrikoa-, Thierry Malandainek ballet berria

sortu zuen, *La Pastorale*, zeinak 6. Sinfonia, Opus 112 Kantata eta *Atenasko hondakinak* laneko motibo batzuk konbinatzen baititu.

Hnuy illa. 1995ean, Joseba Sarrionandiak poema liburu bat eman zuen argitara, euskal literaturan mugarri dena: *Hnuy illa nyha majah yahoo*. Kukai Dantzak, bere 25. urteurrena zela eta, liburuaren berrargitalpena eta hartan oinarritutako ikuskizunaren bertsio berria prestatu zituen. Alegia, Kukai Dantzak aurreko lan haren berrikuspen eguneratua egin zuen. Musikaren alderdian, Mikel Laboak maisuki bihurtu zuen musika Sarrionandiaren poesia. Eta Laboarekin batera, haren kide min bat: Iñaki Salvador. Bien musika izan zen ikuskizunaren soinu bandaren ardatz nagusia, Ruper Ordorikaren eta Maria Berasarteren lankidetzarekin batera. Koreografia Jon Maiak (Kukai) sinatua da, eta gidoia eta eszena zuzendaritza, berriz, Mireia Gabilondok (Tanttaka).

Antzoki Zaharra

Antzoki Zaharra **Euskal Herriaren euskarazko antzerkiaren programazio egonkor eta erregular** bakarraren zutabe nagusia da, eta badira zenbait urte horretaz



Gu primer!. Xentimorik Gabe.

arduratzen direla Donostia Kultura eta Euskararen Udal Departamentua. Kale Nagusiko agertokitik pasatzen dira euskarazko antzerkian dabilztan konpainia nagusiak, hala nola Tartean, Ados, Tanttaka, Vaivén, Txalo, Laurentzi... Nabarmendu ditzagun Tartean Teatroaren **Simplicisimus Kabaret**; baita Xentimorik Gabe ere, **Gu primer!** lanarekin, non Inazio Tolosak eta Ramon Agirrek sekretu bat aterako baitute argitara: ez amerikarrak ez errusiarak, euskaldunak izan ziren ilargira iristen lehenak (*Gu primer!*). Inazio Tolosa, Ramon Agirre eta Nerea Gorriti dira Egoitz Lasak eta Ramon Agirrek berak idatzitako lan honetan protagonista, eta Asier Sota, berriz, zuzendaria. Edo nabarmendu dezagun Txaloren **Ene ba! (Izena)**, non Asier Sota, Ane Gabarain, Mikel Laskurain, Joxe Kruz Gurrutxaga eta Alazne Etxeberria baitira komedia honetako aktoreak, eta Begoña Bilbao, berriz, zuzendaria.



iViva!.
Manuel Liñan.



DFERIA

dFERIA, arte eszenikoen feria, ikus-entzuleen eta kritikarien artean arrakasta handia lortuta amaitu zen, “oso sentsazio onekin”. dFERIAren hogeita seigarren edizioan, *leitmotiv*-a “pasioa” zen, eta 32 ikuskizunen 42 funtzio programatu ziren 8 agertokitan. Guztira, 7.649 lagun izan ziren programaturiko emanaldietan, eta, batez beste, %81ekoa izan zen aretoen okupazioa. Pertsona akreditatuei dagokienez, azken edizioetako mailari eutsi zitzaion.

dFERIAk ikus-entzuleei eskaintzen dien antzerki eta dantza jaialdiarekin batera, jarduera profesional betea nabarmenduko dugu: bilerak, topaketak, erakusketak, harreman profesionalak, proiektu aurkezpenak, negozio bilerak, tailerrak.

GAZTESZENA

Egia Kultur Etxeko aretoak **lan bikaina egiten jarraitzen du dantza garaikideari buruz**. Dani Abreu, Asier Zabaleta, Chloé Brûlé eta beste artista batzuek, edota Lasala, Brodas eta beste zenbait konpainiek, urtero-urtero parte hartzen dute proposamen ondo hautatuak eginez, ikus-entzule gazteen konplizitatea beretuz. Euskal sorkuntza koreografikoari laguntzea ere betiko asmoa da, eta sorkuntza indartu eta sektorearen parte handi bati eusten dio.

Helduentzat egindako euskarazko antzerkiari dagokionez, berriz, ikuskizun ederrak azpimarratu behar dira, hala nola **Fadoak entzuten zituen gizona**, XAKE Kolektiboaren ekoizpena: “Pentsatu al duzue inoiz zergatik diren ezagunagoak

emakume fado-kantariak gizonezko fado-kantariak baino? Anderrek eta Mariok lehendik ezagutzen dute elkar, baina aspaldi honetan ez dute elkarren berri izan. Elkarrekin ekingo diote bidaiari, eta oso berezia izango da...”. Getari Etxegarai izan zen eszena zuzendaria, eta Iñigo Aranbarri, Kepa Errasti eta Ane Gabarain, berriz, aktoreak.

IMANOL LARZABAL

Lugaritz Kultur Etxeko Imanol Larzabal aretoak formatu txikian egiten duen zeregina ere nabarmena da. Donostiarako sarbide ona da artista hasiberrientzat. Eskaintzen dituen ikuskizunek erraztu egiten dute Donostia Kulturaren esku-hartzea esku-hartze osoa eta globala izatea. Estilo desberdinak, kontzeptu desberdinak, artista gazteentzako aukera... Teatro en Vilo konpainia, esate baterako, kolektibo ibiltari bat, nazioarteko eta diziplina arteko lankidetzetarako plataforma dena mundu osoko herrialdeetatik etorritako eszena sortzaile, artista eta ikertzaileen artean. Konpainiak etengabeko elkarrizketa lortu nahi du bere inguru sozial, politiko eta pertsonalarekin, eta horrek hizkuntza eszenikoa berritzera behartzen du. Edota Histrión Teatro konpainia, zeinaren ibilbide artistikoa bi osagai funtsezkoen gainean oinarritzen den: testuaren defentsa proposamen artistikoa irmo zurkaizten duen osagai estruktural gisa, eta interpretazioa interpreteen eta ikus-entzuleen arteko lotura estu gisa. 1994tik konpainia honek 21 antzerki-ikuskizun ekoitzi ditu.



Loser. Osa & Mugika.



No Sin Mis Huesos & Kintsugi. Iron Skulls.



¿Cómo hemos llegado a esto?. Erre Produksioak.




	Lanak	Emanaldiak	Ikus-entzuleak	Ordu Gaztea
Antzerkia				
NEGUKO DENBORALDIA GUZTIRA	69	97	17.970	137
Antzerki profesionala (euskaraz)	16	28	4.898	18
Antzerki profesionala (gaztelaniaz)	18	24	7.988	114
Haurrentzako antzerkia (euskaraz)	14	14	1.614	
Haurrentzako antzerkia (gaztelaniaz)	0	0	0	
Klub Aretoa (euskaraz)	0	0	0	
Klub Aretoa (gaztelaniaz)	1	2	92	5
Antzerki amateurra (euskaraz)	7	7	493	
Antzerki amateurra (gaztelaniaz)	6	6	658	
Eskolatik Antzokira	2	10	1.262	
Kale antzerkia (euskaraz)	3	3	455	
Kale antzerkia (gaztelaniaz)	0	0	0	
Kale antzerkia (testurik gabe)	1	1	175	
Besteak (gaztelaniaz)	1	2	335	
UDAKO DENBORALDIA GUZTIRA	15	63	14.357	349
Antzerki profesionala (euskaraz)	5	19	4.870	134
Antzerki profesionala (gaztelaniaz)	10	44	9.487	215
Klub Aretoa (euskaraz)	0	0	0	0
Dantza				
Dantza	27	31	4.845	44
Dantza profesionala	23	23	4.419	38
Klub Aretoa	4	8	426	6
Musikalak				
Musikalak	0	0	0	
Zirkua				
Zirkua	0	0	0	
Jaialdiak				
Jaialdiak	48	69	11.486	
dFERIA	31	34	7.649	
Poltsiko Antzerkia	16	34	3.629	
Gazteen Antzerki Topaketa	1	1	208	
		Jarduerak	Egunak	Parte-hartzaileak
Beste jarduerak		31	89	1.641
DANTZA		29	87	1.536
ANTZERKIA		2	2	105



Donostia Kulturaren, musikaren emanaldiei eta hedapenari dagozkien ekintzetan hainbat eta hainbat agertoki, lankidetzeta, proposamen eta estilo izaten dira tartean. Covid-19ak hasieran diseinaturiko programa etetera behartu gintuen, baina proposatutako birplanteamenduari esker, musika jarduerak aurrera egin zuten, ezarritako araudiari egokitu eta gero: edukiera murrizketak, distantzia soziala, musukoa derrigor eraman beharra... Donostia Kulturak asmatu egin du ikus-entzuleen segurtasuna bermatzen, eta aldi berean dinamizazio lana egiten ere bai, hori baitagokio Donostiako kultur eragile nagusia den aldetik.

Victoria Eugenia Antzokiaren programazioak eskaintza horretako proposamen interesgarrienetako batzuk bildu zituen 2020an. Hona



Grande Days-Elena Setién.

hemen izen batzuk, erakusgarri gisa: **Devendra Banhardt, Coque Malla, Zaharra**; edota **Ene kantak**, hain harrera ona izan zuena. Itxialdi ondorengo programa, ulertzekoa denez, bertakoagotu egin zen: Beethovenen jaiotzaren 250. urteurrena ospatzeko zikloak ondo merezitako omenaldia egin zion konpositore goren hari, euskal musikari gogotsu batzuen eskutik. **Zea Mays, Lou Topet** edo **McEnroe** izan ziren, besteak beste, egoerak bide eman zienean

Devendra Banhardt.





programan sartutako artista batzuk. Urtean aurrerago, **Silvia Pérez Cruz**ek ere sekulako hiru kontzertu eman zituen, bildutako ikus-entzuleen gozamenerako.

Antzoki Zaharrak musika produkzioa errotik gutxitu izana jasan zuen, Covid-19ak behartutako murrizketak zirela eta. Kontzertu batzuk Victoria Eugenia Antzokira eraman behar izan ziren. Hori dela eta, 2020an bi emanaldi besterik ez ziren izan han. Nolanahi ere, **Grande Daysek Elena Setienekin** emandako ikuskizunak astindu egin zituen ikus-entzuleak, eta bai musikariek eta bai haiek pozarren bizi izan zuten gertaldia. Antzoki Zaharreko agertokian izan zen beste kontzertua **Iparragirrearen jaiotzaren 200. urteurrena** zela-eta egindako musika eta antzerki ikuskizuna izan zen, ehun bat lagunek baizik gozatu ez zutena.

Donostia Kulturako Musika Departamenduak programatzen du **Kursaal Eszenaren Herri** Musika

saila. Hasieran **Kursaal Zentroko Auditorioan** egitea pentsaturiko **zortzi** emanaldietatik, **hiru** bertan



Mary Stallings.

Olatz Zugasti.



© Pablo Jaén

McEnroe.

Don Inorrez.



behera geratu ziren. Pandemia baino lehen, **1.800 lagunek** gozatu zuten **Los Secretosen** kontzertuarekin. Programazioa Covid-19aren kontrako neurrien arabera nahitaez birplanteatu beharra izan genuenez geroztik, beste **1.638 lagun** izan ziren Izarok hiru egunetan eman zituen **sei kontzertuetan**, eta **800** lagun, berriz, **Hesia Urraturik**-en, Joxan Goikoetxeak idatzitako oratorio sinfonikoa, **Xaber Leteren heriotzaren 10. urteurrena**

gogoratzeko. Zoritxarrez, Amaral eta Amaiaen kontzertuak bertan behera utzi behar izan ziren.

Egoera honetan inoiz baino gehiago, nabarmentzekoa da Donostia Kulturak betetako lekua, musika panoramaren dinamizatzailer gisa. Kontratazioa bultzatu zuen bertako agentzia eta promotoreen bitartez, harremanetan jarraitu nahi izan genuen beste musika instituzio batzuekin, hala nola **Donostia Musika** edo **Kamerata**

Euskadivarius-ekin, eta ahalegin nabarmena egin genuen enpleguak gal ez zitezen musikaren arloan.



The Opera Locos.



Gatibu.



Joserra Senperena.



© Peter Ganmushkin

Jaimie Branch.

Musika Unitateak **63** kontzertu sustatu zituen bere aretoetan (**23.500** entzule); horietatik, **22** euskarazko emanaldiak izan ziren.

63 kontzertu horietatik, **51** kontzertu Victoria Eugenia Antzokian egin ziren (Areto Nagusian), **38** gaztelaniaz eta **13** euskaraz.



2020n, ikus-entzunezkoen etxeko kontsumoak egundoko gorakada izan zuten, baina Donostia Kulturaren apustua aurrez aurreko topaketak dira, areto ilun batean, askotariko programazioak tarteko, proiektio hutsa baino harago iristeko, beren testuinguruarekin eta beren komisarioekin.

Osasun eta araudi egoerak eragina izan zuen, nahitaez, urteko zinema asmoetan. Erasan handiena **Giza Eskubideen Zinemaldiaren 18. Edizioa**, zeina apirilaren amaierarako baitzegoen aurreikusia, bertan behera uztea izan zen. Hala ere, ekainaren hondarrea hiru euskal film berreskuratu ziren, estreinatzeke zeudenak, Antzoki Zaharreko emanaldi sorta batean.

Nosferatu programak, Tabakalera, aurreikusi eta bertan behera utzitako ia saio guztiak berriro programatzea lortu zuen, eta halaxe amaitu genuen abenduan **Rainer**

Werner Fassbinder eskainitako atzera begirako mamitsua.

DK-k diruz lagundutako Zinemaldien artean, **Dock of the Bay** dokumental musikalen zinemaldiaren **XIII. edizioa** egin zen; baita **Nazioarteko Itsaspeko 44. Zinemaldia** eta film laburrei eskainitako **Donoskino IV** ere. Beharrezko izan zenean, arduratsu asmatu zuten egokitzen unean uneko egoerara.

Bang Bang Zinemak, edukiera murrizketak eta distantzia soziala zirela eta, Antzoki Zaharreko zinema jarduera hein batean geldiaraztea erabaki zuen, baina izan ziren lankidetzak eta ikus-entzule leialei egindako keinuak ere, hala nola denboraldi itxierako saio bat, ekainaren hondarrea.

Menditour-en Zinema eta Mendia saioek urtarrilera aldatu zituzten datak, eta oso harrera ona egin zitzaion; **Zinegoak** jaialdiari, berriz, 2020ko azaroan berrekin zitzaion.

Eta zinemak bere lekua hartu zuen berriro **Korneren**, kultura eta futbola batzen dituen programan.

Antzoki Zaharrak laugarren aldiz hartu zuen **Begiradak** lehiaketaren amaierako gala. Zenbait kolektiboren zinema amateurrari eskainia da lehiaketa hori, eta Ikertzek sustatzen du. **Euskara Zine Aretotara** programak, zeinak, Tinkorekin egindako itun bati esker, milaka ikasle pantaila handira hurbiltzen baititu ikasturtean zehar, onlinea egokitu behar izan zuen apiriletik aurrera, eta formatu horretan ekin zion 2020-21 denboraldiari.

Kresala zineklubak ere bere ohiko saria eman zuen urte hondarrea, film bat proiektatzearekin batera. Oraingoan, Afrikar Zinemaren Jaialdia omenduz..



Cholitas. Menditour.




Cimasub 2020.



Fassbinder.



Keeper. Korner.



Ekialdeko Errege Magoak.

ERREGE MAGOAK

2020ko urtarrilean, **Sortaldeko Errege Magoak**, urtero bezala, Donostiako haurrak agurtzera etorri ziren **Harria Parkera** (Alta). **Zaldiz iritsi ziren**, beren Errege Segizioak eta **Gauerdi** Txarangak lagunduta. Ohikoa denez, Ekialdeko Errege Magoek ibili bat egin zuten ondoren **kabrioletan**, gure hiriko auzo batzuetan zehar. Horixe izan zen egun luze eta pozgarri haren hasiera, eta gero Altzako auzotik udaletxeko terrazaraino joan ziren, bidean **Bidebieta**, **Intxaurren**, **Martutene** eta **Antigua** auzoetatik pasatuz, segizio handi batek jarraitzen ziela betiere, baita errege postariak eta **Joselontxo's** Txarangak ere.

Udaletxera iritsi eta gero, Errege Magoek udal ordezkariak agurtu zituzten, eta, atsedendaldi labur baten ondoren, urtero bezala, **harrera ekitaldiari eman zioten hasiera 15:30ean, Udaltzako Aretoan**. Harrera ekitaldiak **17:30eraino** iraun zuen, baina

17:00etatik aurrera **itxi egin zen** udaletxeko terrazarako sarrera. **Errege morroiek** jaso zituzten harrera ekitaldira iritsi ezin izan zuten haurren gutunak, eta haiek eman zizkieten Errege Magoei.


Harrera ekitaldian, Errege Magoek **zeinu hizkuntzako interprete** baten laguntza izan zuten, entzumen arazoren bat zuten

haurrek ere beren nahiak adierazi ahal izan ziezazkieten eta haiekin libreki komunikatu zitezten.


Desfilean, zeina, aurreko urteetan bezala, 18:00etan hasi eta hiriko erdialdeko kaleetan barrena ibili zen, parte hartu zuten, Errege Magoei lagun eginez, **opariak biltzeko taldeak, buruhandiek, ardi hankaluzen talde batek, trikitalariek, txarangek, bonberoek** eta errege bakoitzaren **errege mutilek** eta **errege postariak**. Berritasun gisa, 2020an **ez zen izan animaliarik desfilean**, eta Errege Mago bakoitzak **ikuskitzen ibiltariak** izan zituen segizioan, desfilearen ibilbidean zehar ikusleekin jardun zezaten.

Desfilea amaitu eta gero, Errege Magoek, **Pasai** Txarangak lagunduta, **Villa Sacramento** eta **Rezolako** zahar etxeak bisitatu zituzten.





Haur Danborrada Alderdi Ederren.



HAUR DANBORRADA


Urtero bezala, Haur Danborradaren lehen ekitaldia konpainia eta pertsonaien aurkezpena izan zen, **urtarrilaren 17an, ostiralarekin, 12:00etan, Victoria Eugenia Antzokian**. Bertan izan ziren **Eneko Goia** alkatea, zeinak **dominak** jarri zizkien **Alkatesari, Jeneralari** eta **Hiritarrari**, eta **Aginte Makila** eman zion Haur Danborradako **Danbor Nagusiari**.

Ohi bezala, urtarrilaren 20an, eguerdiko 12:00etan, desfilea Alderdi Ederretik abiatu, eta erdialdeko kaleetan barrena ibili zen. Hasi aurretik, Real Sociadateko emakumeen futbol eta hockey taldeek (**2020ko Urrezko Danborrek**, alegia) Alderdi Ederren bildutako haurrak agurtu zituzten.

Claret Ikastolako konpainia ez zen atera Haur Danborradan, eskola izateari utzi diolako.

Konpainiarik beterranoenetako bat zen, 1965ean ekin baitzion (Orduan Colegio Sagrado Corazón de María izenez).

Ikastetxe eta auzoetan egindako haur danborradak kontuan hartuta, 8.829 haurrek hartu zuten parte (4.657 neska eta 4.172 mutil).



Union Artesanako eta Gaztelubideko zuzendariak.

Union Artesana danborrada.



HELDUEN DANBORRADAK

Konstituzio Plaza txiki geratu zen berriz ere, festen hasieran parte hartu nahi zuten guztiek ez baitzuten sartzerik izan. Kalkuluaren arabera, 6.000 lagun bildu ziren bandera-jasotzean, non bi protagonista nagusi izan baitziren: **Aitor Oyarzabal** (Unión Artesanako Danbor Nagusia), Elkarteak sortu zela 150. urteurrena bete zelako, eta **Jose Mari Oiartzabal** (musikaria), festako erreperatorioari egin izan dizkion hainbat eta hainbat ekarpenengatik.

2020an, beste danborrada batzuetako **111 lagunek** hartu zuten parte bandera-jasotzean **Gaztelubiderekina batera**. Han izan ziren **Orfeón de la Castaña** eta **Kresala Dantza Taldea** ere.

Bandera-jasotzea izan zen, halaber, Donostiako zenbait auzotan, eta jende asko bildu zen denetan festen hasieran.

151 danborrada



5 berri (mistoak)

19.004 parte-hartzaile



% 93,37 mistoak


% 0,66 emakumeenak

% 5,96 gizonenak



Bandera jaistean, Unión Artesanaren sorreran izandako elkarteak gogoratzeko une bat izan zen. Suzko zezen bat erre zen, La Fraternal elkarteak XIX. mendean San Sebastian Egunez egiten zuen bezala, *Iriyarena* jo eta kantatu bitartean. Alkateak Unión Artesanako lehendakari **Javier Martínezi** eman zion

jaitsitako bandera, eta hark, berriz, oholtzan ziren elkarteko hiru lehendakari ohiri eman zien. Guztira, 93 danborradatako ordezkari banak desfilatu zuen ekitaldian Unión Artesanako danbor eta barrilekin batera, eta kalkulatu da 5.000 lagun inguru izan zirela plazan ekitaldian parte hartzen.




DONOSTIAKO KALDEREROAK

Kaldereroen konpartsa tradizionala osatzen duten 19 tribuak Parte Zaharreko kaleetan ibili ziren otsailaren leian, kanpamendua Konstituzio plazan jarri eta gero. 2020an, hala **Erregina** nola konpartsako **Damak Manchester**retik iritsi ziren, eta ez ziren bakarrik etorri, parte-hartzaileetako batzuk ere hiri hartatik etorri baitziren.

Donostiako tradizio handiko beste konpartsa batek, **Grosetako Kaldereroen Konpartsak**, omenaldia egin zion Txofreko plazan konpartsako lehendakari eta arima izandako **Kepa Madariagari**, zeina 2019ko ekainean zendu zen. Era berean, Grosetako Hungariako Kaldereroen Konpartsak 1900eko danborradako konposizio bat berreskuratu zuen: **Mariscos en tierra**. Konposizio hori berriro konpondu eta moldatu zuen **Jose Maria Oiartzabal** maisuak.

Hiriko beste auzo batzuetan ere ospatu zen Kaldereroen jaia: Altza, Amara, Antigua, Erdialdea, Egia, Gros, Herrera, Loiola eta Parte Zaharra.

Parte Zaharreko kalereroak



Kaldereroak.

Auzoetako kaldereroak



ERREGINA: John Newton

DAMAK: PAUL HOOPER ETA MARTIN BROWN



INUDEAK ETA ARTZAINAK

Gero eta ohikoagoa denez, Inude eta Artzainen konpartsak ez dira denak egun berean ibiltzen hiriko auzoetan zehar; zenbait egunetan banatzen dituzte jardunak.



otsailak 2

Parte Zaharra
Kresala Elkartea

Gros
Grosetako Artzainak eta Inudeak "Artainu"


otsailak 9

Amara Berri eta Loiolako Erriberak
Ikasbide Guraso Elkartea

Inudeak eta Artzainak.

otsailak 22

Antigua
Antiguotarra Dantza Taldea



INAUTERIAK

Otsailaren 20an, ostegunarekin, Momo jainkoa iritsi zen Donostiara, eta hala hasi ziren inauteriak; otsailaren 24ra arte iraun zuten. Inauteri egunetakoez gainera, honako hauek izan genituen: Loiolako Erriberetako desfileak, non 19 konpartsak hartu zuten parte, otsailaren 29an; Altzan, berriz, urteroko Piñata Igandea, non martxoaren 1ean, igandearekin, 22 konpartsa bildu ziren; eta, azkenik, martxoaren 7an, larunbatarekin, sei konpartsak desfilatu zuten Bidebietan.

2020an, Momo jainkoaren aukeraketa Mystic konpartsari egokitu zitzaion, eta Rubén Rodríguez Barbero hautatu zuten 2020ko Momo jainko izateko; eta Maialen Martín Esteban, Edurne Rodríguez Barbero eta Mikel Felipe Las Heras, berriz, haren segizioko kide.

Ez ziren falta izan Donostiako inauterietako konpartsa historikoak, ez eta konpartsen jarduerak eta irteerak ere hiriko auzoetan zehar. Orobat, inauterietan jarduera ugari izan ziren DKren kultur etxeetako Hautxoko eta Gaztelekuetan.



Inauteriak.

SAN JUAN BEZPERA

2020ko San Juan bezperakoa ez zen ohiko ospakizuna izan. Covid-19ak eragindako egoera ezohikoa zela eta, ezinezkoa izan zen berriz ere egun hartan Konstituzio plazan biltzea urtero udari ongi etorria egiteko ekitaldia ikustera hurbildu ohi den jendetza handia.

Ekitaldia beste ordu batean egin zen **Konstituzio plazan**: 22:15ean hasi zen, **ohiz kanpoko neurriekin**: **onartutako edukiera gutxitzea** (120 lagun baino ez ziren sartu plazan, zozketaz), **jende guztia zozketan**

aurrez esleitutako jarlekuan esertzea, **1,5 metroko tartea pertsonen artean** (hala ikusleen nola ekitaldian parte hartzen zutenen artean), musukoak derrigor erabiltzea, gel hidroalkoholikoa erabiltzea plazan sartzean.


Arte ikuspegitik, ekitaldian Orfeo Donostiarrak, Txistularien Udal Bandak eta, gero eta ohikoagoa den bezala, Goizaldi Dantza Taldeak hartu zuten parte. Berritasun bat nabarmendu behar da: Arkaitz, Eskola, Gero Axular, Goizaldi eta Kresala taldeetako bikote banak ere hartu zuen parte. Orobat, alkatea

eta Udalean diren talde politikoek ordezkari bana ere izan zen.

Azkenik, lizarraren azala ebaki eta zatikatu zen, eta ordenaz eta une oro segurtasun tartea errespetatuz, ikusleen artean banatu zen, tradizioak agintzen duen bezala.

Esandako arrazoi berberagatik, jaia ezin izan zen ospatu gure hiriko auzoetan, eta Konstituzio plazakoa izan zen Donostia osoan onartutako jarduera bakarra.





ASTE NAGUSIA / ABUZZTUA DONOSTIAN

2020ko Donostiako Aste Nagusia, Gasteizko Andre Mari Zuriaren jaia eta Bilboko Aste Nagusia bezala, bertan behera geratu zen, ezinezkoa baitzen jendetza handiak erakarriko zituzten ospakizunak egitea, pertsonen arteko kontaktua galarazteko.

Jardueri ahal zen neurrian eutsi nahian, kulturatik bizi direnek beren zereginetan jardun ahal izateko, eta herritarrei baikortasun halako bat txertatu nahian Covid-19 gaitza dela-eta bizi genuen une gogorrean, Donostia Festak Unitateak, **Abuztua Donostian** izenpean, kultur eta kirol jardueren programa bat osatu zuen. Abuztuaren 8tik 31ra bitartean egin ziren, Donostiako zenbait lekutan.

Abuztua Donostian (Abuztuaren 8tik 31ra)

Ikusleen zenbatespena
14.326 pertsona

Jarduerak
115 guztira

- 27, aurrez izena emanda (4.098 lagun)
- 21 kirol jarduera (1.786 parte-hartzaile)
- 10 jarduera haurrentzat (1.100 haur)
- 2 Escape Street (118 talde parte-hartzaile)
- Non daude buruhandiak? lehiaketa. 1.444 argazki jaso ziren guztira
- Gastronomía lehiaketak, abuztuaren 31ko jarduerak, azokak, street food, eta abar.

Ohikoak baino jarduera txikiagoak, noski, baina ez erakarmen gutxiagokoak, Donostiako leku haietan egin zirenak. Ikuskizun guztiak aire zabalean egin ziren, esparru jakin batzuetan, eta edukiera mugatuta. Batzuetan, sarbidea izateko, erreserba egin behar izan zen aurrez online; beste batzuetan, sarrera librea izan zen edukiera bete arte, eta den-denetan erabili behar izan zen musukoa eta bete behar izan zen protokoloa indarrean zen araudiaren arabera, programazioa egokitasunez gara zedin segurtasunaren eta erosotasunaren aldetik.


Alegia, ikusi, parte hartu eta gozatzeko jarduerak izan ziren.

Hala eta guztiz ere, aldatu egin behar izan genuen gure ohiko irizpidea, eta jendea dabilen lekuetan egon beharrean, jendeak berariaz bertara joan beharreko lekuak aukeratu ziren, ordu-tegiak aldatuta, gauaz ahaztuta, bai eta su festez ere. Jendeak eserita egon behar izan zuen, pertsonen arteko tartea kontuan izanik... Hala eta guztiz ere, **Abuztua Donostian** programak funtzionatu zuen.



Kontzertua Trinitate plazan. Abuztua Donostian.





Abuztua Donostian palmaresa

Herri Kirolak	Igeldoko Harria: irabazlea, Jokin Eizmendi Urrezko Kopa: irabazlea, Iker Vicente
Marmitako Lehiaketa	Bikote irabazlea: Maite Labaka Arteaga eta Nieves Labaka Arteaga
<i>Prestatu gosari osasuntsua</i> gazteentzako gastronomia lehiaketa	Bikote irabazlea: Ainhoa Artola eta Ane Acha
Legatza saltsa berdean lehiaketa	Bikote irabazlea: Belén Herce eta Mailo Barrios
Paella lehiaketa	Bikote irabazlea: Lourdes Dorronsoro Beristain eta Iñigo Gurra Zufiria
Arkume menestra lehiaketa	Bikote irabazlea: José Manuel Irigoyen eta Tomás Nuñez



SU FESTEN NAZIOARTEKO 56. LEHIAKETA JAIALDIA

Su Festen Nazioarteko Lehiaketa ezin izan zen egin, nahiz eta programazioa erabat osatuta egon.

EUSKAL JAIK / IRAILEKO JARDUERAK


Aste Nagusian gertatu bezala, Euskal Jaiak ere ezin izan ziren beti bezala ospatu, eta, horren ordez, beste zenbait jarduera programatu ziren, batez ere musika emanaldiak Trinitate plazan. Hain zuzen ere, eta ardatzat Kontxako Banderako estropadak harturik, bost kultur jarduera egin ziren; esan bezala, Trinitate plazan: **Ereintza Dantza Taldearen** eta **Kukairen Gu Agustina + Kirol legez** ikuskizunak; **Dantza Sultoko Lehiaketa** (zazpi bikotek hartu zuten parte); **Sagardoak elkartzen gaitu** kanpainaren aurkezpena, **Donostia Bertsotan** eta **Iparragirrerri egindako omenaldia, Urretxutik mundura**, haren jaiotzaren 200.

urteurrenean. Gonbidapen bidezko jarduerak izan ziren.

Hirutan bete zen edukiera, eta guztira 835 lagun bildu zituzten.



Dantza Sultoko Txapelketa. Irabazleak: Katerin Artola eta Iker Belintxon.



DONOSTIAKO ESTROPADAK

Donostiako badian urtero izaten den ikuskizunak ez zuen huts egin: irailaren lehen hamabostaldian egin ziren 2020ko Donostiako Estropadak, bi modalitateetan. Hilaren 2an, **emakumeen sailkapeneko**a jokatu zen; 3an, **gizonena**; eta azkenik, bi igandeetan, 6an eta 13an, **finalak** jokatu ziren. Covid-19ak ez zuen galarazi estropadak egitea, baina pandemiak eragin egin zien, noski; **Aurten, Kontxa etxetik** goiburupean, jendetza bertara bildu gabe egin ziren.

Lehia gogorreko lau egun izan ziren, zeinetan kirol barrutia hesitu egin baitzen kirolarien osasuna babesteko, **jendetzarik eta pilaketarik gabe**. Prentsan egindako kanpaina, talde parte-hartzaile guztien kontzientziazioa, ekitaldian izan zen prentsarena eta antolakuntzako sailletako langileena ezinbestekoak izan ziren **Kontxako Bandera** sekulakoa izan zedin, bai kirol aldetik eta bai antolakuntzaren aldetik.

Banderak emateari ere eragin zion egoerak, eta beti bezala egin bazen ere, **Ciudad de San Sebastián** katamaranean, ontzia **portu barrutik badiara eraman zen**, uhartearen eta kaiaren artean.

Astlehenean, irailak 14, **ADEGI Fabrika Nueva V. Sariak** eman zitzaizkion Gipuzkoako traineru onenari, bai emakumeen artean eta bai gizonen artean.

2020ko Donostiako estropadak (irailaren 2, 3, 6 eta 13an)

Ikusleen zenbatespena **Ikuslerik gabe** jokatu ziren.

Kontxako XIII. Bandera (emakumeak)

Traineru parte-hartzaileak: **14**

Sailkatuak:
Orio
Tolosaldea
Donostia Arraun Lagunak
Zumaia-Salegi Jatetxea
Hondarribia Arraun Elkarte
San Juan Igartza
Hibaika Jamones Ancín
 Horiekin batera, Donostiarra Lacturale trainerua ere aritu zen bi igandeetan, Donostiaren ordezkari.

Irabazlea:
Orio

Kontxako Bandera (gizonak)

Traineru parte-hartzaileak: **22**

Sailkatuak:
Zierbena Bahías de Bizkaia
Orio
Hondarribia Arraun Elkarte
Santurtzi-Transportes y Gruas Aguado
Bermeo-Urdaibai-Avia-Echebaster
Cabo
Zarautz-Babyauto
 Horiekin batera, Donostiarra Amenabar trainerua ere aritu zen bi igandeetan, Donostiaren ordezkari.


Irabazlea:
Hondarribia Arraun Elkarte



Orioko neskek.



Hondarribiko mutilak.



SANTO TOMAS FERIA

2020an, Santo Tomas feriaren inguruan egin ohi diren jarduera guztiak bertan behera gelditu ziren Covid-19a zela eta. Salbuespena **Euskal Herriko XXV. Txistorra Lehiaketa** izan zen. Ostiralean egin zen, abenduaren 18an, **Donostiako Basque Culinary Center**-en egoitzan, eta 23 ekoizle bildu zituen. Ateak itxita egin zen lehiaketa, ikuslerik gabe, eta **streaming** bidez eman zen **Donostiako Festak**-en **YouTube** kanaletik.

Euskal Herriko XXV. Txistorra Lehiaketa (abenduaren 18an)

Epaimahaia

Elena Arzak (Arzak jatetxea)

Pedro Subijana

(Akelarre jatetxea)

Xabier Zabaleta (Aratz Erretegia)

Amaia Ortuzar

(Ganbara jatetxea)

Joxe Mari Aizega

(Basque Culinary Center)

Sarrituen zerrenda

1. postua: **Kepa Loidi (Orio)**

2. postua: **Patxi Aldasoro (Pako Harategia-Olazagutia)**

3. postua: **Fco. Javier Aguado (Comercial Leframa-Tudela)**



23 parte-hartzaile



Euskal Herriko XXV. Txistorra Lehiaketa.

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

Olentzero eta Mari Domingi ezin falta izan urteroko hitzordura Donostiako haurrak agurtzera. Modu berria asmatu behar izan zuten, jendearen hurbiltasuna ekiditeko.

Hala, gure hirian agertu baino egun batzuk lehenago, bideoa bidali ziguten, non eguneroko jarduna azaldu baitziguten, baita nola ari ziren prestatzen txikienezako hitzordua ere. Orobat, Donostia Kulturaren webgunearen bitartez, hala nahi izan zuten hurrek gutunak eta asmoak bidali zizkieten, eta bien erantzuna jaso zuten.

Gabon aurreko egunetan, Olentzero eta Mari Domingi agertu ziren hala nahi izan zuten ikastetxeetara. Lur Kortak ipuina kontatu zuen, **Olentzero eta Mari Domingiren zuhaitza** izenburukoa. Guztira, hamar ikastetxe etorri ziren, eta 21 emanaldi izan ziren abenduko

9tik 21era bitarte. Emanaldiak ikastetxeetan bertan izan ziren, araututako segurtasun neurriak eta burbuilak gordez betiere. Jarduera horren osagarri, Olentzero eta Mari Domingiren igarleak, galtzagorriak, 23 ikastetxetan izan ziren txikienezko gutunak eta marrazkiak jaso eta Olentzero eta Mari Domingiri eramateko.

18 buzoi jarri ziren Olentzero eta Mari Domingiren irudiekin hiriko zenbait denda eta merkataritza gunetan, herritarren gutunak biltzeko.


Udaletxeko harrera ekitaldia, ordea, ezin izan zen egin. Horren ordez, abenduaren 23 eta 24an haurrentzako ikuskizun bat antolatu zen Antzoki Zaharrean, Tomaxen Abenturak-en eskutik, **Olentzero eta Mari Domingiren misterioa** izenburupean, eta Olentzero eta Mari Domingi ere hantxe izan ziren. Webgunean eskatutako gonbidapenen bidez lor zitekeen zazpi emanaldietarako



Olentzero eta Maridomingi.

sarrerak. Guztira, 1.750 ikus-entzule bildu zituzten. Emanaldi bat **streaming** bidez eman zen Donostiako Festak-en **YouTube** kanaletik.

Azkenik, Gabon egunean, 13:00etatik 15:00etara, Olentzerok eta Mari Domingik ustekabea eman zieten kalean zebiltzane, kabrioletan ibili baitziren Donostiako auzoetan barrena.



DONOSTIAKO AUZOETAKO JAIAK

2020. urteko beste jardueri bezala, Donostiako auzoetako jaiei ere asko eragin zien Covid-19aren pandemiak, eta gehienak bertan behera geratu ziren; ezin izan ziren antolatu, beharrezko segurtasun baldintzarik ez zelako. Urte hasierakoek baino ez zuten aukera izan aurreko urteetakoen antzeko programa eskaintzeko, hau da, Antiguako Jaiek -San Sebastianek- eta Ibaeta auzokoek. Beste guztiak, martxotik aurrera izatekoak zirenez, ezin izan ziren egin.

BESTE JARDUERA BATZUK

Etxe erregionalen ospakizunentzat ere ohiz kanpoko urtea izan zen 2020a, eta gehienak ezin izan ziren egin. Salbuespena, produktuen azoka bat jarri zela Mahats Bilketaren Jaiaren egunean, irailaren 27an, Bulebarrean.

Bestalde, Donostia Festak Unitateak era batera edo bestera parte hartu ohi duen beste jardueri dagokienez, esan behar da 2020an askoz gutxiago izan zirela, gehienak udaberrian eta udan egiten baitira, hau da, pandemia gorenean zegoen garaian.

Etxe erregionalen jaiak

Jarduerak: 1

Jaien izena

Egunak

ANTIGUAKO SAN SEBASTIAN JAIAK

URTARRILAK 9 - 20

IBAETAKO JAIAK

OTSAILAK 29 / MARTXOAK 1 - 9

SENIDETZEAK

Marugame: Urteroko garaikur trukea egin zen eskolarteko futbol txapelketetarako.

Marugameko High School-eko ikasleak bisitan etortzekoak ziren, baina bertan behera geratu zen hori, pandemiagatik.

ESKERRAK BABESLEEI

Hain urte zailean, garrantzitsua da gure esker ona adieraztea hainbat eta hainbat erakunde eta markari, haiek gabe jarduera batzuk ezin izango baitziren egin: **Coca Cola, El Diario Vasco, FCC, Eroski, Supermercados BM, Insaluz, Nestle, EKP, Frigo, Super Amara, ADEGI, eta abar.**



EL DIARIO VASCO



San Juan bezpera, Konstituzio plazan.



5 **5. Jazzaldia**, 2020ko uztailaren 22tik 26ra egindakoa, guztiok gogoratuko dugu, eta ez bakarrik bere kontzertuetara maskara eta edukiera mugatuekin joan ginelako, egoera berezi eta zailean, baizik eta baita bere kontzertu ikusgarriengatik, une paregabeengatik eta kalitate orokor bikainagatik ere. Publikoak modu eredugarrian erantzun zuen, Covid-19ak eragindako arauak jarraituz, erantzukizun handiz, gogotsu eta ia eszenatoki guztiak betez. Nabarmendu nahi dugu, halaber, ez zela inolako gorabeherarik izan eta osasun eta segurtasun neurri guztiak uneoro bermatu zituela antolakuntzak eta erabat jarraitu zituela kontzertuetara bertaraturako jendeak.

Edizio honetan, lehen aldiz, **hiru Donostiako Jazzaldia Sari** eman zitzaizkien Jazzaren hiru jeniari: **Jorge Pardo, Chano Domínguez eta Iñaki Salvador**. Gainera, hirurak izan ziren Jazzaldiko eszenatoki nagusietan, Trinitate plazan, Kursaal Auditorioan eta Victoria Eugenia Antzokian, elkarrekin edota euren bandekin, kontzertu ahaztezinak ematen.

Aipatutakoekin batera, Espainiako artista eta talde onenen aukeraketa bat ikusi ahal izan genuen. Guztiak esker onez aritu ziren berriz ere zuzeneko kontzertuak eman ahal izan zituztelako, eta artez eta kalitate musikalez beteriko une zoragarriak oparitu zizkiguten. Honakoak izan ziren: **Chano Domínguez, Marco Mezquida, Perico Sambeat, Carles Benavent, Chicuelo, Sílvia Pérez Cruz, Antonio Serrano, Raúl Refree Lina portugaldarrarekin batera, Josemi Carmona, Tino di Geraldo...**



Jorge Pardo-Iñaki Salvador Quartet.

Maila handiko euskal talde eta artisten kontzertuak ere izan genituen. **Oreka TX** eta **Michel Portalek** kontzertu bana eman zuten Trinitate plazan, eta gainera, inprobisazio bateratu bat utzi ziguten, betiko gogoratuko duguna. **Iñaki Salvador** donostiarrek bi kontzertu eman zituen, bata Kursaal, **Chano Dominguezekin** batera, eta bestea Victoria Eugenia Antzokian, **Jorge Pardo eta Borja Barrueta** bizkaitarrarekin. San Telmo Museoko klaustroan Donostiako bi piano-jotzaile, **Paul San Martin eta Mikel Azpiroz**. Eta Jazzaldiaren azken egunean, Victoria Eugenia Antzokian, **Joseba Irazoki** eta Lagunak.



Sílvia Pérez Cruz.

Chano Domínguez e
Iñaki Salvador.





Anja Lechner & François Couturier.



Mariza.



Joachim Kühn.

Kontzertu guztietatik onenetako hiru artista portugaldarren eskutik etorri zitzaizkigun: **Lina, Raúl Refree** katalanarekin batera Victoria Eugenia Antzokian, **Salvador Sobral** Kursaalaren eta **Mariza** Trinitate plazan.

Gainontzeko artistak, batzuk Espainian bizi badira ere, nazioartekoak izan ziren, Norvegia, Suedia, Frantzia, Alemania, Serbia, Estatu Batuak: **Rymden, Joachim Kühn, Anja Lechner, François Couturier, Bojan Z., Randy Greer** (Valentzian bizi da), **Sean Clapis** (Madrilen bizi da)...

Bertako taldeen zerrenda osatuz, Kursaalera Terrazetan euskal artista gazteen 21 kontzertu izan ziren, formatu berri batean. Guztira, **21 kontzertu** ikusi ahal izan ziren, guztiak doakoak eta edukiera kontrolatukoak, zuzeneko musika onaz gozatu bitartean lasai-lasai zerbait hartzeko moduko espazio batean, hori guztia ikuspegi paregabearekin eta jaialdi osoan zehar izan genuen eguraldi ona lagun.

2020ko nobedade bat **streaming** bidez eskainitako kontzertuak izan ziren, **15 emanaldi guztira**, mundu osoko zale ugari jarraitutakoak, 70.000 bistaratze baino gehiagorekin. Doako zerbitzua izan zen, zuzeneko kontzertuetara joaterik izan ez zuten guztientzat irekia. Honez gain, kontuan hartzekoa da gure sareetan 34.000 jarraitzaile edukitzera heldu ginela.

Txikijazzen zortzigarren edizioak 4 kontzertu eskaini zitzaizkigun, Tabakalerako Kutxa Kultur Terrazara eta Kursaalera Terrazetara hurbildu ziren familiek asko gozatu eta estimatutakoak.

Azken batean, oroitzapenerako jaialdi bat izan zen, kontzertuen maila altuagatik eta, kontrako baldintzen aurrean, Jazz zaleek izan zuten erantzun ezin hobeagatik.

IKUSLE KOPURUA:
44.000 pertsona

STREAMING
BIDEZKO JARRAIPENA:
70.000 bisita



Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 31. Astea ere (2020ko urriaren 30etik azaroaren 6ra bitarte) ohiz kanpoko kultur programazioak harrapatu zuen. Betiere egunez eguneko aurreikuspenei erne, apustua aurrez aurreko edizioa berme guztiakin egitea zen. Hori dela eta, berrikusi egin zen zinemaldiaren formatua, eta jarduera batzuk baztertu egin ziren, ezinezkoak zirelako edo kontuz ibiltzeagatik.

Baina zinemaldiak beti izan zuen argi sektoreari laguntzeko helburua, sortzaileei alegia, eta ikus-entzuleei kalitatezko zinema menua eskaintzekoa, eta edizio horretan hori egon zen zinemaldiaren beste osagai batzuen gaitetik. Ikus-entzuleek film luzeei emandako puntuazio altuak dira horren erakusgarri.

Berritasunen artean, Tabakalera ere erabili zela emanaldietarako. Eta **online jarduera** gehiago izan ziren, sare sozialetako ekinbide ludikoak tartean; besteak beste, Instagrameko kontu berri oso aktibo bat. Eta **Azaro Mamua**ren lehen edizioa, Vimeoko kanal bat, generoko eduki eksklusiboekin, **Terror Molins** eta Malagako **Fancine** zinemaldiak



Publikoa, musukoekin eta segurtasun neurri guztiakin.

batera sortua. Balorazioa oso aldekoa izan zen, hartarako egindako elkarrizketak eta beste formatu batzuk izan genituen, baita film laburren sorta hautatu interesgarria ere.

Zinema menuan, sail ofizialak oso maila altua izan zuen, bai film luzeetan eta bai laburretan. Aipamen berezia merezi du Europako zinema independenteak oro har, eta frantsesak bereziki.

Euskal talentuei dagokienez, 2020an nabarmentzekoak **Koldo Serrak** eta **Jose Antonio Pérezek** sortutako **Caminantes** seriea lehen aldiz estreinatu izana pantaila handian, edo **Ilargi guztiak** film luzearen aurrerapena. Ahaztu gabe **Paul Urkijoren** film luze berria, **Dardar**. Ikus-entzuleen Saria irabazi zuena, edo euskarazko bi film labur estreinatu izana, **Ospel** eta **Zerua hautsi zen gaua** (bigarren hau Oihua! Produkzio ekinbidetik sortua, zeina Asteak berak bultzatzen baitu, besteak beste).



2020ko kartela.

2020ko atzera begirako tematikoa **Gaizkiaren Panpinei** eskaini zitzaizen. Horixe zen kartel ofizialaren ideia, non **Javier Botet** aktorea agertzen baitzen, eta **Tolosako Topic Museoaren** hamargarren urteurrenarekin batera etorri zen. Hain zuzen ere, handik etorri zitzaigun 2020ko erakusketarik garrantzitsuena, **Alegiazko izakiak**, Okendo Kultur Etxera etorri ere.

Euskal ilustratzaileen aldeko apustuak, **Euskadi Fantastikoa** sailean, **Sarima** bizkaitarra ekarri zigun Donostiara (eta ondoren Irunera). Eta erakusketen sailean betiere, lankide izan genituen berriz ere Kutxa Kultur, zeinak **Fernando Mircalaren Futuro elegante** ekarri baitzigun, eta FNAC, **Juan Giménez** marrazkilari berriki zenduari egindako omenaldiarekin. Erakusketa hau, gainera, Espainiako FNAC denda guztietan ikusi ahal izango da 2021ean.





PASIOA

dFERIA 2020ko martxoaren 9tik 12ra egin zen, eta aurreko urteetako zifrei eutsi zien. Covid-19k konfinatu aurreko egunetan egin bazen ere, krisiak azken egunean baino ez zuen eragin. Konpainia batek ezin izan zuen hitzordura iritsi: **Fabio Liberti** konpainia italiarrak bere **Don't, kiss** antzerkiarekin.

dFERIAko XXVI. edizioan, **32 konpainiaren, 32 ikuskizun** eta **42 emanaldi** programatu ziren zortzi eszenatokitan: Victoria Eugenia Antzokia, Victoria Eugenia Club, Antzoki Zaharra, Gazteszena (Egia), Intxaurrondo K.E., Kutxa Kultur Plaza (Tabakalera), Tabakalera-Patio eta Convent Garden-Cripta, kale antzerkiak gain.

7.000 lagun baino gehiagok eszenatokietan programatutako emanaldiez gozatu ahal izan zuten, eta batez besteko okupazio maila

%77koa izan zen. Orokorrean, feria honetan, ikuskizunetako publikoaren eta jarduera paraleloetako parte-hartzaileen kopuruak aurreko urtekoaren antzekoak izan ziren.

Nobedadeen artean aipatzekoa da publiko berriengana iritsi nahi izan zuela, horrexegatik, publiko gazteari zein haurrei (Tutik Clowns konpainiaren 25. urteurrena ospatzeko) zuzendutako hainbat antzezlan programatu ziren. Gainera, azken urteetan eskaera handia izan duen jarduera profesionala berreskuratu zen: **Negozio Foroa**, arrakasta handiz burutu zena. Bestetik, abonauak eta mauka interesgarriak izan ziren alde aurretik erosi zituztenentzat.

Kopuruari dagokionez, ikuskizunen erdia baino gehiago (%56) dFERIAN estreinatu ziren, modu batean edo bestean. Horietatik, %47 dantza izan ziren, beste %47 antzerkia eta %6 diziplina anitzak.

Akreditatuen kopuruari dagokionez, 519 profesional etorri ziren guztira. Hala, 2019ko kopurua %3,88 jaitsi zen: 196 programatzaile, 66 banatzaile, 155 ekoizle eta konpainien ordezkari, 46 erakundeetako ordezkari, 16 kazetari eta kritikari eta bestelako 40.

Nazioarteko konpainien jatorria: Argentina, Eslovenia-Frantzia, Venezuela eta Mexiko.

Aipatzekoa da dFERIAN, beste urte batez, Brasil, Costa Rica, Ekuador eta Mexikoko nazioarteko programatzaileak izan zirela, gonbidatu gisa, Acción Cultural Española (AC/E) bere Programa Para la Internacionalización de la Cultura Española (PICE)-ren bitartez egindako lankidetzari esker.

Jarduera profesionalean honako hauek izan ziren parte-hartzaileak:

Euskadiko Antzokien SAREaren Batzarra: 51 lagun

Onda Cero-ren zuzeneko emanaldia: 25 lagun

Ongi Etorri ofiziala: 200 lagun

Eclat Work in progress estreinaldia: 200 lagun

MANIFIESTO RED ESPAÑOLA aurkezpena: 200 lagun

SAREA-Euskadi Antzoki SAREaren bazkaria: 51 lagun

Euskadi Irratia-Radio Euskadiren zuzeneko emanaldia: 20 lagun

Negozio Foroaren konpainiekin prestaketa bilera: 45 lagun

Europako programatzaileen eta konpainien arteko topaketa: 14 lagun

Europako programatzaileen eta konpainien arteko hitzorduak: 20 lagun

Eskena batzarra: 20 lagun

Negozio Foroa: 200 lagun

ARTEKALE batzarra: 14 lagun

Karrika / Hameka batzarra: 11 lagun

Arte Eszenikoen Akademiaren txostenaren aurkezpena: 12 lagun

Arte Eszenikoen sektoreko topaketa: 8 lagun

dFERIA autobusa: 900 lagun

Neurrira egindako topaketak: 120 lagun

Goizeko topaketa gunea: 1.400 lagun

Gaueko topaketa gunea: 900 lagun

dFERIAko prentsurrekoak: 450 lagun

PRO bideratzaileak: 700 lagun

dFERIArekin solasaldiak TABAKALERAN: 105 lagun



2020ko dFERIAren aurkezpena.



DFERIAKO NOBEDADEAK

Aurtengo nobedadeen artean 3 nabarmendu daitezke:

- Batetik, programazioa publiko berriei zabaldu zela, bereziki gazteei eta nerabeei zuzendutako ikuskizunekin.
- Bestetik, profesionali zuzendutako jardueren artean Negozio Foroa berreskuratu zela, arrakasta handiz. Honela, eskaera handia duen jarduera berreskuratu zen, profesionalen arteko elkar ezagutza errazten duena, hain zuzen ere. Negozio Foroa proposamen berriak ezagutzeko tresna izan zen, itxurazko denboran eta ahaleginak optimizatuz. Honek, neurrira egindako topaketekin batera, profesionalen arteko harremana estutzea ekarri zuen.
- Azkenik, Tabakalera eszenatoki bezala berreskuratu zen, bi ikuskizun bertan programatuz: **La Tristura**ren **Future Lovers** eta **Marga Altola**gurreren **Pantheon**.

PROGRAMAZIOA

Guztira, **32 konpainiaren, 32 ikuskizun** eta **42 emanaldi** programatu ziren, eszenatoki zein kale antzerkiko antzezlanak kontuan hartuta. Horietatik, %56 modu bateko edo besteko estreinaldiak izan ziren:

Estreinaldi orokorrak: Igor Calongerren **Reverso**; **Marga Altola**gurreren **Pantheon** eta **Hutsun&Ortzire**ren **Urbasa**.

Estreinaldiak Europan: Sharon Fridman-en **Dosis de Paraíso**, **Seguidor de Pléyades**-en **Más de 45.000** eta **Ay Sí Sí Sí**-ren **24 de septiembre, casi casi primavera**.

Estreinaldiak estatuan: Dream, **Cie Julien Lestel** eta **Perdón, Sutottos**.

Estreinaldiak Euskal Herrian: Picnic on the moon, **Llego tarde**; **Future Lovers**, **La tristura**; **Amiga**, **Tribueñe**; **Próximo**, **Timbre 4**; **Cuando todo cambia (clic)**, **Teatro**



Dream. Cie Julien Lestel.

Calderón & Fran Ávila; **Los cuerpos celestes**, **Marco Vargas & Chloé Brûlé**; **Ya no seremos**, **Ángel Rojas Flamenco Dance Project**; **Coneja**, **Esperanza Pedreño** eta **Manuelita**, **Popelei**.

2020an euskarazko emanaldi hauek izan ziren:

- **Petitxou** (Tutik Clowns)
- **Gauekoak** (Kukai Dantza)
- **Biz Hitza** (Aukeran Dantza Konpainia)
- **Nola heldu gara honetara?** (Erre produkzioak)

Bestetik, dFERIAren ondorengo ostiralean eta larunbatean programatutako **Pez Limboren Harri orri ar**-en emanaldiak bertan behera geratu ziren.

ONDORIOAK

dFERIAren azken edizioa arrakastatsua izan zen konpainien maila artistiko handiari esker, Arte Eszenikoen sektoreak feriarekiko erakutsi zuen atxikimenduari esker eta publikoaren harrera bikainari esker.



Los cuerpos celestes. Marco Vargas & Chloé Brûlé.



Aipatzekoa da, Covid-19aren krisiaren eragina agerikoa izan dela dFERIAren ere, nahiz eta gehienbat azken egunetan nabarmendu. Zentzu honetan, nabarmentzekoa da nazioarteko zazpi programatzailek eta estatu mailako hogeita hiru azken unean ez etortzea erabaki zutela.

dFERIAren hirugarren jardunaldian, 15 programatzailek alde egin behar izan zuten, gehienak Madriloak.

Azken jardunaldian, programatzaile eta konpainia askok euren itzulera aurreratzea erabaki zuten, Covid-19k sortutako osasun krisiaren norabidea ikusita.

Salbuespen egoera alde batera utzita, aipagarria da aurkeztutako ikuskizunen kalitate handia, euskal antzerkiaren eta dantzaren mailaren erakusgarri, bai ikusleentzat, bai komunikabideentzat, baita profesionalentzat ere. Beste edizioetako kopuruak gainditzeko baldintzak eman ziren, baina nabarmena izan zen salmenten beherakada hirugarren eta laugarren egunetan.

Nabarmentzekoa da, halaber, 2020ko edizioan ere nazioarteko aintzatespena lortu zuten zenbait artista eta ikuskizun izan genituela gure artean. Duela zenbait edizio finkatutako erronka guztiak gainditu ziren, eta, hala, kalitatezko programazio berritzailea eskaini zen, eta orekatua, dantza eta antzerkiari begira. Guztion artean -sektorea, administrazioak, prentsa eta ikusleak-, ezagutzera

eman genuen dFERIAk egiten duen lana antzerki eta dantzaren arloa sustatzen eta bistaritzen.

Atzerritik etorritako zenbait profesionalak, bestalde, berriz ere interes handia azaldu zuten euskal antzerkia eta dantza beren herrialdeetan programatzeko.

Negozio Foroek profesionalak elkar ezagutu dezaten ahalbidetzen dute, eta proiektu eta ikuskizun berriak sustatzeko aukera eskaintzen dute. Ezinbestekoa iruditzen zaigu lan-ildo hori jorratzen jarraitzea, elkarlanerako eta merkataritza-trukerako bideak zabaltzeko.

Ildo horretan, azokako bi bideratzaileen lana nabarmentzekoa da; izan ere, bitartekari-lanak egin zituzten elkar ezagutzen ez zuten profesionalak harremanetan jartzeko eta haien arteko topaketak bideratzeko. dFERIA pixkanaka-pixkanaka gora doa, gero eta profesional gehiagok parte hartzen du bertan, eta, horregatik, bitartekaritza-lana gero eta beharrezkoa izango da.

Amaitzeko, zinez eskertu nahi ditugu azken urteetan lankide izan ditugun administrazio-erakundeak: **INAEM**, **Eusko Jaurlaritza** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**. Halaber, ezin aipatu gabe utzi **KUTXA**, **SGAE Fundazioa**, **Ettxepare Institutua**, **Nafarroako Gobernu**a, **COFAE** (Coordinadora de Ferias de Artes Escénicas del Estado) **REDELAE** (Red Eurolatinoamericana de Artes Escénicas) eta **AC/E** (Acción

Cultural Española bere PICE Espainiar Kultura Nazioartekotzeko Programaren bitartez, atzerriko 6 profesionalak izan zuten edizio honetan parte hartzeko aukera Bisitariak modalitatean) erakundeen ezinbesteko lankidetzaz.


Urtero bezala, bereziki eskertu nahi dugu euskal antzerki eta dantza konpainien parte-hartze aktiboa, oro har, eta, zehazki, Euskal Antzerki eta Dantza Konpainien Elkartearena (**Eskena**), Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartearena (**ADDE**) eta Euskal Aktoreen Batasunarena (**EAB**), hala nola **Artez aldizkari**arena.

Bestetan bezala, haiek guztiak euren alea jarri zuten 2020ko edizioa aurrera eramateko, eta ahalegin berezia egin zuten, besteak beste, baita ekonomikoki ere.

Esker ona adierazi nahi diegu, halaber, komunikabideei eta bertako profesionalari dFERIAri emandako babesagatik, eta, azkenik, eta batez ere, publikoak eskertu nahi dugu: izan ere, azken urteetako joera jarraituz, haiei esker aretoak beteago daude urtetik urtera, eta hori ezinbesteko erronka eta akuilu bihurtzen da etorkizuneko edizioak antolatzeari begira.

DFERIAREN XXVII. EDIZIOA

dFERIAren hurrengo edizioa, **2021eko martxoaren 15a eta 18a** bitartean izango da.





Sara Zozaya.



Grises.

D **Kluba** programak Donostiako auzoetako musika eskaintza dinamizatzeke helburua du, tokiko taldeen parte-hartzea sustatuz, bereziki. Hiria bera musikan erreferente bihurtzea da helburua, talde berriak aurkitzeko, artista ospetsuen bisita jasotzeko eta bertako talentua modu naturalean hazi ahal den tokia izateko.

Lankidetzat du oinarri (administrazio publikoaren eta erakunde pribatuen artean), musika emaldi komertzialak ez bezalako ekitaldi alternatiboak programatzeko eta bertakoa aintzat hartzeko xedez (hala musika taldeei dagokienez nola kolektibo, klub, sustatzaile eta elkarten lanari dagokionez).

Dklubarentzat urtea gogotsu hasi zen eta neguan programatutako kontzertuek Intxaurren Kultur Etxeko aretoa bete zuten. Urtarrileko lehen kontzertuan, **Los Zigarros** eta **Radiocaster** taldeak izan ziren, eta sarrera guztiak agortu ziren taldeen arrakasta islatuz.

Hala jarraitu zuen otsailean, **Musikagela Weekend** jaialdiaren 10. urteurrenarekin, non **Sex Museum** madrildarra izan zen talde nagusia eta **The Blackfeet** eta **Glory Howl**

tokiko talde gonbidatuak. Gros auzoko tabernetan **Mikel Karton** eta **David Grajal**en kontzertuak ere izan genituen, tokiko talentua auzoetara eramateko lanean jarraituz.

Ondorengo kontzertuak ere arrakastatsu zetozen eta **ETS**-ren kasuan otsailerako sarrerak **agortuak** zituzten, baina **osasun krisiak kontzertuak jendaurrean egin ahal izatea eragotzi zuen. Martxotik ekainera ezin izan zen zuzeneko musika emanaldi profesionalik antolatu** eta musikarien agerraldiak euren etxetako balkoietara eta internet bitartezko emisioetara geratu ziren mugatuak.

Ekainean berriro kalera ateratzen hasi arren, egoera berriaren segurtasun baldintzak oso aldakorak izan ziren uda guztian zehar eta, ondorioz, urtero antolatzen genituen jaialdi jendetsuenak bata bestearen atzetik **bertan behera** geratzen joan ziren: Loiola kaleko **Musikaren Eguna**, zentroan egitekoa zen **Musikagela Fest**, Cristina Enea parkeko **Glad is the Day** eta Miramongo parkean egitekoa zen **Basoka**.

Zirkuituaren jarduera ez zen udazkenera arte berreskuratu ahal izan eta, beti ere, Covid-19ari aurre egiteko

neurrietara egokituta, besteak beste, mugatutako edukierekin eta ikusleak eserleketan eserita. Hala ere, publikoak berriro gogotsu erantzun zuen egoera ezberdin horretan.

Urrian **Donostikluba Festivala**

izan genuen Intxaurren eta bi egunetarako sarrerak agortu zituen. Ostiralean auzoko **El Negro** eta ez oso urrutiko **Latriku** aritu ziren musika urbano berrietan Intxaurren Kultur Etxeak zer eskaini dien argi utziz. Larunbatean **Chaqueta de Chándal** eta **Grises** taldeek bestelako estilo batean kontzertu ederra eman zuten, bertaratutakoaren gozamenarako. Jarraian, **Revolution Jamrock Donostia Reggae Festival**-ak bere burua berrasmatu eta jaialdia bi data ezberdinetan eskaintzeko apustua egin zuen: azaroan **Live** formularekin **Emeterians & Forward Ever Band**-ek zuzeneko itzela eman zuen eta abenduan, **GabON Reggae** formularekin eta sound system estiloan, **Revolutionary Brothers** bikotea jardun zen tokiko hainbat artistekin batera.

Ezin ahaztu ere bi emanaldi horien artean **Sara Zozaya** aritu zela azaroan, eta berriro sarrera guztiak agortu zirela.

Urtea amaitzeko, **DKluba** zirkuitua, hiriko **musika areto pribatuen jarduera berreskuratzen laguntzeko** asmoarekin, hainbat kontzerturen antolaketan parte hartzen hasi zen berriro. Horrela, abenduan **Pedro Pastor** eta **Ketekalles** taldeak izan ziren **Dokan**, eta 2021erako **Dabadaba** eta gainerako aretoetan emanaldi gehiago aurreikusitako ditugu.



2020ko kartela.



Matriuska. Ttak Teatroa eta Kamimaz Kolektiboa.

Urtarrilaren **29tik otsailaren 16ra bitarte** egin zen **Poltsiko Antzerkia, 29. edizioa** iritsi zen 2020an. Programak **26 gune/agertoki** izan zituen hirian zehar, eta **34 emanaldi** eskaini zituen (bi-lau eguneko, Donostiako zenbait lekutan).

Jaialdi hau zubi ezin hobea da formatu txikiko antzerkira hurbiltzeko, eta arrakasta handia izaten du urtero ikus-entzuleen artean. Azken edizioan, hain zuzen, **3.629 ikus-entzuletik gora izan ziren**. Guztira, **16 konpainiak** eskaini zituzten umorezko lanak, drama eta musika; batzuk talde-lanak izan ziren, eta beste batzuk bakarkakoak.

Beste urte batzuetan bezala, oraingoan ere euskal sorkuntzak leku nabarmena hartu zuen: **16 emanaldi euskaraz** izan ziren. Generoari dagokionez, 17 ikuskizunetan emakumeak izan ziren protagonista, 2tan biak, eta 15etan gizonak.

Amaierako jaian, zeinean **280 lagun** bildu baitziren, topaketa gunea eskaini zen aktoreentzat eta ikus-entzuleentzat; oso esperientzia polita eta jostagarria. Poltsiko Antzerki jaialdiak beti izan du ikusleko fidela, eta urtero gehiago batzen doaz iada Donostiako kultur programazioko klasiko bat den ekitaldi honetara.

POLTSIKO ANTZERKI SORKUNTZA

Poltsiko Antzerki jaialdian, eta oro har formatu txikiko antzerkian euskarazko eskaintza urria ikusita, euskarazko sorkuntzak bultzatu nahi ditugu deialdi honekin. Sorkuntzarako diru-laguntzaz gain, **ekoizpenean eta hedapenean laguntza** ere jasotzen dute proiektu sarituek, aukeratutako proiektuekin emanaldiak ere antolatuz. Beraz, deialdiaren laguntzak kultur katearen atal guztiak hartzen ditu barnean: sorkuntza, ekoizpena eta hedapena.



The Chanclettes.

10. edizioan jasotako proiektuen artean, lehen saria **Ttak Teatroa eta Kamimaz Kolektiboa** taldearen **Matriuska** antzezlanari eman zion epaimahaiak. Bigarren saria, berriz, **Elur Sorkuntza Etxearen Esnatu Naiz** lanari egokitu zitzaion.



Korner

KULTURA & FUTBOL
FESTIBALA



Benjamín Prado eta Manuel Vilas.

Donostia Kulturak eta Real Sociedad Fundazioak antolatutako **Korner** jaialdiaren hirugarren edizioaz gozatzeko aukera izan zen **otsailaren 9tik 15era bitartean**. 2018an hasi zenetik, jaialdia erreferentzia bihurtu da kirol nagusiak diziplina artistikoekin eta eztabaida sozialekin dituen loturak aztertzeke orduan.

Kornerrek publiko guztientzat pentsatutako programa zabala eta diziplina anitzekoa eskaini zuen, eta kulturako eta futboleko izen nabarmenak izan ziren bertan: **Manuel Vilas, María Botto, Benjamín Prado, Manu Lareo, Santiago Cañizares, Jose Luis Garci, Maddi Torre, Roberto Olabe, Imanol Agirretxe, Luis Chillida, Mikel Alonso edo Judith Jauregui**, besteak beste.


Ernest Lluch Kultur Etxea eta **Antzoki Zaharra** izan ziren jaialdiaren egoitza nagusiak eta **1.600 pertsona baino gehiago bildu ziren** solasaldiez, proiektioez, bakarriketez, antzerkiaz, bertsoez eta erakusketez gozatzeko.

Realak eta Athletic Clubek elkarren aurka jokatzeko duten bakoitzean **Antzoki Zaharrean** antolatzen den **Bertso Derby** tradizionalarekin hasi zen Korner. Hitzaurre dibertigarria izan zuen ekitaldiak jaialdiaren eskutik: **Monologolak, Zuhaitz Gurrutxagak, Mirari Martiarenak** eta **Idoia Torregarai** antzezitutako monologoak umore klabean.

2020ko zita berezia leku pribilegiatuan iritsi zen: **Chillida Leku Museoa**. Bereziki atezainaren figura jorratu zuen edizio batek ezin

zuen utzi pasatzen Eduardo Chillidaren obrak futbolarekin duen harremanaz hitz egiteko aukera. Jakina denez, artista donostiarra Realeko atezaina izan zen gaztetan. Esperientzia horrek arrasto sakona utzi zuen Chillidaren espazioaren kontzepzioan.

Azkenik, ez da ahaztu behar Kornerren baitan **Etxe txuri-urdinak** erakusketa inauguratu zela Ernest Lluch Kultur Etxean, Realak sorreratik izan dituen hainbat joko-zelaietan oinarritua. Hirugarren edizio honetako solasaldi guztiak jaialdiaren www.korner.eus webgunean daude eskuragarri, baita gonbidatu batzuei grabatutako Korner galdetegiak ere, euren futbolarekiko ikuspegi pertsonalak jasotzen dituztenak.



El Victoria Eugenia, con menos butacas, por las medidas de seguridad.

2 020an, Donostia Kulturako Ekoizpen Unitateak **405 ekoizpen** egin zituen, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean, San Telmo Museoan, Kursaal zentroan eta beste gune batzuetan egindakoak batuta. Horrek esan nahi du 2019koa baino askoz gutxiago izan zirela (-%54), aretoak ixtearen eta jarduerak gutxitzearen ondorioz, Covid-19a zela eta.

Ekoizpenotan sartzen dira dFERIA Antzerki Feria, Giza Eskubideen Zinemaldia, Jazzaldia eta Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea ere.

Donostia Kulturaren produkzio horiez gain, 2020an beste entitate eta erakunde batzuei ere eskaini genizkien gure ekoizpen zerbitzuak.

KURSAAL ESZENAren kontzertuak (musika klasikoa eta herri musikak).

MUSIKA HAMABOSTALDIA / Quincena Musical Kursaal zentroan, San Telmo Museoan eta Tabakaleran.

Produkzio Koordinazioa, **SSIFF Donostia Zinemaldia**rekin batera, Victoria Eugenia Antzokian.

Nabarmentzekoa da ezen, egindako lanari esker, **Victoria Eugenia Antzokia** izan zela **Espainian ateak ireki zituen lehen antzoki egokitua**, derrigorrezko itxieraren eta martxoko konfinamenduaren ondoren.

Izan ere, 2020an departamentu hau erreferente bihurtu zen. Covid-19a etorri zenean, aitzindari izan ginen gure **areto eszenikoak eta** ekitaldi antolaketaren **lan**

dinamika egoera berrira egokitzen, artista, teknikari eta ikus-entzuleen segurtasunari dagokionez. Emaitza: erreferente izan ginen beste kulturgune batzuentzat, gureen (Victoria Eugenia Antzokiaren eta Antzoki Zaharraren) ondotik berrekin ziotenean beren jardunari.

Nabarmentzekoa da, azkenik, Jazzaldia eta Musika Hamabostaldia jaialdien produkzioa burutu izana. Jaialdi horien ekoizpena, 2020an, erabat egokitu zen indarrean zegoen araudiari, eta artista, teknikari eta ikus-entzuleen segurtasuna bermatu zen.

Azkenik, nabarmendu behar da **PAUSO BERRIAK** hitzarmena berritu zela GUREAK FUNDAZIOArekin eta ATZEGIrekin. Programa horrek gutxiagotasun intelektuala duten pertsonei gure inguruko enpresa eta erakundeetan lan egiteko bidea ematea du helburu.



Operario retirando butacas.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura